



GAIKAKO MONOGRAFIAK:

EAE-REN GIZARTE- ETA EKONOMIA-ANALISIA

Laguntza teknikoa

TALLER DE IDEAS 

LAAen berrazterketa

2008KO ABUZTUA

a.

Biztanleria

a.1. Demografia eta lurraldea EAEn

Estatistikako Institutu Nazionalak jasotako errolda-datuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) 2.133.684 biztanle zituen 2006. urtearen hasieran. Kopuru horrek ia berdindu egiten du EAEk 1981. urtean lortu zuen biztanleria maximo historikoa eta dirudenez berretsi egiten du mende-aldaketarekin batera hasi zen nolabaiteko berreskuratze demografikoranzko joera-aldaketa.

Hala, azken 50 urteetan EAEko biztanleriak hiru ziklo arras desberdin bizi izan ditu. 1950 eta 1980 artean biztanleriak oso hazkunde lasterra izan zuen, bikoiztu egin baitzen 30 urtetan. Jaiotza-tasa altuak eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin lotutako migrazio-mugimendu handiek bat egin zuten langile-eskari handia izaten duten industrializazio lasterreko aldien ohiko ezaugarriak izan zituen dinamismo demografiko handiko aldi hura taxutzeko. Fase horretan biztanleriaren hazkunde urbanizazioari halako moldez gainjartzen zaio, non hiri- eta industria-nodo handiak baitira hazkunde horren onura ateratzen dutenak, landa-inguruen bizkar. Ia hazkunde osoa hiru euskal hiriburuetan, Bilbo Metropolitarran batik bat, eta tamaina ertaineko industriagune gutxi batzuetan kontzentratzen da, inguru bereziki landatarragoek biztanleria laster galtzen duten aldi berean.


Ziklo hori bat-batean eteten da 80ko hamarkadaren hasieran, aurreko dinamismoa bultzatu zuten bi faktoreen krisialdiak eraginda. Industria tradizionalaren krisialdiak migrazio-fluxuak geldiarazi egiten ditu, fluxu negatibo bihurtzen dira, eta jaiotza-tasaren beherakadak markatzen duen etapa demografiko berri bati ematen dio hasiera. Biztanleriaren gutxitzea 120.000 biztanletik gorakoa izatera iristen da hurrengo 20 urteetan zehar. Izan ere, hazkunde bortitzeko egoera batetik atzerakada arin baina etengabeko batera igarotzen da ia bi hamarkadatan zehar.

Azkeneko zikloa hasi besterik ez da egin, 2001. urtean antzematen hasten baita, eta gorakada arina erakusten du, ez oso esanguratsua termino kuantitatiboetan, baina garrantzitsua uzkurdura-etaparen amaiera iragartzen bide duen heinean. Izan ere, migrazio-fluxu negatiboaren amaiera eta atzerriko immigrazioaren agerpena dira etapa berri horretako biztanleriaren dinamikaren faktore bereizgarrienak.


Hiru etapa horietariko bakoitza Euskal Autonomia Erkidegoaren zirkunstantzia desberdinak eta aldaketa sozioekonomikoak erakusten dituzten lurralde-banaketa, egitura demografiko eta ondorio kausal espezifiko eta bereiziek in lotuta dago.

70eko hamarkadaren amaieran hasi ziren migrazio-fenomenoak ugalkortasunaren murrizketa izugarriari batu zitzaizkion, eta biztanleriaren zahartze nabarmena ekarri zuten. Sektore gazteenen gutxitzea, termino absolutuetan eta ehunekoetan, eta 65 urtetik gorako hiritarren gehitzea —bizkorren hazten den adin taldea da— dira egungo euskal biztanleriaren ezaugarri estruktural nabarmenenak eta arretarik handiena eragiten dutenak. Azken etapa horrek migrazio-saldo positiboak agertzea —atzerriko biztanleak iritsi izanaren ondorioz— eta jaiotza-tasaren gorakada arina ditu bereizgarri —neurri batean ere emigrazio horrekin lotua—. Faktore horiek uzkurdura demografikoaren aldiaren amaieraren eta azken urteotako susperraldi arinaren oinarrian daude.


BIZTANLERIAREN BILAKAERA 1950-1981



BIZTANLERIAREN BILAKAERA (1981-2000)




BIZTANLERIAREN BILAKAERA (2000-2006)



Euskal Autonomia Erkidegoak azkeneko hamarkada hauetan bizi izan dituen aldaketa demografiko horien alderdi berezi bat fase horietariko bakoitzaren protagonista izan diren lurralde-esparruak denboran zehar aldatu izanean datza; hori dela-eta, espazio-aniztasun nabarmena hauteman daiteke prozesu demografikoetan.


Lurralde historikoen eskalan, Arabak bilakaera positibo etengabea erakusten du aldi horietan guztietan; Bizkaiak eta Gipuzkoak, aldiz, behea jotzen dute 1980 eta 2000 artean eta susperraldi arinari ekiten diote azken bosturtekoan. Susperraldia esanguratsuagoa da Gipuzkoan Bizkaian baino, izan ere artean ez baita 1980ko biztanleriaren mailetara iritsi.

Horrela, bada, azken bi hamarkadetan Arabak (euskal biztanleriaren % 14 biltzen du gutxi gorabehera) areagotu egin du EAE osoarekiko pisu erlatiboa, Bizkaiak (euskal biztanleriaren erdia baino gehiago) gutxitzeko eta Gipuzkoak (biztanleriaren % 32 inguru) egonkortzeko joera azaldu duten aldi berean.




Biztanleriak eremu funtzionalen arabera izan duen portaeraren analisiak hobeto adierazten du prozesu demografikoen lurralde-banaketa. Eremu jendetsuenak hiriburuei dagozkienak dira: Bilbo Metropolitarrak eta Araba Erdialdeak, hurrenez hurren, Bizkaiko eta Arabako biztanleriaren % 77,5 eta % 85 hartzen dute gutxi gorabehera 2006an eta Donostiak Gipuzkoako biztanleriaren % 57 inguru, azkeneko bost urteetan probintziako biztanleriaren parte-hartzean ehuneko 7 puntu irabazi ondoren.


Enkartazioetako eremu funtzionaleko biztanleriaren bilakaera (1950-2006)



Bilbo Metropolitarrako eremu funtzionaleko biztanleriaren bilakaera (1950-2006)



Goierriko eremu funtzionaleko biztanleriaren bilakaera (1950-2006)




EAEko 15 eremu funtzionaltariko 10ek biztanleria galtzen dute edo egonkor mantentzen dira 1981 eta 2001 bitartean. Nolabaiteko erakarpen demografikoa erakusten bide dutenatariko bi Bizkaian daude (Mungia eta Durangaldea), bi Araban (Araba Erdialdea eta Arabako Errioxa) eta bat Gipuzkoan (Urola-Kosta). Aldi horretan eremu industrializatuenak eta aurreko etapan hazkunderik trinkoena izan zutenak dira, hain zuzen, biztanleria intentsitate handienarekin galtzen dutenak: Debabarrena (% -15), Goierri (% -8) Bilbo Metropolitarra eta Debagoiena (% -6), Aiara, Toloserria eta Enkartzioak (% -4).


Azkeneko fasean, aurreko etapan bilakaera positiboa izan duten espazioek dinamismoari eusten diote, Bizkaiko eta Gipuzkoako hiriburu-eremuak hazkunde-fase horrekin bat egiten dute, espazio metropolitarrakin mugakide diren eremuetan (Arratia, Aiara, Enkartzioak, Toloserria) intentsitate txikiko hazkunde-fenomenoak agertzen dira, eta hiriburu-eremuekin lotura gutxien duten esparruetan (Debabarrena, Busturialdea-Artibai, Debagoiena) geldialdiak eta gainbeherak aurrera jarraitzen du.

Beraz, hirugarren korua metropolitarraren hazkunde-prozesu bat agertzen da, industria-pisu txikiagoa duten eta gune metropolitarrakin ongi konektatuta dauden esparruetan eragin berezia duena. Ezkerraldeko edo Pasaia Badiako industria-eremu zaharrek biztanleria galtzen jarraitzen dute. Gauza bera gertatzen da iritsi-errazak ez diren landa-inguruetan, hala nola Enkartzioetako mendebaldeko esparruetan, Urduña-Orduñan, Urdaibain, Aralar mendian, Arabako hegoaldeko inguruetan, Kanpezun eta Lantaronen esaterako, Trebiñu Konderriaren eta Kantabriar mendilerroaren arteko esparruetan, eta Ebro ibaiaren ardatzarekin okerren konektatuta dauden Arabako Errioxako udalerrietan.


Durangaldeko eremu funtzionaleko biztanleriaren bilakaera (1950-2006)




Donostia-Beterriko eremu funtzionaleko biztanleriaren bilakaera (1950-2006)




Busturialdea-Artibaiko eremu funtzionaleko biztanleriaren bilakaera (1950-2006)




Debarreneko eremu funtzionaleko biztanleriaren bilakaera (1950-2006)




Arratiako eremu funtzionaleko biztanleriaren bilakaera (1950-2006)




Arabako Errioxako eremu funtzionaleko biztanleriaren bilakaera (1950-2006)




Debagoieneko eremu funtzionaleko biztanleriaren bilakaera (1950-2006)




Aiarako eremu funtzionaleko biztanleriaren bilakaera (1950-2006)




Mungijako eremu funtzionaleko biztanleriaren bilakaera (1950-2006)




Urola-Kostako eremu funtzionaleko biztanleriaren bilakaera (1950-2006)



Araba Erdialdeko eremu funtzionaleko biztanleriaren bilakaera (1950-2006)



Toloserriko eremu funtzionaleko biztanleriaren bilakaera (1950-2006)



a.2. Jaiotza-tasa eta heriotza-tasa. Biztanleriaren hazkunde begetatiboa

a.2.1. Jaiotza-tasa

Jaiotza kopuruaren gehitzeak hazkunde benetan garrantzitsua izan zuen 1950eko hamarkadatik aurrera, eta 1960ko hamarkadaren erdialdea arte iraun zuen. Hain zuzen ere, lehen etapa demografikoko hazkunde azeleratu bereizgarriaren faktore erabakigarria izan zen. Urte horietan oso industria-garapen handia izan zen, Bizkaian eta Gipuzkoan batik bat, eta horren ondorioz, probintzia horiek Espainiako estatuko migrazioaren harreragune garrantzitsuetako bat izan ziren. Demografiari dagokionez, mugimendu horien alderdirik esanguratsuen ez zen izan lurralde historikoetarantz lekualdatu zen jendetza handia, lekualdatutako jendearen adin-egitura baizik. EAera emigratu zuten pertsonak gazteak eta helduak izan ziren, gizonetzkoak zein emakumezkoak, aldeko egoera ekonomikoarekin topo egin zutenak.

Emigrazio horren ondorio demografikoak nabarmenak izan ziren aldi horretako jaiotza kopuruan. 1960 eta 1976 artean izan ziren jaiotzak ez ziren immigrazio horren ondorio soilak izan; aitzitik, 'baby boom' izeneko fenomenoaren parte izan ziren, eztei kopuruaren eta ugalkortasunaren egituran eta intentsitatean aldaketa garrantzitsuak ekarri zituen etapa, fenomeno horien adinak nabarmen aurreratu ziren-eta.


Jaiotza-tasa gordinak nabarmen egin zuen gora eta goranzko jarraibide horri eutsi zion 60ko hamarkadaren erdialdea arte. Une horretan, adierazitako baby booma gorabehera, jaiotzen eta biztanleria osoaren arteko erlazioa jaisten hasi zen.

Hazkunde begetatiboaren esparruan, uzkurdura demografikoaren zikloa 1976ra aurreratu zen, urte horretan izan baitzen jaiotza kopuru handiena, eta hortik aurrera behera egiten hasi zen, XX. mendearen amaiera arte gelditu gabe. XX. mendearen azkeneko laurdenean jaiotakoen kopurua gutxituz joan zen 1995. urtea arte, 15.300eko kopurura iritsiz, mende hasieran baino dezente gutxiago, nahiz eta biztanleriak nabarmen gora egin.

Ugaltze-adineko (14-49 urte) emakumeen kopurua aldi horretan ia bikoiztera iritsi bazen ere (1975ean 278.000 ziren eta 1995ean 555.000), jaiotza kopuruak nabarmen egin zuten behera azken 25 urte horietan. Izan ere, jaiotzak aurreko urteetan kontzentratu izanak eta eztei kopuruan eta jaiotza-tasan gertatu zen aldaketa estrukturalak (egutegia atzeratzea), 1980ko hamarkadatik aurrera batik bat, 1976tik 1995era bitarteko aldian EAEn jaiotza kopuruak nabarmen behera egitea ekarri zuten. 1976. urteko maximotik, jaiotza-tasa 1.000 biztanleko 19,91 jaiotzakoa izan baitzen, estatuko batez bestekoa baino handiagoa eta Europako handienetakoa, bat-bateko beherakada etengabea gertatzen da, 1994. urtean minimora iristen dena, 1.000 biztanleko 7,31 jaiotza besterik ez baitzen izan. Kopuru horrek adierazten du hogeai urte baino gutxiagotan % 67ko murrizketa izan zela eta, hain zuzen, Europako eta mundu osoko jaiotza-tasarik txikieneko lurraldeen artean kokatzen du EAE. Ugalkortasunari dagozkion zifrak adierazgarriak dira ildo horretan, zeren adierazitako aldian, 1975ean ugaltze-adineko 1.000 emakumeko 80,55 seme-alaba izatetik 1994an ugaltze-adineko 1.000 emakumeko 27,3 seme-alaba izatera igarotzen baita. Datu horrek argi adierazten du zein urrun zegoen ugaltze-jarraibidea belaunaldiak ordezkatzeko maila minimoetatik.

Hori ez zen EAEn soilik gertatu zen fenomeno, Europako eta mendebaldeko gainerako herrialdeen testuinguruan kokatu baitzen. Halere, Euskal

Autonomia Erkidegoan izan zen beherakadaren erritmoa eta intentsitatea beste edozein herrialdetan baino nabarmenagoa izan zen; horrexegatik izan zen ugalkortasunik txikieneko Europako eskualdeetako bat.



Jaiotza-tasa
(jaiotza/1.000 biztanle)



Iturria: INE, 2005

Jaiotza-tasaren beherakada hori berdin gertatu zen hiru lurralde historikoetan. Araban lehentxeago hasi zen prozesua, Bizkaian eta Gipuzkoan bi urte geroago, 1977. urtean hasi zen jaiotza-tasa behera egiten. Susperraldia ere Araban hasten da 1994. urtean eta beste bi lurraldeetan dinamika positiboa beranduago agertzen da: Gipuzkoan 1995ean eta Bizkaian 1996an. Araba jaiotza-tasa handiagoetatik abiatzen zen (1.000 biztanleko 21,3 jaiotza 1975ean) beste bi lurraldeak baino (1.000 biztanleko 19,39 eta 19,92 jaiotza Gipuzkoan eta Bizkaian, hurrenez hurren) eta bere maila minimoan 1.000 biztanleko 7,34 jaiotza izatera iritsi zen. Beherakada nabarmenena Bizkaian izan zen, 1.000 biztanleko 6,64 jaiotza izatera iritsi zen, eta Gipuzkoa, berriz, jaiotza-tasaren beherakada txikiena izan zuen lurraldea, minimoa 1.000 biztanleko 7,83 jaiotzakoa izatera iritsi zen-eta.

90eko hamarkadaren erdialdetik aurrera jaiotza-tasaren beste hazkunde-etapa bat hasten da, dagoeneko hamarkada bat dirauen dinamismo jarraituko zikloa erakusten duena. 2006. urtean EAEko jaiotza-tasa 1.000 biztanleko 9,56 jaiotzara iritsi zen. Horrek esan nahi du 1985. urteko mailak berreskuratu zituela eta % 30eko hazkundeak izan zela 1994. urteko minimoen aldean. EAEn jaiotakoak 1995ean 15.000 inguru izatetik 2001ean 17.700dik gora eta 2006an 20.000tik gora izatera igarotzen dira. Etapa berri horretan, ugalkortasunaren gehitzea batez besteko amatasun-adinaren igoerarekin batera dator. Izan ere, susperraldia batez ere 30 urtetik gorako biztanleei esker gertatzen da, beren ugaltze-egutegiaren atzerapenaren ondorioz artean guraso ez ziren gizon-emakumeei esker, alegia. Jaiotza-tasak baxuak dira oraindik ere, baina aurrekoak ez bezala, ez dira minimoak. Gaur egun Europar Batasuneko batez besteko mailetan kokatzen dira, eta zabalkundeko herrialdeetakoak, penintsulako gainerako kantauriar eskualdeetakoak eta Italiako eta Alemaniako ia eskualde guztietakoak baino altuagoak dira.

Etapa berri horretan Gipuzkoa izan da lurralderik dinamikoena, 1.000 biztanleko 10,34 jaiotzara iritsi baita 2006an, Arabako 9,67 eta Bizkaiko 9,06 jaiotzen aldean. Eredu funtzionalerik dagokienez, Toloserriko eremuak du dinamismorik handiena (1.000 biztanleko 11,71 jaiotza 2005ean), Mungia da bigarrena (1.000 biztanleko 11,37 jaiotza) eta Urola-Kosta hurrengoa (1.000 biztanleko 11,12 jaiotza). Goierri eta Donostia-Beterriko eremu funtzionala, Irun-Hondarribia esparruan batik bat, Araba Erdialdea, Durangaldea, Enkartzioak eta Arratia ere EAEko batez bestekoa baino jaiotza-tasa altuagoak dituzten hazkunde-esparruak dira. Aitzitik, Bilbo Metropolitarrak, Debagoienak, Debabarrena, Busturialdea-Artibai, Aiara eta Arabako Errioxa bezalako eremuek jaiotza-tasa baxuak dituzte oraindik ere, 1.000 biztanleko 8 jaiotza ingurukoak. Arabako inguru arras landatar batzuek, hala nola Arabako Mendialdeak, Aiaraldeak edo Haranek tasa txikiagoak dituzte: 1.000 biztanleko 5 jaiotza inguruko kopuruetara iristen dira.

Landa-inguruak dira, hain zuzen ere, azkeneko hamarkada honetan jaiotza-tasaren hazkunde erlatiborik handiena izan dutenak. Enkartzioek, Arabako Haranek, Arratiak edo Busturialdea-Artibaik jaiotza-tasaren % 50 eta % 100 bitarteko hazkundeak dituzte aldi horretan, nahiz eta gehikuntza txikiak izan termino absolutuetan, beren pisu demografiko urria eta abiapuntuko egoera andeatua kontuan hartuta. Nolanahi ere, jaiotza-tasaren bilakaerak joera argi eta garbi positiboa erakusten du gaur egun lurralde osoan eta haren hazkundearen banaketa espaziala koherentea da beste fenomeno batzuekin, hala nola: gehikuntza demografikoak eta biztanle gazteen pisu handiagoa espazio metropolitarraren bazterreko esparruetan, dinamismo berria gainbeheran egon ohi diren landa-inguruetan, eta hiri-espazio nagusien erdialdeko zonetako eta EAEko hirigune handiekin okerren konektatuta dauden industrializazio tradizional handiko eremuetako geldialdia.

Aurrerago adieraziko dugun moduan, atzerriko biztanleen gero eta presentzia handiagoak ekarpen positiboa egiten dio jaiotza-tasaren hazkunde-prozesu honi. Oraindik ere fenomeno kuantitatiboki txikia bada ere (atzerritarrak EAEko jaiotzen % 7,8 dira gutxi gorabehera), pisu esanguratsua du biztanleria hori lehentasunez kontzentratzen den esparruetan, hala nola hiru hiriburuetakako espazio zentraletan, non jaiotza-tasaren dinamismoaren zati handi bat biztanleria horrek sostengatzen baitu.

a.2.2. Heriotza-tasa eta bizi-itxaropena

Heriotza-tasa etengabe jaitsi da XX. mende osoan zehar. Beherakada oso bizkorra izan da 60ko hamarkadaren erdialdea arte eta hor mantsotu egiten da, 1979an % 6,5eko minimora iritsi arte. 1980an heriotza-tasak joera aldatu zuen eta heriotza-tasaren mailak gora egiten hasi ziren, gaur egun 1960ko hamarkadaren hasierako kopuruen antzekoetara iritsi arte (% 9 heriotza inguru).

Datu horiek bizi-itxaropena etengabe igo izanaren ondorio dira batik bat. Izan ere, 1981ean 74,91 urtekoa zen eta 2005ean 80,75 urtera igo da, 84,26 urtekoa izanik emakumeentzat eta 77,2 urtekoa gizonezkoentzat. Bizi-itxaropena, beraz, Europar Batasuneko gainerako herrialdeetako baino handiagoa da eta Espainiako autonomia-erkidego batzuek besterik ez dute gainditzen.

Hartara, heriotza-tasaren igoera adin handieneko biztanleriaren pisuarekin erlazionatuta dago. Biztanleria zahartuena duten eta biztanleria gaztearen zati gutxien jasotzen duten esparruak dira heriotza-tasarik handienak dituztenak. Hala, EAEko ingururik landatarrenek, hala nola Arabako Mendialdeak, Arabako Errioxak, Enkartzioek, Busturialdea-Artibaik eta Arratiak % 10etik gorako heriotza-tasak dituzte (% 14tik gorakoa Arabako

Mendialdearen kasuan), baita hiritarrak izan arren egitura demografikoa oso andeatuta duten inguru batzuek ere, Debagoieneko eta Debabarreneko eremuek esaterako. Aitzitik, biztanle gazte gehien dituzten eta egoiliar berrien ekarpenak jasotzen ari diren eremuetako heriotza-tasak EAEko batez bestekoa baino txikiagoak dira. Egoera horretan daude Arabako Erdialdearen zatirik handiena, Mungia, Donostia-Beterriko ingurua eta Urola-Kosta eta, neurri txikiagoan, Durangaldea, Toloserria eta Goierri.

a.2.3. Hazkunde begetatiboa

Jaiotza-tasa gutxitzearen eta heriotza-tasa gehitzearen konbinazioak transformazio sakona eragin du EAEko hazkunde begetatiboaren jarraibideetan. Joan den mendeko 50eko eta 60ko hamarkadetan hazkunde garrantzitsua izan ondoren, 1976. urtean maximoa lortzen da, 1.000 biztanleko 13,1eko hazkunde naturalarekin. Une horretatik aurrera aldagai horrek behera egiten du bat-batean, lehenengo eta behin jaiotza-tasaren beherakadaren ondorioz eta, bigarren etapa batean, heriotza-tasaren igoerak eraginda. Horren emaitza, beherakada handi baten ondoren saldo negatiboak agertzen dira 1991. urtean eta egoera hori 2002. urtea arte luzatzen da, 1995. urtean minimora iritsiz, 1.000 biztanleko -1,95 pertsonako saldo negatiboarekin. Jaiotza-tasaren kasuan bezalaxe, Arabak aurrea hartu zion joerari, eta bere hazkunde begetatiboa 1975. urtean iritsi zen maximora; une horretatik aurrera etengabe egin zuen behera, 1995. urtean % 0,12ko minimora iritsi arte, 90eko hamarkadaren erdialdeko urteetan hazkunde begetatibo ia nulua izan ondoren. Alabaina, beste bi lurraldeetan ez bezala, Arabako saldo begetatiboa ez zen ezein unetan negatiboa izatera iritsi, hazkunde geldia baina etengabea izan zuen azkeneko hamarkadan zehar, 2006. urtean % 2,21eko saldo positiboa lortu arte. Bizkaian eta Gipuzkoan 1976. urtean lortu zen maximoa, % 13,01eko eta % 13ko saldo positiboekin, hurrenez hurren. Saldo maximo handiagoak

izan arren, portaera Arabakoa baino erregresiboagoa izan da. Bi lurraldeek hazkunde begetatibo negatiboak izan zituzten. Gipuzkoan 1991tik 1999 arte izan dira eta Bizkaian saldo negatiboak 1990ean hasi ziren eta 2006. urtea arte iraun dute. Bizkaiko jaiotza-tasa txikiagoek eta heriotza-tasa handiagoek argitzen dute zergatik izan duen lurraldeak hain portaera diferentzial negatiboak. Horien esplikazio nagusia biztanleriaren sektore gazteak selektiboki eraginpean hartu dituzten emigrazio-prozesuek lurralde horretan, Ezkerraldeko udalerrri handietan batik bat, izan duten intentsitatean datza, horrek murriztu egin baitu heriotzen eta jaiotzen arteko aldea aldatzeko ahalmena.


Eremu funtzionalen eskalan, hazkunde begetatiboaren eta biztanleriaren zahartze-tasaren artean dagoen zuzeneko erlazioa hautematen da, heriotza-tasa gehitu eta jaiotza-tasa gutxitzen duena hain zuzen. Hala, azkeneko hamarkadan hazkunde begetatiboko tasa negatiboak etengabe mantendu dituzten eremuak agertzen dira, Bizkaian batik bat, hala nola Bilbo Metropolitarran, Enkartzioetan, Arratian eta Busturialdea-Artibain, Arabako esparru landatarrenetan edo industria-egitura eboluzionatua ez dutenetan, hala nola Aiaran eta Arabako Errioxan, edo Araba Erdialdeko, Arabako Mendialdeko eta Arabako Haranetako inguru landatarrenetan. Aitzitik, ia Gipuzkoa osoan eta Bizkaiko esparru demografikoki dinamikoetan 2000. urtetik aurrera hazkunde begetatibo positiboak finkatzen dira Durangaldean, Donostia-Beterrin, Toloserrian, Goierri eta, oso balio txikiekin bada ere, Debagoienan eta Debarrenan ere.

Eremu eta esparru batzuek ez dute hazkunde negatiborik izan ezerein unetan. Hori gertatu da Araba Erdialdeko Lautadako inguruetan, Mungian, Urola-Kostan eta Debarrenan eta Donostiako eremuan. Gasteiz izan da azkeneko hamarkadan EAE osoan hazkunde begetatiborik handiena izan duen udalerrria, 3.000 pertsonako gehikuntza absolutua izan du-eta.

Hazkunde horren ia bi heren azkeneko bost urteetan gertatu dira. Aitzitik, Bilbon hazkunde begetatiboa negatiboa da, 8.348 pertsonako galera absolutuarekin 1996tik 2006 arte, eta Donostian saldo begetatibo negatiboaren ondoriozko biztanleriaren gutxitzea 2.161 pertsonakoa da aldi horretan. Ezkerraldeko eta Pasaiako badiako udalerrriak, Eibar, Arrasate eta Bergara bezalako buruak edo Karrantza Harana bezalako landaguneak dira aldi horretan galera handienak izan dituztenak. Aitzitik, periferia metropolitarrak Irun, Getxo, Hernani eta Urnieta bezalako udalerrriak eta Durango, Zarautz eta Azpeitia bezalako buruak dira termino absolutuetan hazkunde garrantzitsuenak izan dituztenak.

Saldo begetatiboa 1.000 biztanleko

1975. urtea, 100 indizea



a.3. Zahartze demografikoa

EAEko egitura demografikoaren gero eta zahartze handiagoa da azken urteetan biztanleriaren alorrean agertzen ari den fenomeno deigarriena eta arreta handiena erakartzen ari dena.

1981. urteaz geroztik guztizko biztanleriak aldaketa handirik izan ez badu ere, ezin esan daiteke gauza bera bere egiturari eta adin taldeen araberrako kuantifikazioari buruz. 16 urtetik beherako biztanleria erdira murriztu da azken urteetan, 1981. urtean 549.647 gazte izatetik (biztanleriaren % 25,6) 2006. urtean 279.603 izatera igaroz (guztizkoaren % 13), eta 65 urtetik gorako biztanleria, aldiz, bikoiztu egin da ia (1981. urtean % 9,2 izatetik 2006. urtean % 18,0 izatera).

Biztanleriaren batez besteko adina bizkor igotzeak, biztanleria gaztea benetan urria izateak eta biztanleriaren piramidea alderantzikatzeko zorian egon daitekeela erakusten digun prozesuak fenomeno hori elementu nagusi bihurtzen dute EAEn etorkizunerako funtsezko hiru norabidetan, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak adierazten duen bezalaxe:

—Bizitza luzeagoa, bizi-egoera berria: erretiroa bizitzaren hirugarren fase gisa, hainbat alderdi planteatzen dituena: pertsona adinduek familian eta gizartean betetzen duten eginkizuna, boluntariora edo GKE moduan parte hartzea, eta beren gisara bizi ahal izateko behar dituzten zainketak. Adin aktiboaz ari gara, zahartze aktiboaz.

—Zahartzearen inpaktu soziopolitikoa: hemen ongizate-estadia mantentzea eta finantza publikoak sostengatzea planteatzen da, bereziki aztertuz zahartze bidean dagoen gizarte baten finantzaketa eta kargen banaketa,

finantza-kargena batik bat, alde batetik belaunaldien artean eta, bestetik, aktiboen/erretiratuen artean, adin-segmentu desberdinen artean eta sarrera edo irabazi mota desberdinen artean.

—Bi fenomenoetan mundu osoan hedatzen den hirugarren bat biltzen da, hots, jarduera ekonomikoaren transformazioa, esparru-baldintza aldakorrei aurre egin behar dien sistema ekonomiko eta sozialaren ahalmen berritzailearekin hertsiki erlazionatutako jarrera lehiakorra mantentzeko gai izateko erronka bihurtzen dena.

—Ugalkortasunaren beherakadak, Europako beste herrialde batzuetan baino nabarmen eta luzeagoa, migrazio-fluxuak alderantzizkatzeak — biztanleak EAEtik irteteko faserik zorrotzenez biztanle-geruza gazteak selektiboki hartu ditu eraginpean— eta bizi-itzaropenaren igoerak zahartze demografikoa faktore kritikotzat duen agertokia definitu dute.

Azkeneko 40 urteetan, bizi-itzaropena 11,6 urte igo da gizonezkoentzat eta 12,8 urte emakumeentzat. 2005ean lortutako emaitzaren arabera, gizonezkoen bizi-itzaropena 77,2 urtekoa da eta emakumeena 84,3 urtekoa. Kopuru horiek EAE leku abantailatsuan kokatzen dute herrialde garatu gehienen aldean, emakumeen kasuan batik bat, eta zahartzea emakumeei lotuta dagoen fenomeno nabarmena dela erakusten dute.

Bestalde, adierazi beharra dago zahartzeari buruzko planteamenduetariko asko balio eztabaidagarria duten proiektzio demografikoetan oinarritzen direla. EAEko azkeneko mende erdiko errealitate demografikoak erakusten du batik-bateko eta ustekabeko aldaketen mende dauden fenomenoaren epe luzearako aurreikuspenak ez direla oso fidagarriak. Gaur egun ezin dugu jakin migrazio-fluxuek edo ugalkortasunak etorkizunean zein bilakaera izango duten, eta edozein prospektiba egiteko funtsezko datuak dira.

Lurralde-ikuspuntutik begiratuta, zahartzea neurri handi batean faktore demografikoen multzoaren bilakaera negatiboari lotuta dagoen fenomeno da. Biztanleria-galerak neurri handienez jasan dituzten eta migrazio-fluxu negatiboak dituzten espazioak dira adin-egitura andeatuena erakusten dutenak. Horiek horrela, lurralde historikoei dagokienez Arabaren kasua da positiboena, 65 urtetik gorako ehunekoa EAEko batez bestekoa baino ia bi puntu txikiagoa da-eta. Gipuzkoako kasuan, zahartze-tasa % 18tik gorakoa izan arren, ezaugarri positibo bat ere agertzen da, hots, gaztetasun-tasa handixeagoa, 16 urtetik beherakoak ia % 14 baitira, lurralde horretan azkeneko bosturtekoan hautematen den ugalkortasunaren igoeraren emaitza. Bizkaiari dagozkio datu okerrenak, bai adinduen pisu handiagatik, bai gazteen presentzia urriagatik.


Egitura demografikoaren andeatzea, Europa osoan gertatzen den modura, fenomeno bereziki landatarra da. EAEko inguru landatartuenetako (Arabako Mendialdea, Busturialdea-Artibai, Enkartzioak, Arabako Errioxa) udalerririk txikiak dira zahartze-indize handiena —% 25etik gorakoa kasu gehienetan— eta biztanle gazteen presentziarik txikiena —% 12tik beherakoa— duten esparruak. Biztanleria gaztea duela zenbait hamarkada, urbanizazio-prozesuaren lehen etapetan galdu zuten lurraldeen berezko fenomeno da, harrezkero ez baitute beren joerak aldatzeko moduko biztanle-fluxurik jaso.

Are esanguratsuagoa da industria handiaren etaparen protagonista izan ziren hirigune nagusietan biztanleria adindunak duen pisu handia. Bilbon eta bere inguruko udalerririk handietan (Portugalete, Barakaldo, Sestao...), Arrasaten, Bergaran, Laudion eta Tolosan 65 urtetik gorakoak % 20 inguru dira, eta Eibarren % 23. Aitzitik, zahartze-maila txikiagoa duten espazioak bizitokia periferia berrietan bilatu duen biztanleria gaztea hartu duten hedapen metropolitarrerako esparru berriei dagozkie. Hondarribia, Zarautz eta


Usurbil, Donostia inguruan, Leioa, Mungia, Igorre, Sopela eta Arrigorriaga, Bilbo inguruan, edo Iruña Oka, Zigoitia edo Dulantzi, Gasteiz inguruan, adinduen % 15etik beherako ehunekoak dituzten espazioak dira.

Antzeko jarraibidea ikus daiteke biztanle gazteen presentziari dagokionez. Esparru andeatuenak inguru landatarrenei eta hiritarrenei dagozkie: Bilbon, Eibarren, Arrasaten eta Barakaldon 16 urtetik gorakoak % 12 baino gutxiago dira eta periferia berrietan (Mungia, Gorniz, Dulantzi, Burgelu...), aldiz, % 17 baino gehiago. Alabaina, biztanleria gaztearen mailarik handienak bi esparru arras desberdinetan agertzen dira. Alde batetik, Arabako Errioxako udalerririk askotan (Oion, Bastida, Navaridas, Kripan), hein batean Logroñotik eta Gasteiztik etorritako biztanleria bertan ezarri izanaren ondorioz eta, batez ere, azken urteetan jasotako atzerritar emigranteen ehunekoak eraginda. Beste esparru gaztetuena Gipuzkoako inguru ekialdekoenak dagozkie, Donostia inguruan eta Toloserriko eremu funtzionalean kokatuta daudenei, eta azken urteetan jaiotza-tasak gora egin izanari zor zaio gaztetze hori.

ZAHARTZE TASA




GAZTETASUN TASA



a.4. Familia-egitura berriak

Biztanleriaren bilakaera adin-tarteen arabera (1981-2006)



Biztanleriaren zahartzea, emigrazioaren profil berriak eta ugalkortasunean izandako aldaketak bezalako prozesuak ezin dira bereizi azken hamarkadetan gero eta intentsitate handiagoarekin eman den familia-egiturak aldatzeko prozesu sakonagotik.

Izan ere, familiak osatzeko eta mantentzeko prozesuetan, jenero-harremanen transformazioaren ondorio diren aldaketak oso nabarmenak izan dira lanaren —gero eta emakume gehiago sartzten dira lan-merkatuan— eta prestakuntzaren esparruetan —emakumeen heziketa-mailak izugarri egin du gora—. Egoera horretan, eta gure herrialdeko ongizate-estatuaren garapen-maila kontuan harturik, familia horiek

erabiltzen dituzten estrategietako bat etxeko lana kanpora ateratzea da, hartara laneko bizitza eta familiakoa uztartu ahal izateko. Horiek horrela, atzerriko langileak kontratatzeke joera gero eta handiagoa da, eta, zirkunstantziak ikusirik, gero eta handiagoa izaten jarraituko duela pentsa daiteke.

Gaur egun, aldaketa-prozesu estrukturalak familiaren errealtatea asaldatzen ari dira. Beste zenbait aldaketa-faktoreen artean esanguratsuenak laburbilduko ditugu:

- 1) Familia nuklearra finkatzea. Familia zabaletik ezkontza-familiarako —aitak, amak eta horien mendeko seme-alabek osatua— trantsizioa bururatu da.
- 2) Ugalkortasun txikia izateko asmoa. Gehienek bi haur, normalean seme eta alaba bana, izan nahi dute.
- 3) Familiaren tamaina murriztea. Lau kideko familia da —aita eta ama eta pare bat seme-alaba— eredu gisako familia.
- 4) Ezkontideen arteko berdintasunerako joera, baina ez soilik etxeko lanen banaketan, hori baita sarrien aipatzen dena, beste alderdi garrantzitsuago batzuk ezkutuan utziz, hala nola bikote-harremanetan boterea eta agintea banatzea, erantzukizun edo ardurak bien artean hartzea eta bete-beteko garapen pertsonal eta sozial autonomorako aukera-berdintasuna izatea.
- 5) Ezkonbizitza luzatzea. Bizi-itxaropenak gora egin izanaren ondorioz, gero eta bikote gehiago dira ezkondu 50 urte baino gehiago ematen dituztenak.

6) Ezkontza-hausteen gehikuntza: etxea bertan behera uzteak, banantzeak eta dibortzioak.

7) Seme-alaben emantzipazio berantiarra, hala bizikidetzaren planoan nola baliabide propioak izateak ematen duen askatasun ekonomikoari dagokionean.

8) Ezkontzeko eta bikote-bizimodua egiteko proiektuak gauzatzeko adina atzeratzea.

9) Zelibatarismoaren gorakada: igo egin da adin jakin batera iritsita bikote egonkorrik osatzera iristen ez diren pertsonen proportzioa.

10) Bikote antzuen gorakada, espresuki hala aukeratu dutelako, edota ugalkortasun-arazoak dituztelako.

11) Seme-alaben neolokazioa. Fenomeno orokortua, zeren ezkontzeak edo bikotea osatzeak gurasoenaz bestelako etxebizitza bilatu beharra baitakar. Batzuetan hurbil egoten da baina beste askotan beste herri batean egon daiteke, eta are beste herrialde batean ere.

12) Adindu mendekoen gorakada. Gero eta gehiago dira beren gisara bizitzen jarraitzeko behar adinako autonomia ez duten eta, horrenbestez, beste batzuek gainbegiratzea, zaintzea edo artatzea behar duten adinekoak.

13) Pertsona bakarreko familien gorakada, aldi baterako zein behin betiko bizimodu-proiektu gisa.

14) Bikote-bizimodua hasteko modu berrien instituzionalizazioa eta bikote mota berrien legitimazio soziala, xede desberdinekin, konpromiso-maila desberdinekin, lotura ofizializatzeko modu desberdinekin eta osaera desberdinarekin.

EAEEn familia motek eta bizikidetzaren errealitateek, osaeraren arabera, guztira 683.286 familia aintzat hartuta, honako banaketa tipologiko hau eskaintzen zuten:

- Nuklearrak, seme-alabekin, 351.764 familia (% 51,48).
- Nuklearrak, seme-alabarik gabe, 115.096 familia (% 16,98).
- Guraso bakarrekoak (ama), 61.304 familia (% 8,97).
- Guraso bakarrekoak (aita), 12.184 familia (% 1,78).
- Polinuklearrak, 18.155 familia (% 2,66).
- Konposatuak, 19.628 familia (% 2,87).
- Pertsona bakarrekoak, 105.155 familia (% 15,39).

Pertsona bakarreko familien presentzia gero eta handiagoa eta seme-alabarik gabeko familia nuklearren gutxitzea erakusten duen bilakaera horren emaitzarik esanguratsuenetakoa familiaren batez besteko tamaina etengabe txikitzea da.

Datuek erakusten dutenez, familiaren batez besteko tamainak orokorrean egin du behera EAE osoan, 1991. urtean 3,3koa baitzen eta 2008. urtean 2,74koa. Hamar urtean % 16,97 murriztu da beraz. Prozesu hori lurralde-esparru guztietan gertatzen da, eta homogeneousazio-prozesu bat hautematen da, izan ere 1991. urtean tamainarik handiena zuten esparruak (batez ere Gipuzkoako industria-zonak, Tolosa, Eibar, Beasain-Zumarraga, Arrasate edo Zarautz-Azpeitia inguruak, eta Bizkaiko antzeko espazioak, Durango esate baterako) baitira murrizketarik handiena izan dutenak: % 23

Zarautzen eta Tolosan, % 22 Eibarren, % 20 Beasainen, % 19 Arrasaten eta % 17 Durangon.

a.5. Biztanleriaren barne-lekualdatzeak

1950eko hamarkadatik 1970eko hamarkadaren amaiera arteko aldian migrazio-saldoak positiboak izan ziren hiru euskal probintzietan, urte horietan jende asko hartu baitzuten. Zifrarik altuenak Bizkaian izan ziren, 1961-1970 hamarkadan (migrazio-boladaren maximoa) 200.000 immigratu inguruko saldoa gainditzera iritsi baitzen. Zifra positibo handiek (33.000 baino gehiago) 1971-1975 aldia arte iraun zuten, eta data horretatik aurrera aldatu egin zen migrazio-saldoen zeinua. Gipuzkoan ere jarraibide horiek berak errepikatu ziren, baina migrazio-saldo handien unea lehentxeago iritsi zen: 1951 eta 1965 bitartean. Azkeneko urte horretatik aurrera ere zifrak handiak izan ziren 70eko hamarkadaren erdialdea arte, baina beheranzko bidea hartu zuten. Araban ere migrazio-saldoak positiboak eta handi samarrak izan ziren, baina ez Bizkaikoen eta Gipuzkoakoen aldi berean. Migrazio-saldo handi eta positiboen aldia 1960ko hamarkadatik aurrera hasi zen (saldoak 25.000 eta 35.000 pertsona bitartekoak izan ziren, iturrien arabera). Beste bi lurraldeetan ez bezala, Araban saldoak goian mantendu ziren hurrengo hamarkadan: 16.500 pertsona ingurukoak izan ziren. Migrazio-saldoen zifra positibo eta hain handi horiek mendearen hasieran hasi eta gerraondotik aurrera, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan eta beranduxeago Araban, bilbatu zen industria-garapenari dagozkio. Bizkaian eta Gipuzkoan industrializazio-prozesua geldia eta progresiboa izan zen, XIX. mendearen amaieran hasi eta 1980ko hamarkada arte bilakatuz joan baitzen. Probintzia horiek industria astunean espezializatu ziren, ahalmen handiko siderurgia-sarearekin, eta horrek espazio-dimentsio handiak ez ezik langile kopuru handiak ere eskatzen zituen (Bizkaian batik bat). Horren ondorioz, erakargune bihurtu ziren Espainiako estatuko gainerako

lurraldeetatik zetozen langileentzat. Araban oso bestelakoa izan zen egoera: industrializazio-prozesua bat-batekoa eta berantiarra izan zen beste bi lurraldekoen aldean. Abiada ikusgarria 70eko hamarkadatik aurrera hasi zen, industriarako eta bizitegirako lurzoru-eskaintzari esker. Industrializazio-prozesu hori finkatu izanari esker, 70eko hamarkadan Espainia osoko hazkunde industrial eta demografiko handiena izan zuen probintzia izan zen.

Hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdetik aurrera migrazio-saldoak atzera egiten hasi ziren. 1976an eta 1977an, Gipuzkoako eta Bizkaiko migrazio-saldoak, hurrenez hurren, negatiboak izan ziren lehen aldiz gerra zibilaz geroztik. Emigranteen eta immigranteen arteko erlazioa lehenengoan aldekoa izan zuten urteak, 5.000 eta 15.000 pertsonara iristen ziren saldo negatiboekin, hurrenez hurren, 1978, 1979 eta 1980 izan ziren. Urte horretatik aurrera, emigrazioak (nabarmen igo ziren urte horietan) pixka bat jaitsi ziren eta immigrazioek zertxobait egin zuten gora. Horren ondorioz, migrazio-saldoa aldi osoan zehar negatiboa izan bazen ere, pixkanaka gora egiten hasi zen eta zerorantz hurbilduz joan zen. Arabaren kasua oso bestelakoa izan zen. Saldoek zeinu positiboari eutsi zioten aldi osoan zehar, nahiz eta 1980. urtetik aurrera zifrak aurreko urteetan baino nabarmenki baxuagoak izan ziren. 1999. urtean besterik ez zen zeinua aldatu, eta emigranteak immigranteak baino gehiago izan ziren.

Oro har, saldo positiboen beherakada krisialdi ekonomikoaren parean gertatu zen, areagotu egin baitzen hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdetik aurrera. Izan ere, Bizkaia eta Gipuzkoaren industria-sektorearekiko mendetasunaren ondorioz (probintzia horietako ekonomiaren oinarritzko eragilea), siderurgiaren krisialdia larriagoa izan zen lurralde horietan Araban baino. Horren adierazgarri dira urte horietako langabeziari dagozkion zifrak: Bizkaian eta Gipuzkoan langabezia % 14 eta


% 21 bitartekoa zen 1980 eta 1982 artean; Arabako langabeziarik handiena, aldiz, doi-doi iristen zen % 14ra kasurik okerreanean.

Migrazio-mugimendu horiek euskal biztanleriaren egituraren osaeraren gainean izan zezaketen eraginari buruzko estimazioek aditzera ematen dutenez, 1950 eta 1975 artean hazkunde osoaren % 53 migrazio-saldoen zuzeneko eraginari egotz dakioke (gainerako % 47a hazkunde naturalari). Nagusiki lan egiteko adina zuen jendea zen, Espainiako beste erkidego batzuetatik zetorrena, aldeko egoera ekonomikoak erakarrita, bizilekua eta lanlekua bertan ezartzeko asmoz. 1977. urtetik aurrera migrazioen saldoa aldatzen hasi zenean, EAE lan egiteko eta bizitzeko helmugatzat zuen jende kopurua jaisten hasi zen eta, horren ondorioz, gutxitu egin zen lan egiteko adina zuen biztanleria. Horrek eragin nabarmena izan zuen biztanleriaren egituraren gainean, euskal gizarteak "egitura demografikoa gaztetzeko modu bat galdu baitzuen".


EAE uzten duen jendearen fluxuari dagokionez, benetan esanguratsua da erkidegoa uzten duen jende gehienak "dinamismo sozioekonomiko handiagoko guneak edo lan-eskaintzen aukera zabalagoak dituztenak" bilatzen duen "heziketa eta/edo lanbide maila handiko giza kapitaleko" taldea osatzea. Beraz, ezin esan daiteke 60ko hamarkada aldera EAERA iritsi ziren emigranteak orain erretiratuta 'etxera bueltatzeko' joera hutsa denik. Aitzitik, batez ere beste faktore batzuk dira (biztanleria aktiboaren eta enpleguaren arteko desoreka edo industria-fabrikak ixtea) adin ertaineko biztanleak duela urte batzuk bereizgarri izan zuen erakartze-indarra galdu duen lurraldea uztera bultzatzen dituztenak.

90eko hamarkadaren erdialdetik aurrera fluxuak alderantzikatzen hasten dira, baina orain modu desberdinean, atzerriko langileen etorriari lotuta — iparrafrikarrak eta hegoamerikarrak gehienak—. 1996. urteaz geroztik

eremu funtzional guztiek kanpoaldearekiko migrazio-saldo positiboak dituzte, nahiz eta alde nabarmenak dauden batetik bestera fluxuen magnitudeari dagokionez. Hiri handiak dira biztanle berri horietako gehienak gero eta maila trinkoagoetan erakartzen dituztenak. Hala, 1996-2006 hamarkadan Bilbo Metropolitarraren EAERen kanpoaldearekiko migrazio-saldoa +13.984 pertsonakoa izan bazen, 2000-2006 aldian saldo positibo hori 22.216 pertsonakoa izan zen, sarrerako fluxuak gehitu eta irteerakoak gutxitu izanaren ondorioz. Araba Erdialdea, Gasteiz batik bat, eta Bilbo Metropolitarra dira emigrazio horren helmuga nagusiak, eta 15.000 eta 22.000 pertsona inguruko saldo positiboak dituzte, hurrenez hurren. Durangaldeak, Donostia-Beterrik, Urola-Kostak, Mungiak, Goierrik eta Busturialdea-Artibaik 2.000 pertsona inguruko saldo positiboak dituzte. Toloserrian, Arabako Errioxan eta Debagoienan 1.000 pertsona inguruko saldo positiboak agertzen dira. Enkartzioak, Arratia eta Debabarrena 800 pertsona inguruko saldoetan kokatzen dira eta Aiarak 500 ingurukoa du. Biztanleriaren etorri horren garrantzia erabakigarria da EAERen azken urteetako portaera demografikoan. 2000-2006 aldian EAERen hazkunde begetatibo globala negatiboa izan zen artean, 1.380 pertsonako galera izan baitzuen. Horren parean, kanpoaldearekiko migrazio-saldoak 58.873 pertsonako zifra global positiboa erakutsi zuen. Beraz, urte horietan izandako hazkunde demografiko osoa erabat egotz dakioke kanpo-emigrazioari.



Migrazio-saldoa (1996-2006)



Iturria: INE, 2006

Barne-migrazioak eta biztanleriaren mugimendua

Kanpo-migrazioekin eta hazkunde begetatiboaren jarraibide-aldaketekin batera, biztanleriaren barne-mugimendua dira EAEko demografia berria taxutzen ari den hirugarren faktorea.

Mugimendu horiek funtsezko hiru prozesutan laburbil daitezke. Lehenik, biztanle asko espazio zentral metropolitarratik irteten ari da, batez ere Bilbotik eta neurri txikiagoan Donostiatik eta azkenaldian Gasteiztik ere, periferia metropolitarrerako esparruetarantz, eta haien ordez kanpoko biztanleak sartzen dira. Bigarren prozesuan, industrializazio zaharreko hiri ertainetan (Goierrri, Tolosa, Laudio eta Debarroa) kokatutako biztanleak landa-esparruetarantz eta periferia metropolitarrerantz irteten ari dira.

Hirugarrena, oraindik ere kuantitatiboki txikia izan arren, lehen gainbeheran zeuden landa-espazioen gero eta erakartze-ahalmen handiagoa da. Izan ere, migrazio-saldo positibo gero eta handiagoak dituzte EAEko beste esparru batzuen aldean.

Kasurik esanguratsuen Bilbo eta bere inguruarena da. 1991 eta 2006 artean 15.374 gehiago izan ziren Bilbo Metropolitarretik EAEko beste esparru batzuetara lekualdatu ziren biztanleak esparru horretan kokatu zirenak baino. Prozesua aktibo dago oraindik ere, zeren 2000-2006 aldian Bilbo Metropolitarrerako migrazio-saldoa 5.300 pertsona gutxiagokoa izan baitzen EAEn aldean. Aitzitik, Bilbo Metropolitarraren inguruko eremuek balantze positibo garrantzitsuak izan zituzten. Mungiakoa da EAEko gainerako esparruetatik biztanle gehien erakarri duen eremu funtzionala, 1991 eta 2006 artean edozein denbora-tarte aintzat hartuta ere. Aldi oso horretarako, eremu funtzionalaren saldo positiboa 9.712 pertsonakoa da.

Intentsitate txikiagoarekin bada ere, Bilbo Metropolitarraren inguruko eremuek ere saldo positiboa dute: 1.658 pertsona Enkartzioetan, 1.591 Durangon eta 1.045 Arratian, oro har espazio zentral metropolitarreratik joan den biztanleriaren baliokidea. Azkeneko bosturtekoan 3.791 biztanle berri ezarri dira Mungian, 1.029 Enkartzioetan, 773 Durangaldean eta 588 Arratian.

Donostia-Beterriko eremu funtzionalean espazio zentraletatik irteteko prozesu hori Donostiako hiriaren hurbileneko esparrura eta Pasaiako badiako eta hiriburuaren hegoaldeko udalerrietako esparru hurbilenetara mugatu da. Espazio horiek barne-migrazioen ondorioz 1991 eta 2006 artean 1.321 biztanle galtzen dituzten bitartean (-615 biztanle 2000 eta 2006 artean), eremu funtzionalaren barruan biztanleria-lekualdatze garrantzitsua gertatzen ari da Irun-Hondarribia esparrurantz: 4.869 biztanle irabazten ditu 1991-2006 aldian EAEko beste esparru batzuetako biztanleak ezarri izanaren ondorioz. Urola-Kostako eremua da espazio metropolitarraren beste hedapen-esparrua. Inguru horrek 1.588 biztanleko saldo positiboa du 1991-2006 aldian EAEko gainerako esparruen aldean (391 biztanlekoa 2000-2006 aldian).


Araba Erdialdea EAEko beste espazio batzuetako biztanleak erakarri dituen espazioa izan da tradizionalki aldi horretan zehar. Eremu funtzional horren azalerak eta ezaugarriek bere azpiesparruak zehatz-mehatz aztertzea eskatzen dute. Bere esparru guztiek, bereziki Lautadak, eta batez ere Gasteizek, saldo positiboak izan dituzte aldi horretan zehar, 5.949 pertsonako irabazi globalarekin. Azkeneko bosturtekoan, ordea, Gasteizko esparruak eta bere inguru hurbilenak saldo negatiboa izan dute, zona horretako biztanleak batez ere probintziako iparraldeko esparruetarantz lekualdatu izanaren adierazgarri, 1.118 biztanleko saldo positiboa duen Gorbeia Inguruetako eskualdera hain zuzen. Berziki nabarmentzekoa da

landa-espazioen erakartze-ahalmen berria adierazten duten saldo positiboaren presentzia, besteak beste Arabako Mendialdean eta Haranetan eta Gorbeia Inguruetan bertan, baita Arabako Errioxan ere. EAEko beste inguru batzuetarantz migrazio-fluxuen ondorioz biztanleria galdu ohi zuen inguru landatar eta periferiko hori esparru biztanleria-hartzaile garbia bihurtu da, 2.144 biztanleko saldo positiboa erakusten baitu 1991-2006 aldiko barneko migrazio-fluxuetan.

Oso bestelako panorama erakusten dute hiri ertain industrial tradizionalak buru dituzten eremu funtzionalak. Toloserriak, Goierrik, Debagoienak, Debabarrenak eta Aiarak saldo negatiboak azaltzen dituzte etengabe aldi osoan zehar, artean amaitu ez den biztanleak EAEko beste inguru batzuetarantz lekualdatzeko prozesuan. Hala, Toloserriak 385 biztanleko saldo negatiboa du 1991-2006 aldian, azkeneko bosturtekoan 12 biztanleria murrizten dena. Aiaran galera globalak 723 biztanlekoak dira aldi osoan eta 173 biztanlekoak 2000-2006 aldian. Goierriko galerak 1.486 biztanlekoak dira 1991-2006 aldian eta 503 biztanlekoak 2000-2006 aldian. Egoerarik txarrena Debarroan ageri da. Debagoienak EAEko beste esparru batzuetara lekualdatzen diren 3.181 biztanle galtzen ditu 1991 eta 2006 artean. Kopuru horretatik 1.490 biztanle 2000-2006 aldiko galerak dira, prozesua artean amaitu gabe dagoen adierazgarri. Egoera berdina da Debabarrenan: 3.678 biztanleko saldo negatiboak 1991-2006 aldian eta 942 biztanlekoak 2000-2006 aldian.

Busturialdea-Artibaiko eremu funtzionalak, Enkartzioetakoak bezalaxe, egoera heterogeneoa erakusten du. Enkartzioetako eremu funtzionalak, esan dugun moduan, saldo global positiboak ditu, baina esparru ekialdekoeneko udalerrietan kontzentratzen dira. Udalerriok erakartzen dituzten biztanle berriek eremuaren mendebaldeko espazio landatartuenek artean duten saldo negatiboa konpentsatzeko aukera ematen dute.


Busturialdea-Artibaiko eremu funtzionalaren kasuan, Gernika-Lumo eta Bermeo inguruko esparru mendebaldekoenak saldo positiboak baina txikiak ditu (510 pertsona 1991-2006 aldian eta 262 pertsona 2000-2006 aldian), Markina-Xemein eta Ondarroa inguruko esparru ekialdekoenaren saldo negatiboak konpentsatzeko behar adinakoak ez direnak, esparru horrek gainbeheran dagoen landa-esparru baten dinamikak erakusten baititu artean: 1.656 biztanleko saldo negatiboak 1991-2006 aldian eta gaur egun ere ildo horretan jarraitzen du (842 biztanle gutxiago 2000-2006 aldian).



Eremu funtzionalen arteko biztanleriaren mugimenduak
1996-2006 denbora-tarteko saldoa



Iturria: INE, 2006



Migrazio-saldoa 1996-2006



Iturria: INE, 2006

a.6. Immigrazio berria

Beste autonomia-erkidego batzuetan baino beranduago eta dimentsio txikiagoekin agertu bada ere, atzerriko immigrazioaren fenomenoak, biztanleriaren zahartzearekin batera, EAEko biztanleriaren bilakaeraren azkeneko etapako prozesu demografikorik bereizgarriena da. INEren datuen arabera, 2007. urtearen hasieran EAEn 98.108 atzerritar zeuden guztira, hau da, biztanleria osoaren % 4,6. Madril, Katalunia, Murtzia, Balearrak edo Valentzia bezalako beste autonomia-erkidego batzuetakoa baino askoz ere ehuneko txikiagoa da, erkidego horietan biztanleriaren % 12tik gora atzerritarra baita. Bestalde, EAEk baino garapen ekonomiko eta urbanizazio-maila askoz ere txikiagoak dituzten Kantabria, Gaztela eta Leon edo Galizia bezalako erkidegoen antzeko profila dauka.

Dena den, atzerriko biztanleen ekarpena erabakigarria izan da termino demografikoetan. 1998tik 2007. urtea arte bertako biztanleriak 40.422 pertsona galdu ditu. Baina, aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoak 42.488 biztanle gehiago ditu. Hori ezinezkoa izango zatekeen atzerriko nazionalitateko 82.910 pertsona etorri ez balira. Beraz, atzerriko biztanleriaren saldo positiboak konpentsatu egin du bertako biztanleriaren galera.

Azkeneko 10 urteetan EAEn ia 7rekin biderkatu da atzerriko biztanleria. Hain zuzen ere, azkeneko hamarkadako elementu demografikorik erabakigarriena izan da.

Bere garrantzi demografikoa bere bolumenaren ondorio ez ezik, bere egituraren ondorio ere bada, oso hein handian gainera. Nagusiki emakume eta gizon heldu gazteak dira, ugaltze-adinekoak, eta ugalkortasunari dagokionez EAEn nagusi diren portaeren oso bestelakoak dituztenak. Horren emaitza, 2005. urtean immigranteen kolektiboak mila pertsonako 21

jaiotzako jaiotza-tasa zuen, biztanleria osoaren milako 8 jaiotzaren parean, eta EAEko jaiotza guztien % 7,8 zegokion. Beraz, biztanleria osoaren alderantzizko ezaugarri demografikoak dituen taldea da, indize demografiko globalak hobetzen dituena: gaztetasun-indize handiagoa, ugalkortasun-tasa handiagoa eta heriotza-tasa txikiagoak.

Lurralde historikoei dagokienez, Bizkaia da, oraindik ere, atzerriko biztanle gehien duen probintzia, 49.916 atzerritarrekin (% 50,8), Gipuzkoa da hurrengoa eta Araba azkena, 28.883 (% 29,4) eta 19.309 (% 19,7) erroldaturekin, hurrenez hurren. Alabaina, Arabari dagokio immigrazio-ehunekorik handiena: % 6,3. Bizkaian % 4,4 da eta Gipuzkoa da, oraindik ere, ehunekorik txikiena duen lurraldea: % 4,2. Laburbilduz, Bizkaian EAEko atzerriko biztanleriaren erdia bizi da eta Araba immigrazio-ehunekorik handiena duen lurralde historikoa da.

Espazioari dagokionez, EAEko immigrazioa fenomeno funtsean hiritarra da. Bilbo Metropolitarran EAEn bizi den atzerriko biztanleriaren ia % 40 kokatzen da, Araba Erdialdean % 17,3 eta Donostia-Beterriko eremu funtzionalean % 14,4. Biztanleria osoaren gaineko ehunekoari erreparatzen badiogu, Araba Erdialdean atzerritarrak biztanleria osoaren % 6 dira eta Arabako Errioxan % 5 baino gehiago. Bilbo Metropolitarrako eta Donostia-Beterriko eremu funtzionalek, hurbileko esparruekin batera (Gernika-Lumo - Markina-Xemein eta Mungia), % 4 gainditzen dute. Aitzitik, indizerik txikienak Enkartzioetan, Debarrenan, Debagoian, Aiaran eta Toloserrian daude, eta ez dira biztanleriaren % 3 ordezkatzera iristen. Hala, korrelazio estua ageri da emigrazioaren eta hazkunde demografikoaren artean: atzerriko emigranteen presentzia txikiena duten eremu funtzionalak dira indize demografiko andeatuenak eta biztanleriaren hazkunde-indizerik txikienak dituztenak.

Azkenik, atzerriko biztanleria hiri-esparru jakin batzuetan kontzentratzeari dagokion datu esanguratsua nabarmendu beharra dago, gure hirietako egitura hiritarraren espazio enblematikoetan segregazio espazialeko adierazpen hasiberriak eta ghettoak agertzeko bidea ematen baitu. Oro har, atzerritarren bizitegi-segregazioaren maila globala konparatiboki txikia da hiru euskal hiriburuetan, baina hazteko joera erakusten du, auzo batzuetan batik bat. Bestalde, hiriaren tamainarekin oso lotuta dagoen fenomeno da eta, horrenbestez, atzerriko biztanleria auzo jakin batzuetan kontzentratzeko prozesu hori Bilbon nabarmenagoa da Donostian edo Gasteizen baino.


Bilbon, Zazpi Kaleak, Bilbo Zaharra eta San Frantzisko auzoek biztanleria immigrantearen % 30 baino gehiago hartzen dute. San Frantzisko auzoak 7.525 biztanle ditu (Bilboko biztanleriaren % 2,1) eta atzerritarren % 9,6 kontzentratzen du. Beraz, San Frantziskoko biztanleen % 25 atzerritarra da. Eremu geografiko gisa, San Frantzisko auzoak eta inguruko auzoak (ia Zazpi Kaleetako 5. barruti osoa, San Adrian izan ezik) atzerriko biztanleriaren banaketako desorekaren zatirik handiena xurgatzen dute: atzerritarren % 26,6 barruti horretan bizi da eta, horrenbestez, biztanleriaren % 9 atzerritarra da. Bestalde, Errekaldeberri-Ametzola-Iralabarri multzoak (ia 40.000 biztanle) atzerriko biztanleriaren % 14,4 hartzen du eta, horrenbestez, bertan bizi direnen % 21,3 atzerritarra da.

Bilboren kasuan, azpimarratu beharra dago, balio absolutuetan ikusita, auzo batzuetan biztanle immigranteen kopuru jakin baten presentzia multzo osoan lausotu egiten dela, auzo handi eta jendetsuak dira-eta: Abandok eta Indautxuk ere atzerriko biztanleriaren % 13 hartzen dute, baina horiek bertan bizi direnen % 5 baino ez dute ordezkatzeko, eta Santutxun ere antzeko zerbait gertatzen da.

Donostian hiru auzok besterik ez dute segregazio-mailaren bat markatzen atzerriko biztanleriarentzat, batez ere bertan bizi diren atzerritarren % 11,6 hartzen duen Erdiguneko auzoak eta, bigarren maila batean, atzerriko biztanleriaren ia herena xurgatzen duten Amara Berri (% 17) eta Gros (% 14) auzoek, baina adierazi beharra dago hiriko auzorik jendetsuenak direla.

Gasteizen, kontzentrazio-auzo moduan Alde Zaharra besterik ez da nabarmentzen. Hirian dagoen atzerriko biztanleriaren % 10,4 hartzen du eta, horrenbestez, bertan bizi direnen % 15 atzerritarra da.

ATZERRIKO BIZTANLERIA



b.

Produksio-jarduerak

b.7. Euskal ekonomiaren hazkundera eta konbergentzia

Joan den mendearan 80ko hamarkadaren hasiera aldera hasi zen industria-krisialdiaren ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoak garapen-etapa berri bati ekin zion. Etapa horrek euskal ekonomiaren dinamismo handia, aldaketa sektorial garrantzitsu bati lotua, eta jakintzaren ekonomiaren osagaien gero eta garrantzi handiagoa izan zituen bereizgarri.

Azken bi hamarkadetan euskal ekonomiak transformazio estruktural garrantzitsua izan du, termino kuantitatibo zein kualitatiboetan antzeman daitekeena. 80ko hamarkada, neurri handi batean, industria-doikuntza gogorreko aldia izan zen, denboran autonomia-estatutuaren eta zegozkion erakunde ekonomikoaren abiaraztearekin bat etorri zena. Hamarkadaren bigarren zatian, 1986. urtean, Espainia Europako Ekonomia Erkidegoari (EEE) atxiki zitzaion.


Aldi horretako bilakaera ekonomikoaren azken emaitzak 25 urte lehenago zegoenaren nabarmen desberdina den egitura ekonomikoa erakusten du. Aldagai nagusiak kontuan hartuta, eta aurreko kapituluaz azaldu dugun moduan, ibilbide demografikoan norabide-aldaketa sakona izan dela egiazta daiteke, zeren biztanleriak 80ko hamarkadaren hasiera arte hazkunde garrantzitsua izan ondoren (jaiotza-tasa altuak eta migrazio-saldo positiboak), biztanleriaren geldialdia eta beherakada hasi baita, Europa osoko ugalkortasun-tasa baxuenetako batzuek eta migrazio-saldo negatiboek eraginda.

Jarduera ekonomikoaren ikuspegitik, 80ko hamarkadaren lehen erdiak krisialdi ekonomiko larria izan zuen bereizgarri. Izan ere, industria-doikuntza

gogorrek hamarkadaren bigarren erdia aski aurreratua izan arte iraun zuen. Langabezia-tasa handiak, jarduera ekonomikoaren indizeen beherakada eta produkzioaren eta errenten hazkunderaren gutxitzea izan ziren aldi horren ezaugarri nagusiak. Dena den, bigarren erdian hazkunde ekonomikoaren bidea berreskuratu zen, EEEri atxiki ondoren batik bat. Fase horrek 90eko hamarkadaren lehen urteak arte iraun zuen eta 1992. urtetik aurrera ia 90eko hamarkadaren erdialdea arte luzatu zen beste atzeraldi batean sartu zen.

Beraz, nolabaiteko konbergentzia hautematen da Europako ziklo ekonomikoarekin, euskal ekonomia Europako esparru ekonomikoan gero eta integratuagoa dagoen seinale.

BPGaren bilakaera sektore ekonomikoaren arabera (1995-2004)



Hamarkada horietan zehar, sektore ekonomiko guztien pisu espezifikoa aldatuz joan den aldaketa estruktural garrantzitsua eratu eta gauzatu da pixkanaka. Lehen sektoreak pisua galdu du, bai BPGrako ekarpenari bai enpleguari dagokionez.

Gaur egun, nekazaritza eta abeltzaintzako eta basogintzako azpisektorearen BPGrako ekarpena ozta-ozta iristen da % 1era eta enpleguaren % 1,6 ingurura, eta 80ko hamarkadaren hasieran bere garrantzia ia hiru bider handiagoa zen. Ekonomia arian-arian tertziarizatu egiten da, industriaren eta lehen sektorearen pisu erlatiboaren galeraren bizkar batik bat. Dena den, industriaren euskal BPGrako ekarpena maila garrantzitsuetan mantentzen da artean, % 40ren inguruan (enpleguen ia 1/3 ere sektore horretakoak dira); gainera, zerbitzuen sektorearen hazkundera industria-sektoreak (enpresentzako zerbitzuak) bultzatu du neurri handi batean. Eraikuntzaren sektorearen ekarpena nabarmena izan da, batez ere azkeneko hamarkadan zehar, parte-hartze garrantzitsua izan baitu euskal ekonomiaren hazkunderan. Azkeneko hamarkadan zehar, hainbat industria-azpisektorek dinamismo garrantzitsua erakutsi dute, baita hazkundera handiagoa ere BPGari zein enpleguari dagokionez. Produkzio-adarrak sakon aztertuta, adierazi beharra dago balio erantsi gordina sortzeari dagokionez pisu erlatiborik handiena duten azpisektoreak enpresentzako zerbitzuen (EAEko 2004ko BEG osoaren % 16,2 hartzen du) eta merkataritza eta konponketena (% 10,9) direla. Hirugarren tokian lehen industria-jarduera dago, metalurgia eta artikulua metalikoei dagokiena, euskal balio erantsi gordinaren % 8,9rekin. 2000-2004 aldia kontuan hartuta, azpimarratu beharra dago hazkunderik handiena izan duten bost produkzio-adarretariko bi industria-jardueri dagozkiela (mineral metalikoak eta ez-metalikoak, eta energia elektrikoa, gasa eta ura). Horrek berretsi egiten du modernizatzen ari diren sektore tradizionaletan ez ezik produkzio arlo berrietan ere sostengatzen den beste berrindustrializazio baten ideia.

Eustaten datuen arabera, 2006. urtean EAEko ekonomiak hazten jarraitu zuen hamazazpigarren urtez jarraian. Hazkundera horrek erosahalmenaren parekotasuneko biztanleko BPGa 129,9 balioraino igotzen du, 100 balioa izanik Europar Batasuneko batez bestekoa. Euskal ekonomiak erdietsi duen hazkundera estatu osoan erregistratutakoa baino handiagoa izan da eta, are gehiago, EB-15en batez bestekoari dagokiona baino handiagoa. Bilakaera horri esker, EAEk nabarmen egin du aurrera Europako eskualde aurreratuenekiko konbergentzia errealeko prozesuan. Horiek horrela, 1995-2006 aldirian euskal BPGak hazkundera nabarmena izan du eta horrek aukera eman dio EAERI Europarekiko konbergentzian posizioak hobetzeko. Horrez gain, aldi horretan enplegu asko sortu da, eta hori benetan mesedegarria izan da iragan hurbileko langabezia-tasa handiak nabarmen murrizteko. Beraz, garapenari eta biztanleriaren ongizatea hobetzeari dagokienez fase oparoa izan dela esan daiteke.


Izan ere, EAEko per capita BPGa EB-25eko batez besteko balioa baino ia % 25,1 handiagoa da 2005. urtean, eta 1996. urtean batez besteko hori baino % 1,5 handiagoa besterik ez zen. Beraz, kontuan hartutako aldirian ehuneko 23,6 puntu egin du gora. EB-15eko esparruan, EAEk izan duen aurrerakada ezaugarri bereziak dituzten bi herrialdek besterik ez dute gainditu: Luxenburgok (Europako hainbat erakunderen egoitza izatearen onurak eraginda) eta Irlandak (herrialde hau Europako plataforma bihurtu da Ameriketako Estatu Batuetako multinazionalentzat eta diru-kopuru handiak jaso ditu Europako funtsetatik).

Enpresa-ehunari dagokionez, 2005. urtean 181.533 establezimendu daude EAEn, hau da, 1997. urtean baino % 17,7 gehiago. Establezimendu horien enplegu-geruzaren arabera banaketari dagokionez ez da garrantzizko aldakuntzarik izan. Beraz, enpresa-ehunak atomizazio nabarmena du bereizgarri oraindik ere. Zehazki, 2005ean establezimenduen % 74,4k 3

langile baino gutxiago ditu (eta enplegu guztiaren % 18,6 hartzen du), eta establezimenduen % 1,2k besterik ez ditu 50 langile edo gehiago (eta enplegu guztiaren % 38,3 hartzen du).

EAEren kanpoko jarduerari dagokionez, azken urteotako bilakaerak berretsi egin du euskal ekonomia gero eta gehiago irekitzen ari dela eta bete-betean parte hartzen ari dela Europako merkatuaren globalizazio eta integrazioaren prozesuetan. 1990. urteaz geroztik esportazioen balioa ia 7rekin biderkatu da eta EAEko BPGaren % 30 baino gehiago hartzen dute dagoeneko. Euskal ekonomiaren irekitze-mailak (esportazioen eta inportazioen baturak BPGaren gainean ordezkatzeko duen ehuneko gisa adierazia) gorantz jarraitzen du eta % 129,5era iristen da.

Esportazioen balioaren bilakaera (1990-2004)



Euskal esportazio gehienak ekipamendu-ondasunak dira; produktu-multzo honek kanpoalderako salmenta guztien erdiak baino gutxiago hartzen ditu 2005. urtean (makinak eta aparatuak eta garraio-materiala batik bat). Bigarren tokian metal arrunten eta horien manifaktura esportazioa nabarmentzen da. Hirugarren tokia plastikoen eta kautxuen esportazioari dagokio.

Esportazioen helburu diren eremu geografikoen arabera, Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundera (ELGA) eta, esparru horren barruan, EB-15era zuzendutakoek guztien % 68,3 hartzen dute. Bereziki nabarmentzekoak dira Frantzia eta Alemaniaranzko esportazioak, EAEko EB-15erantz egiten dituen esportazioen % 52 hartzen baitute. Halaber, Belgika, Austria eta Italia helburu dituzten esportazioen igoera ere aipatzekoa da.

Lan-produktibitateari dagokionez, eta UE-25=100 balioa erreferentziako oinarritzat hartuta, 2004. urtean EAEren enplegatutako pertsonako lan-produktibitatea (120,7) EB-25eko batez bestekoa baino % 20,7 handiagoa da. Izan ere, EAEko maila Luxenburgok (145,9), Irlandak (132,9) eta Belgikak (128,9) besterik ez dute gainditzen Europan. Ildo horretan, Frantzia (120,1), Italia (108,3) eta Alemania (101) bezalako Europako ekonomia nagusien balioak gainditzen ditu eta, halaber, Espainiako batez besteko lan-produktibitatearen (100) gainetik kokatzen da nabarmen. Puntu honetan, gogorarazi beharra dago lanaldi partzialeko enplegua Espainian (eta EAEren) ez dagoela Europan bezain garatua, eta egoera horrek EAEren eta estatuan langile bakoitzaren batez besteko produktibitatea handitzeko joera duela Europaren aldean.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoaren produkzio-egiturak industria-osagai handiagoa du Espainian edo Europan baino. Sektore horrek kapital-

metatze handiagoa du eta beste sektoreetakoak baino produktibitate handiagoak lortzen ditu.

Alabaina, EAEn enplegatutako pertsonako lan-produktibitateak azkeneko urteetan (1995-2004) izan duen bilakaera aztertzen badugu, azpimarra daiteke beheranzko joera txiki bat antzematen dela: 1995. urtean EB-25eko batez bestekoa baino % 27,3 handiagoa zen eta, arestian adierazi dugun moduan, kopuru hori % 20,7ra jaitsi zen 2004. urtean. Behar-beharrezkoa da Europar integratzeak ekarri zituen abantaila batzuk (lan-kostu erlatibo txikiak, truke-tasa onuragarria, Europako funtsen etorri garrantzitsua, etab.) ahitzeko joera erakusten duten ingurune horretan lehiatzeko ahalmena indartzea.

b.8. Biztanleria eta jarduera ekonomikoa. Lan-merkatua

b.8.1. Biztanleria aktiboa

1993 eta 2005 artean 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriak behera egin zuen termino absolutuetan Euskal Autonomia Erkidegoan. Urte horietan, lan-adineko biztanleria 1.466.028 pertsonakoa izatetik 1.433.604 pertsonakoa izatera igaro zen. Beraz, % 2,2ko beherakada izan zen aldi horretan. Beherakada hori bereziki indartsua izan zen 1997-2001 laurtekoan, % 3raino iritsi baitzen. Horren ondoren, egonkortzeko joera eta susperraldi txiki bat izan zen, zalantzarik gabe immigrazioari lotua, 2001 eta 2005 artean (% 0,6), eta 2005etik 2007ko hasiera aldera berriz ere % 0,2 jaitsi zen.

Euskal Autonomia Erkidegoan adin potentzialki aktiboko biztanleria zahartzeaz gain, 50 urtetik gorako biztanleriak gero eta garrantzi handiagoa hartzen du. Ildo horretan, 1993 eta 2001 artean biztanleriaren hazkunderik handiena 35 eta 49 urte bitarteko taldeari bazegokion (% 7,3, eta 50 urtetik gorakoak % 3,8), 2001 eta 2005 artean egoera hori 50 eta 64 urte bitartekoei egotz dakieke (% 7, eta 35 eta 49 urte bitartekoak % 5,4).

Lurraldeei dagokienez, lan-adineko biztanleriaren gutxitzea eta biztanleria aktiboaren batez besteko adinaren igoera bat dator esparru bakoitzaren dinamismo demografiko handiago edo txikiagoarekin. Hala, Eskuinaldea edo Arabako Lautada bezalako espazioetan 16 eta 64 urte bitarteko biztanleria % 6 baino gehiago hazten da aldi horretan eta, aldi berean, Ezkerraldeak eta Bilbok % 6tik gorako gutxitzeak jasaten dituzte eta Donostiak % 1etik gorakoak. Gainerako adierazleetan bezalaxe, Bilbo Metropolitarraren inguruko eremuek (Arratia, Aiara, Mungia) eta Donostia-Beterriren ingurukoek (Urola-Kostako esparrua bereziki) bilakaera positiboa erakusten dute, eta Gipuzkoako inguru urbanizatuenetan (Toloserria, Goierri, Debagoiena, Debarrena), aldiz, bilakaera negatiboa da eta % 10 inguruko gutxitzeak dituzte zenbaitetan. Dena den, bizitasun demografiko handiago edo txikiagoak ez du eragin esanguratsurik biztanleriaren sexuaren edo adinaren arabera banaketan, eta, oro har, emakumezko biztanleriaren pisu erlatiboa egonkortzeko joera eta 35 urtetik beherako biztanleriaren beherakada handia hauteman daitezke.

Biztanleria aktiboaren eta horren ondorio diren gainerako parametroen (enplegua, langabezia, etab.) zehaztapena bi estatistika-formatu desberdinetan agertzen da. Aktibotasun-tasa, biztanleria jardueraren arabera (BJA) abiapuntuzat hartuta kalkulatu, 16 urtetik gorako biztanleria osoa kontuan hartuta zehazten da. Erroldako datua da eta, horrenbestez, daturik berriena 2001. urtekoa da, baina udal-desagregazioaren abantaila

eskaintzen du. Lan-merkatuaren erroldaren (LME) datuetan oinarritutako kalkulua egiteko 16 eta 64 urte bitarteko biztanleria besterik ez da kontuan hartzen. Hori dela-eta, eskaintzen dituen aktibotasun-tasak BJAk ematen dituenak baino % 10-15 handiagoak izaten dira. LMEk 2005. urtea arteko datuak ditu, baina bere desagregazio-maila eskualdekoa da. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak Sailak garatutako indize eta analisi guztiek erreferentziako oinarri gisa LME erabiltzen dutenez gero, hori erabiliko dugu hemen normalean eta berriaz adieraziko dugu hala egiten ez denean.

Datu horiekin, Euskal Autonomia Erkidegoko 16 eta 64 urte bitarteko biztanleria aktiboa 997.280 pertsonakoa zen 2005. urtearen amaieran; horrek esan nahi du aktibotasun-tasa orokorra % 69,6 zela, EB-15eko batez bestekotik (% 71,2) hurbil samar. Biztanleria osoaren kasuan ez bezala, hor oreka-egoera baitago, biztanleria aktiboaren artean gizonezkoak nagusi dira argi eta garbi, EAEko biztanleria aktibo osoaren % 58,5 hartzen dute-eta. Datu horrek emakumearen aktibotasun-tasa artean nabarmen txikiagoa dela adierazten du, % 58,4 baita, gizonezkoen artean hautematen den % 80,5en parean. Euskal Autonomia Erkidegoan, emakumeen artean aktibotasun-tasa EB-15eko batez bestekoa (% 63,5) baino bost puntu txikiagoa da; gizonezkoen artean, ordea, 1,5 puntu handiagoa da (% 78,9 EB-15en). EB-15eko batez besteko aktibotasun-tasak landatartasun nabarmena bereizgarri duten esparruetakoa (Enkartazioak, Arabako Errioxa, Busturialdea-Artibai) edo andeatze demografiko garrantzitsua duten esparruetakoa (Bilbo Metropolitarrak esate baterako) besterik ez du gainditzen.


Lan-adineko biztanleriaren gutxitzearen banaketa espaziala ez dator guztiz bat aktibotasun-tasek erakusten dutenarekin. Aktibotasun-tasarik handienak Gipuzkoako industria-zonetan (Goierri, Toloserria, Debagoiena), Donostia-Beterrin, Durangaldean, Arratian eta Eskuinaldean agertzen dira, % 72tik

gorako aktibotasun-tasak dituzte-eta. Beheraxeago, % 70 inguruan, Gasteiz eta Arabako Lautada agertzen dira, baita Mungiako eremua ere. Mailarik txikienak Arabako Errioxa, Enkartazioak eta Busturialdea-Artibai bezalako landa-eremuetan eta krisialdi demografiko handia jasan duten Debabarrena bezalako industria-eremuetan eta Ezkerraldeko udalerrietan agertzen dira; Portugaleten, esate baterako, aktibotasun-tasak % 60raino jaisten dira.

Datu horiek oso bilakaera desberdinak islatzen dituzte. Hala, 1999 eta 2005 artean aktibotasun-tasa % 5 eta % 10 bitartean gutxitu zen Debabarrena, Arabako Errioxa eta Busturialdea-Artibai bezalako esparruetan, ozta-ozta hazi zen Bilbon eta Ezkerraldeko udalerrietan, gehikuntza txikiak izan zituen (% 3 eta % 4 bitartekoak) Enkartazioak, Arratia eta Araba Erdialdea bezalako eremuetan, eta hazkunde handia izan zuen Gipuzkoa osoan (Debagoienan izan ezik) eta Eskuinaldeko udalerrietan (% 10etik gorako hazkundeak).

Jarduera ekonomikoaren gorakada eta, batez ere, emakumea lan-merkatuan gero eta neurri handiagoan sartzea dira urte horietan aktibotasun tasak gora egin izana esplikatzen edo argitzen duten faktore nagusiak. Horren parean, andeatze demografikoa eta biztanleriaren zahartzea dira zona batzuetan hautematen diren hazkudearen gutxitze-prozesuen eta azkeneko urtean hazkunde-erritmoa mantsotu izanaren erantzule. Halaber, 25 urtetik beherakoaren artean jarduera gero eta txikiagoa dela adierazten duten datuak ere agertzen dira, ikasketa-adinak luzatu izanaren ondorioz. Izan ere, jardueraren ia hazkunde osoa 35 urtetik gorakoaren taldeari zor zaio.

BIZTANLERIA AKTIBOAREN TASA



Biztanleria aktiboa
(biztanleria osoaren gaineko %)

Light blue	< % 45
Medium blue	% 45 - % 50
Dark blue	> % 50

Iturria: INE, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Errolda, 2001

b.8.2. Soldatak

Lan-merkatuaren erroldak aurreko hilabetean lan-jarduera batetik (soldatapekoa zein bestelakoa) lortutako hileko diru-sarrera garbiei buruzko informazioa gehitzen du 2005. urteaz geroztik. Datuek adierazten dutenez, gaur egungo 16 eta 64 urte bitarteko landunen % 99,6k diru-sarrera positiboren bat lortu zuen aurreko hilean.

EAEko biztanleria landunaren batez besteko diru-sarrera garbiak 1.237,55 €-koak ziren 2005eko hirugarren hiruhilekoan. Kontuan hartutako landunen % 6,4k besterik ez ditu 600 €-tik beherako diru-sarrerak, baina 1.000 € eta 1.200 € azpitik dauden proportzioa funtsezkoa da: % 30,2 eta % 42,7, hurrenez hurren. Izatez, euskal biztanleria landunaren bi herenek baino gehiagok hilean 1.300 € baino gutxiago irabazten dute.

Lanbide-egoera kontuan harturik, bi kolektibo nabarmen kokatzen dira EAEko batez bestekoaren gainetik diru-sarrerari dagokienez. Enplegatzaileak (1.603,08 €-ko batez besteko diru-sarrerak dituzte) eta administrazio publikoaren soldatapeko langileak (1.548,84 € batez beste) dira. Kasu horietan, diru-sarreraren batez besteko maila EAEko batez besteko orokorra baino % 25-30 handiagoa da.

b.8.3. Enplegua

2005eko datuek azkeneko 12 urteetan hautemandako enpleguaren hazkunde aparta berresten dute. Hala, EAEn 683.079 landun zeuden 1993. urtean eta 2005ean 948.180 ziren. Horrek esan nahi du % 38,8ko gehikuntza erlatibo izan dela 1993. urtean zegoen enplegu-bolumenaren

gainean, eta 265.101 enplegu berri garbi sortu zirela (egungo guztizko enpleguaren % 28ren baliokidea).

1993-2005 aldia osotasunean kontuan hartuta, bilakaera globalki aldekoena Toloserriko eta Bilbo Metropolitarrako eremuei dagokie, % 45etik gorako enplegu-hazkundeko mailak izan dituzte-eta.

Eremu horietakoa baino txikiagoa izan arren, enpleguaren hazkundera funtsezkoa izan da, halaber, Araba Erdialdeko eta Aiarako eremuetan (% 42,5 eta % 39,8 hurrenez hurren) eta Donostia-Beterriko eremuan (% 42,3). Mungiako, Durangaldeko eta Debagoieneko eremuak bitarteko posizioan daude. Eremu horiek oso enplegu-hazkunde handia izan dute, % 35 eta % 37 bitartekoa, baina EAEko batez bestekoa baino txikiagoa. Enpleguaren hazkunde-erritmorik txikiena Debabarreneko eremuari dagokio. Enpleguaren hazkundera garrantzitsua izan arren, % 25,5 inguruan kokatzen baita, nabarmen aldentzen da gainerako eremuetan hautematen den hazkundetik, beste horietan igoerak % 35etik gorakoak izan baitira eta zenbaitetan % 45eko mailak gainditzera ere iritsi baitira.

b.8.4. Biztanleria langabea

Eurostat/BJA metodologia berriaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 2005. urtearen amaieran 49.100 pertsonak osatzen zuten biztanleria langabea. Langabezia-tasak biztanleria aktiboaren % 4,9 hartzen du. 16 eta 64 urte bitarteko pertsonen multzoari dagokionez, adin horretako biztanleria osoaren % 3,4 langabezian dagoela esan nahi du. Langabeen kolektiboaren gehiengoak emakumezkoek osatzen dute: kolektiboaren % 52,1. Aurreko aldien aldean, deigarria da jeneroaren araberrako banaketan ikusten den oreka handiagoa, emakumezkoen

langabezia-tasa nabarmen hurbiltzen baita gizonezkoenera (% 6,2 eta % 4 hurrenez hurren).

Eremu funtzionalei dagokienez, 2005. urteko datuen arabera Debagoieneko eremuari dagokio EAEko langabezia-tasarik txikiena: % 2. Langabezia-tasak % 5eko mugaren azpitik kokatzen dira Arabako eremuetan, Gipuzkoako gainerako eremuetan eta Bizkaiko Durangaldeko eremuan. Bizkaiko lurralde historikoko gainerako eremuetan langabezia-tasak % 6 eta % 7,5 bitartean kokatzen dira. Lan-merkatuaren errolda egiten denetik, lehen aldiz langabezia-tasa % 10eko mugaren azpitik dago Euskal Autonomia Erkidegoko eremu guztietan.

Langabeziaren errealitatea modu desberdinean hautematen da gizonezkoen eta emakumezkoen egoera aztertzen badugu. Gizonezkoen kasuan, enplegu bete teknikitik hurbil dauden egoerez hitz egin dezakegu Euskal Autonomia Erkidegoko ia eremu guztietan, Bilbo Metropolitarrako eta Mungiako eremuetan besterik ez baitaude % 5 eta % 6,5 bitarteko langabezia-tasak. Gainerako kasuetan, kopuruak % 3,5eko mugatik hurbil edo horren azpitik daude. Areago, zifrak % 2tik beherakoak dira Araba Erdialdean, Toloserrian, Goierrin, Debabarrenan eta Debagoienan, eta azken eremu horretan dago mailarik txikiena: % 1,1.

Emakumezkoen kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko eremu gehienak ere % 5eko mailaren azpitik kokatzen dira gaur egun. Izan ere, langabeziaren zifrak % 3 eta % 4 bitartekoak dira Araba Erdialdean eta Gipuzkoako eremuetan, eta Aiaran ere % 5en azpitik daude, nahiz eta kasu horretan % 4,7raino igo. Emakumezkoen langabeziari dagozkion zifrak handixeagoak dira Mungiako eta Durangaldeko eremuen kasuan, % 6,5 baino handixeagoak hain zuzen. Bilbon % 8ko mailak gainditzen dira, eta Ezkerraldeko egoera Eskuinaldekoa baino okerragoa da. Hala ere, eremu

guztietan zifrak % 10etik beherakoak dira, bai gizonezkoen bai emakumezkoen artean.

Langabezia-egoera gehienak kolektibo gazteen artean kontzentratzen dira, baina ez nahitaez gazteenen artean. Hain zuzen, langabeen % 17,4 25 urtetik beherakoa da. Alabaina, proportzio hori % 39,4ra iristen da 25 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean. 35 eta 49 urte bitarteko pertsonen langabe guztien % 33,3 hartzen dute eta proportzioa % 9,9koa besterik ez da 50 urtetik gorakoan artean. Praktikan, problematika honen nukleo gogorra 20 eta 39 urte bitarteko pertsonen artean kontzentratzen da, langabezia-egoeren % 68,9 hartzen dute-eta. Tasei dagokienez, ordea, langabezia-tasarik handiena 20 urtetik beherakoei dagokie, % 14,9ko langabezia-tasa dute-eta.

Interesgarria da langabeen kolektiboaren barneko ezaugarri batzuk aztertzea. Langabezia-egoerako denboraren aldagaia hasiera batean kontuan harturik, egiazta daiteke 2001. urtean antzemandako aldaketa, euskal langabe gehienak iraupen laburreko edo ertaineko langabeak zirela egiaztatzen zuena, 2005. urtean mantendu eta finkatu egiten dela. Langabeen % 66k urtebete baino gutxiago darama langabezia-egoeran. Langabeen % 34k urtebete baino gehiago darama langabezian, eta % 15,5ek bi urte baino gehiago darama enplegu bila. Donostia-Beterrin luzaroko langabeen proportzio garrantzitsua hautematen da, langabeen % 40,5ek bi urte baino gehiago baitarama enplegu bila. Aiaran, Bilbo Metropolitarran, Durangaldean eta Toloserrian proportzioa % 32,5 eta % 35 artean mugitzen da eta % 30etik behera jaisten da Araba Erdialdeko, Debagoieneko eta Debabarreneko eremuetan, % 27,5 eta % 29 arteko mailetan mugitzen baita. Izan ere, Mungiako eremuan % 15,3ko minimoa lortzen da.

Azken batean, funtsezko datua hauxe da, hots, 1993 eta 2005 artean erabateko haustura gertatzen dela Euskal Autonomia Erkidegoko langabeziaren bilakaeran, langabezia-mailek nabarmen eta bizkor egiten baitute behera. Langabeziaren beherakadaren zati handiena 1997-2001 aldiari dagokio, garai horretan kontzentratzen baita beherakada absolutuaren % 50,6. Bestalde, % 25,1 1993 eta 1997 artean eta % 24,3 2001 eta 2005 artean.

b.9. Biztanleria eta aldaketa estrukturala EAEko ekonomian

Euskal biztanleria landunaren sektorekako banaketak, 2005. urtean, zerbitzuen sektorearen nagusitasun garbia islatzen du, kontuan hartutako biztanleriaren % 63 hartzen du-eta. Industriak landunen % 26,3 hartzen du, eraikuntzak % 9,1 eta lehen sektoreak % 1,6.

Jarduera-adarrak kontuan hartuta, enplegua honako esparru hauetan banatzen da nagusiki:

- a) Merkataritza eta ostalaritza: % 18,9.
- b) Metalurgia eta makineriaren eraikuntza eta bestelako materialak: % 16,8.
- c) Hezkuntza, osasun arloa eta gizarte-zerbitzuak: % 13,3.
- d) Finantza-erakundeak eta enpresentzako gainerako zerbitzuak: % 11,7.
- e) Eraikuntza: % 9,1.
- f) Bestelako merkataritza-zerbitzuak (etxeko zerbitzua barne): % 7,5.
- g) Garraioak eta komunikazioak: % 6,7.
- h) Manufaktura-industria (paperaren sektorea barne): % 5,2.
- i) Administrazio publikoa: % 4,8.

- j) Bestelako industria (kimika, energia, erauzketa, kautxua): % 4,3
- k) Nekazaritza eta arrantza: % 1,6.

Datuek erakusten dutenez, alde batetik, zerbitzuen sektorea nagusitu egiten zaio industriako eta nekazaritzako zuzeneko produkzioari (6tik 4rako erlazioan); bestetik, industriaren barruan metalaren sektorea nagusitzen da eta, zerbitzuen sektoreari dagokionez, merkataritza-zerbitzuen, merkataritzaren, ostalaritzaren, bestelako merkataritza-zerbitzuen eta etxeko zerbitzuen pisu erlatiboa nabarmentzen da. Izan ere, horiek enpleguaren % 26,4 hartzen dute, gizabanakoentzako eta enpresentzako zerbitzu orokorrek (finantza-erakundeak, garraioak eta komunikazioak eta enpresentzako zerbitzuak) % 18,5 eta zerbitzu publiko orokorrek (hezkuntza, osasun arloa, gizarte-zerbitzuak eta administrazio publikoa) % 18,1.

Ikuspegi orokor horren ganean, lurraldeko enpleguaren banaketa sektorialak aldakuntza esanguratsuak erakusten ditu. Enplegua industrian eta eraikuntzan nagusi da oraindik ere, edo zerbitzuen antzeko pisua du orokorrean, EAEko esparru batzuetan, Gipuzkoan batik bat. Hala gertatzen da Debagoienan, Debabarrenan eta Toloserrian, bigarren sektoreko landunak % 54,4, % 49,7 eta % 48,4 baitira hurrenez hurren. Durangaldea ere, industriako eta eraikuntzako landunak % 51,7 izanik, eremu nabarmenki industrialak da. Aiaran bigarren sektoreko enpleguaren proportzioa % 46ra jaisten bada ere, zerbitzuen sektoreari dagokion zatiaren antzekoa da artean. Biztanleria landunari dagokionez industriaren eta eraikuntzaren sektoreek zerbitzuen sektorea Durangaldean, Debagoienan eta Debabarrenan bakarrik gaintzen badute ere, kontua da adierazitako eremu guztietan biztanleriaren gehiengoak zerbitzukoek bestelako sektoreetan lan egiten duela (nekazaritza barne, beraz).

Metalurgiaren eta makineriaren eraikuntzaren eta bestelako materialen adarretako enpleguaren garrantzia erabakigarria da eremu horietako gehienetan, batez ere Debagoienan eta Debabarrenan (% 44 eta % 41, hurrenez hurren), eta % 30eko mailak gainditzen dituzte Durangaldean (enpleguaren % 34,6) edo hurbildu egiten dira Toloserriko eta Goierriko eremuetan (% 29,6). Aski txikiagoa izan arren, proportzioa garrantzitsua da oraindik ere Aiaran (% 24,2). Eraikuntzak eta industriaren gainerakoak oro har enpleguaren % 10 gainditzen dute eremu horietan, Debabarreneko eremuan izan ezik, ozta-ozta iristen baita enpleguaren % 8,8ra. Adar horietako enpleguak garrantzi bereziki nabarmena du Aiaran, enpleguaren % 21,8 hartzen baitu, baita Toloserrian, Goierri eta Durangaldean ere (% 18,7 eta % 17,2).

Araba Erdialdean, Mungian eta Busturialdea-Artibain zerbitzuen sektorea nabarmen nagusi izan arren, enpleguaren % 40 baino gehiago zerbitzuko ez bestelako sektoreetan dago oraindik ere.

Aitzitik, biztanleria landunaren bi heren inguru edo gehiago zerbitzuen sektorean kontzentratzen dira Donostia-Beterrin eta Bilbo Metropolitarran. Azkeneko eremu horretan, hain zuzen, enpleguaren % 74,5 zerbitzuen sektorean dago. Eremu horietan erabakigarria da merkataritza-zerbitzuek (merkataritza, ostalaritza, bestelako merkataritza-zerbitzuak eta etxeko zerbitzua) eta enpresentzako zerbitzuek eta finantza-erakundeek betetzen duten eginkizun diferentziala, adar horietako enpleguaren pisuak kasu guztietan gainditzen baitu enpleguaren % 40, industriaren eta eraikuntzaren batura baino gehiago.

Nekazaritzari eta arrantzari dagokienez, Enkartazioetan, Aiaran, Mungian, Busturialdea-Artibain eta Arabako Errioxan besterik ez dute pisu esanguratsua, eta % 3tik behera erortzen dira gainerako eremuetan.

Deigarria da Bilbo Metropolitarran eta, neurri txikiagoan, Donostia-Beterrin desindustrializazio-prozesua finkatzea, izan ere industriako enplegua % 20tik beherakoa baita. Bestalde, zerbitzuen pisua % 50etik beherakoa da Debabarrenan, Debagoienan, Goierri eta Arabako Errioxan.

Industriako eta eraikuntzako enplegu-koefiziente txikia dago Bilbo Metropolitarrak Araba Erdialdeak eta Donostia-Beterrin baino jarduera eta enplegu maila txikiagoak izatearen jatorrian. Bilbo Metropolitarrako eremuaren merkataritza- eta finantza-zentraltasunak ez du konpentsatzen oraindik, enpleguari dagokionez bederen, industrian duen pisu erlatibo txikiagoa.

Kualifikazio handieneko sektoreek enpleguan duten inpaktuari dagokionez, 2005eko datuek adierazten dute enpleguaren % 11,7 Eurostat agentziak goi-mailako kualifikazio eta teknologiatzat definitzen dituen sektoreetan kontzentratzen dela, % 22,9 goi-mailako prestakuntzako sektoreetan eta % 28,8 intentsitate kognitiboko osagai handia duten sektoreetan. Aurreko sektoreetako bat edo beste, hots, goi-mailako kualifikaziokotzat jo genitzakeenak, batera kontuan hartuta, gaur egun EAEko biztanleriaren % 38,5 mota horretako sektoreetan lanean ari dela egiazta dezakegu.

Goi-mailako kualifikazioko sektoreetako enpleguaren banaketaren pisu erlatiborik handiena Debagoieneko eta Bilbo Metropolitarrako eremuetako biztanleria landunaren artean aurki daiteke, batez ere Eskuinaldeko udalerrietan (% 49,0 eta % 46,1, hurrenez hurren). Mailak % 37 eta % 39 bitartekoak dira Araba Erdialdean, Mungian, Donostia-Beterrin, Toloserrian eta Debabarrenan. Proportzioa % 32 eta % 34 bitarteko mailetara jaisten da Aiaran eta Durangaldean.

Termino erlatiboetan, honakoak dira 1993 eta 2001 artean enpleguaren gehikuntza kontzentratzen duten jarduera-adar nagusiak (parentesi artean adierazi dugu gehikuntza horretan dagokien parte-hartze erlatiboa):

- * Enpresentzako zerbitzuak (% 19,8).
- * Merkataritza (% 12,4).
- * Metalaren sektorea, metalurgia eta makineria, material elektrikoa edo garraio-materiala eraikitze industria barne (% 11,9).
- * Eraikuntza (% 11,8).
- * Osasun arloa eta gizarte-zerbitzuak (% 9,9).
- * Garraio eta komunikazioen adarra (% 8,1).
- * Hezkuntza (% 6,5).
- * Gainerako merkataritza-zerbitzuak (% 6,4).
- * Ostalaritza (% 5,8).

Osorik hartuta, adar horiek kontuan hartutako aldiaren hedatu diren adarrei (denak, lehen sektoreko adarrak, elikagaien industria, produktu ez-metalikoen produkzioa eta gainerako manufaktura-industriak izan ezik) dagokien enplegu-gehikuntza osoaren % 92,6 ordezkatzeko dute.

Modu agregatuagoan, hazkundera berez kasuen % 88,9an bost sektore handitan kontzentratzen dela egiazta dezakegu:

- * Merkataritza, ostalaritza, merkataritza-zerbitzuak eta etxeko zerbitzuak: guztiaren % 26,2.
- * Enpresentzako zerbitzuak: guztiaren % 19,8.
- * Zerbitzu publiko handiak (administrazioa, hezkuntza, osasun arloa eta gizarte-zerbitzuak): % 19,3.
- * Metala: % 11,9.
- * Eraikuntza: % 11,8.

2001 eta 2005 artean, enpleguaren hazkunde gehiena hiru arlo handitan kontzentratzen da: alde batetik, merkataritza eta gainerako merkataritza-zerbitzuek enplegu-gehikuntzaren % 35,3 hartzen dute; bestetik, hezkuntzako, osasun arloko eta gizarte-zerbitzuetako adarrek % 22,7 hartzen dute; eta, azkenik, enpresentzako zerbitzuek % 18. Eraikuntzaren eginkizuna ere garrantzitsua da (enplegu-gehikuntzaren % 9,7), baita garraio eta komunikazioena ere (% 8,7). Metalak, ordea, aldi horretako enplegu garbi berriaren % 2,2 besterik ez du ekartzen.

1993 eta 2005 artean, enpleguak gora egiten du euskal ekonomiaren sektore guztietan, lehen sektorean izan ezik, enpleguaren % 18,5 galtzen du-eta. Gehikuntza erlatiborik handiena eraikuntzaren sektoreari dagokio, % 58,8 gehitzen baitu bere enplegua, zerbitzuen sektorearen % 50aren eta industriaren %17,7aren gainetik.

Adierazitako aldeak hautemandako hazkunde-joerei lotzen zaizkie neurri handi batean. Horrela, industriak eta nekazaritzak enplegu garbia galtzen dute 2001. urtetik aurrera, 1997 eta 2001 artean nekazaritzako enpleguan geldialdia baina industrian % 13,5eko hazkunde garrantzitsua izan ondoren; eraikuntzak eta zerbitzuek, ordea, enplegu berria sortzeko oso eritimo altuak mantentzen dituzte, beti % 10etik gorakoak 1993-2005 aldi osoan zehar. Alabaina, eraikuntzaren hazkundera mantsotu egiten da azkeneko lau urteetan, % 12,5eko hazkundearekin, 1993-1997 aldiko % 13,3ren antzekoa, baina 1997 eta 2001 artean erregistratutako % 24,6 baino nabarmen txikiagoa; zerbitzuetan, aldiz, guztiz kontrakoa gertatzen da, hazkunde-eritimoak gora egiten baitu: 1993-1997 aldiaren % 11,7, 1997-2001 aldiaren % 14,8 eta 2001-2005 aldiaren % 17.

Ekonomiaren sektore indartsuenean enpleguaren hazkundera azeleratu egin bada ere, oso bestelakoa da azkeneko urteetan gainerako sektoreetan

hautematen den joera negatiboa. Hala, lehen sektorean 1997. urtetik aurrera antzemandako hazkundearen beherakada nabarmenari 2001. urtetik aurrera industrian eta are eraikuntzan ere hautemandakoa gehitzen zaio.

Izan ere, sektore horretan besterik ez dira izan aldekoak azkeneko lau urteetako emaitzak, zeren nekazaritzan eta industrian enpleguaren hazkunde-eritmoak ez ezik enplegu-mailek berek ere egin baitute behera.

Datu global horiek gorabehera, enplegu-mailak oso neurri handian hedatu dituzten adarrak ere badira industrian. Hain zuzen ere, makineria eraikitzekeo industrian enplegu garbiak % 82,9 egin du gora, garraio-materialekoan % 42 eta industria petrokimikoan % 34,8. Halaber, kautxuaren industrian (% 22,4) eta energia-produkzioan ere (% 17,7) enpleguak nabarmen egin du gora. Hala eta guztiz ere, industria petrokimikoan izan ezik, non enplegua % 20,4 igotzen baita 2001 eta 2005 artean, gainerako kasuetan aldi horretan geldialdia izan dela edo enpleguak behera egin duela antzematen da. Beherakada funtsezkoa da, gainera, makineriaren eraikuntzan eta energia-produkzioan.

Gainerako industria-adarretan, enplegu-hazkundera % 10era hurbiltzen da edo arinki gaintzen du zifra hori erauzketa-industrietan eta metalurgian, eta azkeneko adar horretan joera aski goranzkoa erakusten du gainera (1993-1997 aldian % 3,1 jaitsi ondoren, enplegua % 6,4 igotzen da adar horretan 1997-2001 aldian eta % 8 2001 eta 2005 aldian). Enpleguaren geldialdia edo beherakada, ordea, elikagaien industriaren, paper-industriaren, gainerako industria ez-metalikoen, askotariko manufaktura-industrien eta material elektrikoaren produkzioaren bereizgarri da 1993 eta 2005 artean. Ia adar horietan guztietan, joera hori enpleguak azkeneko lau

urteetan izandako beherakada handiarekin lotzen da, 1997-2001 aldian ia adar guztietan antzemandako bilakaera onarekin kontrastatuz.

Lehen sektorean, azkenik, nekazaritzak zein arrantzak enpleguaren beherakada dute bereizgarri. Enpleguaren beherakada 1997. urtetik aurrera hasten da arrantza-sektorean eta 2001-2005 laurtekoa arte atzeratzen da nekazaritzan.

Biztanleria landunaren bilakaera sektorialaren lurralde-analisan, zerbitzuen sektorean lan egiten duen biztanleriaren eta gainerako ekonomian lan egiten duenaren bilakaerak bereiz aztertzea komeni da.

Gainerako sektoreetan, enpleguaren hazkundera nabarmen aldatzen da EAEko eremu batetik bestera. Alde batetik, enplegu-hazkunde handiak hautematen dira 1993-2005 aldian Araba Erdialdeko eta Aiarako eremuetan (enpleguaren hazkundera % 30etik gorakoa da), Durangaldean (% 33,3) eta Donostia-Beterriko (% 28,7) eta Toloserriko (% 34,4) eremuetan. Alabaina, hazkundera zerbitzuen sektoreari dagokiona baino txikiagoa da beti. Enpleguaren hazkundera EAEko batez bestekoaren azpitik kokatzen da Debagoieneko eremuan, % 20ko mailaz behetik jaisten baita (% 17,5). Askoz ere beherago daude Bilbo Metropolitarrak eta Debarrena, ozta-ozta gaintzen baitituzte % 10eko hazkunde-mailak (% 11,6 eta % 12,1, hurrenez hurren), eta baliorik txikiena Mungiarri dagokio (% 5,1).

Adierazitako bilakaera baldintzatu egiten du 2001 eta 2005 artean zerbitzuko ez bestelako sektoreetan lan egiten dutenen kopuruaren beherakada ia orokorrak, Aiaran, Durangaldean eta Toloserrian besterik ez baitu gora egiten enpleguak. Beherakada kezkarria da, Euskal Autonomia Erkidegoko eremu gehienetan eten egiten baitu 1993 eta 2001 artean zerbitzuko ez bestelako sektoreetan enplegua pixkanaka hedatzeko joera.

Hala gertatzen da Araba Erdialdeko, Bilbo Metropolitanarreko, Donostia-Beterriko eta Debagoieneko eremuetan.

Beste eremu batzuetan, Bilbo Metropolitanarrean, Mungian eta Debabarrenan gertatzen den moduan, azkeneko lau urteetako beherakadak eten egiten du, 1993-1997 aldian enplegu arloan emaitza negatiboak edo hazkunde mugatua izan ondoren, 1997 eta 2001 artean izan zen susperraldi gogorra. Izan ere, zerbitzuko ez bestelako sektoreetan oraindik ere enplegu-hazkundeari eusten dioten eremu batzuetan azkenaldiko bilakaera ez da guztiz aldekoa, sektorearen bizitasun-galerarako joera ia etengabea islatzen baitute. Ildo horretan, Aiaran edo Toloserrian enplegu-hazkundearen datuek hazkunde-mailak arian-arian behera egiten ari direla islatzen dute (1993-1997 aldiko % 14tik 2001-2005 aldiko % 6,2ra Aiaran; % 15,7tik % 6,1era Toloserrian). Durangaldean besterik ez da aldaketa positiboa antzematen bilakaerari dagokionez, enplegua % 12,7 hazi baita, 1997 eta 2001 artean izandako % 0,8ko beherakadarekin kontrastatuz.

Donostia-Beterriko salbuespen bakarrarekin, zerbitzuko ez bestelako sektoreetan enplegu-hedapen handiena izan duten eremuetan enpleguaren hazkunde metalaren sektoreari lotzen zaio nagusiki: baliorik txikiena, % 52,5, Aiaran aurki daiteke, % 65 inguruko mailak Araba Erdialdean eta Durangaldean eta % 75,9 Toloserrian. Donostia-Beterriko, aitzitik, erabakigarria da enpleguak eraikuntzaren sektorean izan duen gorakada, enplegu berriaren % 43,1 hartzen baitu, eta kontuan hartutako beste eremuetan zifrarik handienak ez dira % 27,3tik pasatzen (Araba Erdialdean). Donostia-Beterriko deigarria da, halaber, beste industria-adar batzuei dagokien % 14,1a, hori ere baliorik handiena baita kontuan hartutako eremuen artean.

Bitarteko hazkunde-maila (baina EAeko batez bestekoa baino txikiagoa) duten eremuetako egoeraren elementurik bereizgarriena enplegu-gehikuntza sektore handi bakar batean kontzentratzean datza. Hala gertatzen da eraikuntzarekin Bilbo Metropolitanarrean (enplegu berriaren % 70 baino gehiago eraikuntzaren sektorean) eta metalaren adarrekin Debagoienan (enplegu berriaren % 81,8). Debabarrenan, bestalde, metalak kontzentratzen du ia enplegu berri guztia (% 86,7).

Zerbitzuko ez bestelako adar multzoetan izandako enplegu gehikuntzaren eremuen arabera banaketa aztertuta, Euskal Autonomia Erkidego osorako hainbat datu interesgarri azpimarra ditzakegu, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko eremu gehienetan bizi izan den esperientzian islatu den enpleguaren atzerakada orokorra bereizgarri duen lehen sektorea alde batera utzita.

Aldi horretan enpleguaren hazkundean gutxien laguntzen duten adarrak eta sektoreak abiapuntutzat hartuta, ikus daiteke manufaktura-industrian — 1993 eta 2005 artean bilakaera globalki negatiboa izan duen sektorea — aldi horretako enplegu-hazkundearen % 71,5 —enplegu berriak sortzeko ahalmena duten eremuetan — Bilbo Metropolitanarreko eta Donostia-Beterriko eremuetan kontzentratzen dela (% 32,8 eta % 38,7, hurrenez hurren). Donostia-Beterriko pisu erabakia du gainerako manufaktura-industrietan ere; sektore horrek enplegu-sorrera gordin positiboa erakusten du 1993 eta 2005 artean (guztizkoaren % 9,5 hedatu diren sektore eta adarren multzorako). Enplegu berrien % 35,2 eremu horri dagokio, eta Mungiako eremuari % 30,3.

Sektore eta adar hedakorren barruan, eraikuntzak zerbitzuko ez bestelako sektoreetako enplegu berri osoaren % 45,2 hartzen du globalki. Kasu horretan berriz ere Donostia-Beterriko eta Bilbo Metropolitanarrak

gehikuntzaren zati handiena kontzentratzen dute, enplegu berriaren % 51,8 biltzen dute-eta.


Metalaren sektorean, zerbitzuko bezelako sektoreen artean enplegu berri gehien sortzen duena, enplegu berriaren % 45,3 hartzen baitu, eremuek betetzen duten eginkizuna orain arte adierazitako bezelakoa da. Horrela, Donostia-Beterrik enplegu berrirako ekarpen erabakigarria egiten badu ere (guztizkoaren % 17,6), kasu honetan Araba Erdialdeko eremua da lehen tokietan dagoena, enplegu berriaren % 26,9 hartzen baitu, eta proportzio hori % 30,5era igotzen da Arabako eremu guztiak kontuan hartzen baditugu. Toloserriak, Goierriak eta Debagoienak ere pisu erabakigarria dute esparru horretan, enplegu berriaren % 24,4 kontzentratzen baitute (% 15,8 eta % 8,5, hurrenez hurren), Durangaldeko % 14,4ko datu altuaren gainetik.

Goi-mailako kualifikazioko sektoreetan enpleguaren hazkundeak duen garrantzi diferentziala azpimarratzea merezi duen datua da. Enplegua % 63,1 hazi da sektore horietan 1993 eta 2005 artean, eta gainerako sektoreetan % 27. Hazkunde handiena goi-mailako prestakuntzarekin erlazionaturako sektoreetan izan da, horietan enplegua % 79,5 igo baita, intentsitate kognitibo handiko sektoreen (% 70) eta goi-teknologiako sektoreen (% 62,5) gainetik.

Goi-teknologiako sektoreen hazkunde txikiago hori ez litzateke kezkarria, baldin eta 2001. urtetik aurrera joera-aldaketa garrantzitsu bat izan dela islatuko ez balu. Hala, 1993 eta 2001 artean metatuz hazi ondoren, izan ere aldi horretan EAEko enpleguaren hazkundearen buru izan baitziren, 2001 eta 2005 artean sektore horiek % 0,3ko enplegu-beherakada islatzen dute, aurreko aldietako % 25etik gorako gehikuntzekin kontrastatuz. Beherakada hori, halaber, 2001 eta 2005 artean goi-mailako kualifikazioko gainerako sektoreetan antzematen diren % 20tik gorako hazkundeekin kontrastatzen da.


Eremu guztietan 2001-2005 aldian goi-mailako kualifikazioko sektoreetan enpleguaren igoerak mantentzeko joera badu ere, nabardura batzuk adieraztea komeni da. Ildo horretan, Bilbo Metropolitarran eta Mungian besterik ez da mantentzen hazkunde-erritmoak lau urtez behin igotzeko joera, nahiz eta esan daitekeen Donostia-Beterrin ere oso hazkunde-erritmo handiak mantentzen direla eta Toloserrian mota horretako enpleguaren hazkundera nabarmen suspertu dela azkeneko lau urteetan. Gainerako eremuetan, aitzitik, 1997-2001 aldiaz geroztik hazkunde-erritmoek behera egin dutela ikus daiteke; beherakada bereziki garrantzitsua izan da Durangaldeko eta Debabarreneko eremuetan.

Enkartazioetako produkzio-egitura. Oinarrizko produkzio-sektoreetako biztanleria aktiboaren %




Iturria: INE, 2001

Goierriko produzko-egitura. Oinarrizko produzko-sektoreetako biztanleria aktiboaren %




Iturria: INE, 2001

Donostia-Beterriko produzko-egitura. Oinarrizko produzko-sektoreetako biztanleria aktiboaren %




Iturria: INE, 2001

Bilbo Metropolitarrako produzko-egitura. Oinarrizko produzko-sektoreetako biztanleria aktiboaren %




Iturria: INE, 2001

Durungaldeko produzko-egitura. Oinarrizko produzko-sektoreetako biztanleria aktiboaren %




Iturria: INE, 2001

Debabarreneko produkzio-egitura. Oinarrizko produkzio-sektoreetako biztanleria aktiboaren %




Iturria: INE, 2001

Arratiako produkzio-egitura. Oinarrizko produkzio-sektoreetako biztanleria aktiboaren %




Iturria: INE, 2001

Bustualdea-Artibaiko produkzio-egitura. Oinarrizko produkzio-sektoreetako biztanleria aktiboaren %




Iturria: INE, 2001

Arabako Errioxako produkzio-egitura. Oinarrizko produkzio-sektoreetako biztanleria aktiboaren %




Iturria: INE, 2001

Aiarako produkzio-egitura. Oinarrizko produkzio-sektoreetako biztanleria aktiboaren %




Iturria: INE, 2001

Mungiako produkzio-egitura. Oinarrizko produkzio-sektoreetako biztanleria aktiboaren %




Iturria: INE, 2001

Debagoieneko produkzio-egitura. Oinarrizko produkzio-sektoreetako biztanleria aktiboaren %




Iturria: INE, 2001

Toloserriko produkzio-egitura. Oinarrizko produkzio-sektoreetako biztanleria aktiboaren %




Iturria: INE, 2001


Araba Erdialdeko produzko-egitura. Dinarrizko produzko-sektoreetako biztanleria aktiboaren %




Urola-Kostako produzko-egitura. Dinarrizko produzko-sektoreetako biztanleria aktiboaren %



Nekazaritza-ustiapenen bilakaera (1997-2005)



Laboratutako azalaren bilakaera (1997-2002)



b.10. Lehen sektorea

Adierazi dugun moduan, Euskal Autonomia Erkidegoko lehen sektorea, ekonomia garatu guztietan gertatzen den bezalaxe, pisu ekonomikoa eta enplegua etengabe galtzen ari da zenbait urtez geroztik eta, urteko gorabehera jakinekin, prozesua erabat amaitu gabe dagoela dirudi.

2006. urtean, lehen sektoreak EAEko prezio korranteetako BPGaren % 0,87 besterik ez zuen ordezkatzeko (2005. urtean baino 4 ehunen gutxiago), eta enplegu osoaren % 2,7. 2005. urtearen eta 2006. urtearen artean, EAEn lehen sektoreko BPGa % 1,3 hazi da eta enplegua % 0,8. Alabaina, Gizarte Segurantzako afiliazioaren urte amaierako datuek % 3,1eko gutxitzea erakusten dute, eta antzeko bilakaera azaltzen dute nekazaritzaren azpisektorerako, afiliazioa % 3,2 gutxitzen baita, eta itsas langileen erregimen bereziari dagokiona ere % 2,9 jaisten da.

b.10.1. Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren azpisektorea

Euskal Autonomia Erkidegoko lehen sektorearen pisu erlatiboaren galera horrekin batera, aldaketa garrantzitsuak izan dira sektorearen beraren barne-egiturari: abeltzaintzaren azpisektorearen pisu erlatiboa atzera egiten ari da pixkanaka nekazaritzaren azpisektorearen mesedetan, eta azkeneko honek lehen tokia kendu dio hari. 80ko hamarkadaren hasieran, abeltzaintzaren azpisektorearen nekazaritzako azken produktorako (NAP) ekarpena % 50 ingurukoa zen eta nekazaritzarena % 25 ingurukoa. Gaur egun, terminoak alderantzikatu egin dira: abeltzaintzak nekazaritzari utzi dio bere tokia. Nekazaritzak batez ere mahastiarena bezalako produkzio jakin batzuei esker igotzen da lehen toki horretara, mahastiaren garrantzi

ekonomikoa, balioari dagokionez bederen, behi-esnearenaren antzekoa izatera iritsi baita. Basogintzaren sektoreak ere pisua galdu du 1998. urtean maximo historikoa lortu ondoren, eta NAParen % 16 inguruan kokatu da.


Biztanleria landunari dagokionez, aurreko hamarkadetan izandako exodoa gorabehera (BJAren arabera, 1985-1992 aldian 3 enplegutik 1 galtzen da), biztanleria landunaren gutxitzea garrantzitsua izan da azken hamarkadan: EAE osoan 1990-2003 aldian lehen sektoreko enplegua % 21,8 gutxitzen da (urteko % 1,6ko erritmoan). Euskal Autonomia Erkidegoko lehen sektorearen enplegu-ahalmenaren galera bere atzerakadaren eta pisu ekonomikoren galeraren ondorio ez ezik, neurri handi batean bere barneko produkzio-egiturari izandako aldaketan (abeltzaintza intentsiboaren pisu-galera) eta bere modernizazioaren eta gero eta profesionalizazio handiagoaren ondorio ere bada.

Alabaina, lehen sektoreko biztanleria landunaren gutxitze garrantzitsu horrek ez du giza kapitalaren inongo gaitzakerik ekarri, guztiz kontrakoa baizik, jarduera bertan behera utzi dutenak gehiago izan baitira gazteak adin handiagokoak baino.

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza eta abeltzaintzako eta basogintzako sektorearen BPGrako ekarpena 1990. urtean % 1,4 ingurukoa izatetik 2006. urtean % 0,87 izatera igaro da. NAParen balioaren (termino korranteetan neurtua) bilakaera goranzkoa da 1999. urtean balio maximoa lortu arte, eta hortik aurrera beherakada edo balio-galera erakusten du, gaur arte iristen dena eta urteko % 5eko kopuruan zehatz daitekeena.

EEEri atxikitzeak eta, horren ondorioz, nekazaritzako politika bateratua (NPB) aplikatzeak, eragin erabakigarria du nekazaritza eta abeltzaintzako sektorearen bilakaeran. Diru-laguntzek nekazaritzako errentaren % 2,7

LEHEN SEKTOREKO BIZTANLERIA



ordezkutzen zuten 1990. urtean eta % 19 inguru 2003. urtean. 1992tik eta 1999tik aurrera gertatzen dira igoera nagusiak NPbaren hurrenez hurrengo erreformak aplikatzearen ondorioz jasotako diru-laguntzen bolumenean. NPbaren laguntza-politikak ez ditu modu berean tratatzen nekazaritzako produktu guztiak, izaera sektorialeko zein lurralde arloko distortsio garrantzitsuak sartzen ditu. Hala, Araban, 1990. urtean nekazaritzako errentaren % 3,6 diru-laguntzetatik zetorren eta 2001. urtean proportzio hori % 21era igotzen da; Gipuzkoan, ordea, proportzioa % 2,2koa zen 1990. urtean eta % 13,6koa 2001ean. Bizkaian proportzioa % 9koa da 2001. urtean (alde horren zergatikoa baratzezaintzak lurralde historiko horretan duen pisu handiagoan egon daiteke beharbada, NPbak laguntza gutxien ematen dien sektoreetako bat da-eta).

Lurralde-mailan, euskal nekazaritza bi eremu geografiko handitan azpizatitzen denez (kantauriar eremua, abeltzaintzara eta basogintzara zuzendua, eta Arabako gainerako lurrak, nekazaritzara bideratuak), aldaketa sektorialek lurralde-aldaketak ekartzen dituzte. 1990. urtean, Bizkaiak NPbaren zati handiena kontzentratzen zuen (% 39), Arabak herena gutxi gorabehera eta Gipuzkoak % 29. Hamarkada bat beranduago, lurralde-banaketa horrek aldaketa nabarmena erakusten du, Arabak lehen tokia kendu baitio Bizkaiari. Aldakuntza hori Arabako mahastizaintzako eta ardogintzako sektoreak joan den hamarkadaren erdialdeaz geroztik hartzen duen garrantzi gero eta handiagoaren ondorio da (EAEko nekazaritzako azpisektore nagusia izatera igaro da). Horrekin batera, beste bi lurraldeetan abeltzaintzako produkzio garrantzitsuenek pisua galtzen dute, baita basogintzako produkzioak ere 1998. urtetik aurrera.

Lurralde-mailako aldaketak ez dagozkio soilik lurralde historiko bakoitzak NAPari egiten dion ekarpenari. Aitzitik, hurrenez hurrengo barneko produkzio-egituren aldaketa gutxi-asko garrantzitsuak ekartzen dituzte.

Arabako NAPa nekazaritzakoa izan da gehienbat eta hala da oraindik ere, nekazaritzako produkzioaren NAPEko parte-hartzea % 70 inguruan mantendu baita aldi horretan, nahiz eta laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran gora egiten duen 1999. urtean maximoa lortu arte (% 84), mahatsaren prezioek Arabako Errioxan izandako hazkunde ikaragarriaren ondorioz. Alabaina, Arabako nekazaritzako beste produkzio tradizional batzuek, zerealak, patatak edo erremolatxak esate baterako, portaera apalagoak eta zenbaitetan okerragoak izan dituzte. Abeltzaintzak (% 20) eta basogintza-jarduerak (% 6-7) beste bi lurraldeetan baino askoz ere garrantzi txikiagoa dute. Bizkaian eta Gipuzkoan, abeltzaintzako azpisektoreak nagusitasunari eusten badio ere, portaera nolabait ere dibergenteak antzematen dira: Bizkaian abeltzaintzak pisu erlatiboa irabazten du (% 36tik % 42ra igarotzen da) eta Gipuzkoan, aldiz, galdu (% 61etik % 53ra igarotzen da). Behi-esnea da abeltzaintzako produkzio nagusia bi lurralde historikoetan eta haragitarako behi-aziendaren produkzioa, goraldi garrantzitsua izan ondoren, egonkortu egin da. Nekazaritzako produkzioei dagokienez, Bizkaian baratzezaintza intentsiboa nabarmen daiteke eta Gipuzkoan mahastiaren (txakolina) hazkundera da azpimarragarria, NAParen % 11raino igo baitu bere pisu erlatiboa. Basogintzako azpisektoreak pisu pixka bat galtzen du Bizkaian eta Gipuzkoan eutsi egiten dio bere garrantzi erlatiboari.

Nekazaritza eta abeltzaintzako sektorearen aldaketa eta gainbeherako prozesuei lotutako beste lurralde-ondorio bat laboratutako azalerari eta nekazaritza-ustiapenen kopuruari dagokie.

1989 eta 2005 artean EAEko nekazaritza-ustiapenen kopurua % 50 baino gehiago gutxitu da: 43.000tik 21.000ra. Galera horren zatirik handiena azkeneko urteetan gertatu da, Bizkaian batik bat, non galera % 54koa izan baita eta beheranzko joerak jarraitu egiten du artean. Gipuzkoan, aldi

horretako galera osoa % 44koa da eta azkeneko urteetan hazkunde arina izan dela ikus daiteke, ziur asko txakolin-mahastien igoeraren ondorioz. Araban ustiapen kopurua % 48 gutxitu da eta joera are gehiago gutxitzekoa da. Azalerrari dagokionez, galerak ez dira hain handiak, baina garrantzitsuak dira. Horrek adierazten du ustiapenak berregituratzen ari direla, eta sortzen diren tamaina handiagoko ustiapenek jarduera uzten dutenen lurra hartzen dituztela, zati batean bederen. Dena den, 1989 eta 2005 artean ustiapenen azalera guztira % 30 gutxitu da EAE osorako. Galera handienak Araban gertatzen dira, azalera % 35 gutxitzen baita, eta Bizkaian eta Gipuzkoan % 27 ingurukoak dira. Litekeena da produkzio-orientazioetan eta lurra erretiratzean oinarritzen diren egungo laguntza-sistemak aurki kentzeak eragin berezia izatea Araban, batez ere Lautadako eskualdean. Beraz, pentsatzekoa da lurralde horretan ustiapen kopuruak zorrozki egingo duela behera, baina, halaber, merkatu irekiagoen politika berriak aukera sortzen du merkataritza-orientazioko eta errentagarritasun-ahalmen handiko ustiapen handiak taxutzeko elikagaien merkatuaren testuinguru berrian. Prozesu horrek zailtasun handiagoak ditu Gipuzkoan eta Bizkaian, ez baitituzte nazioarteko merkatuetarantz orientatutako ustiapen handiak taxutzeko baldintza fisikoak betetzen. Gainera, bereziki nabaritutako dituzte esne-produkziorako babesak amaitzearen ondorioak. Kalitateko produktuak (ardoak, barazkiak, lekaleak eta gaztak) izango dira lurralde horietako nekazaritza-paisaiaren funtsezko elementuak. Izan ere, nekazaritzako enpresaburuek beren ustiapenetarako behar adinako dimentsio ekonomikoa lortzeko ahalmena edukitzea izango da gakoa.

Arabako nekazaritzako produkzio nagusiei dagokienez, labore-lurren azalera egonkor mantentzen da, nagusiki araututako laboreak direlako. Patataren azalera % 80 gutxitu da azkeneko hamarkadan eta erremolatxarena % 35, baina igoera garrantzitsuak izan dituzte dagozkien errendimenduetan.

Mahastizaintza da euskal nekazaritzaren jarduera garrantzitsuena, zeren berak bakarrik 2003. urtean EAEko NAParen % 12 ordezkaten baitzuen, eta nekazaritzari bereziki dagokion azken produkzioaren % 28.

Mahastien azalera landatua nabarmen hazi da, bai Arabako Errioxa jatorri-deitura kalifikatuari (JDK) dagokiona, bai txakolinari dagozkion hiru jatorri-deiturei dagokiena. Azkeneko horien kasuan hazkundea termino erlatiboetan benetan ikusgarria izan bada ere, txakolin-mahatsondoan azalera oso garrantzi erlatibo txikia du EAEko mahastien azalaren osotasunean (12.000 ha-tik gora Arabako Errioxako mahasti eta 400 ha inguru txakolin-mahasti). Arabako Errioxa jatorri-deitura kalifikatuaren produkzioak goranzko joera izan du, nahiz eta gorabehera jakin batzuk izan uza bakoitzak jasan dituen baldintza meteorologikoen ondorioz. Txakolinari dagokionez, produkzio txikiak izan arren, hazkunde bikainak izan ditu produkzioan, azalera handiagoa laboratu izanari eta sartutako produkzio-hobekuntzei esker. Gainera, merkaturatzen harrera bikaina duten produkzioak dira, nahiz eta produkzioaren bolumen urriaren ondorioz ia EAEko lurraldean bakarrik merkaturatu.

Abeltzaintzan behi-aziendaren beheranzko joera mantentzen da, eta abelburuak esnetarako behi-azientatik haragitarako behi-azientara aldatu dira. Araba da guztizko kopuruak gora egin duen lurralde bakarra (% 34 igo da), Gipuzkoan azienta ozta-ozta mantentzen da (% 2 jaitsi da 1990-2003 aldian) eta Bizkaian % 21 jaitsi da. Jarduera batetik bestera aldatze hori abeltzain askok esne-produkzioa utzi izanaren ondorio da. Izan ere, askok guztiz edo zati batean utzi dute esne-jarduera eta horren ordez haragitarako behi-azientari ekin diote, ez baitio hainbeste eskatzen dedikazio txikiagoa duten abeltzainei. Zenbaitetan trantsizio hori jarduera behin betiko utzi aurreko urratsa izaten da. 1990. urtean zeuden 13.389 ustiapenetatik 2.500 baino gutxiago geratzen dira 2003. urtean, eta horien % 65ek 10 abelburu

baino gutxiago dituzte (marjinalizat jo litezke beraz) eta 20 abelburu baino gehiagoko ustiapenak 600 ere ez dira (% 24).

Gaur egun 5.000 ardi-ustiapen baino gehiago daude EAEn (oso tamaina desberdinetako artaldeekin). Ustiapen horien erdiak Gipuzkoan daude, % 36 Bizkaian eta % 13 Araban. Ustiapen kopurua modu aski uniformean hazi da hiru lurralde historikoetan (% 20-25). Hazkunde hori ustiapen handien (600 abelburu baino gehiago) eta txikien (100 abelburu baino gutxiago) artean polarizatu da. Gipuzkoan gaur egun 600 abelburu baino gehiagoko zortzi artalde daude, eta 1990. urtean ez zegoen bat ere. Ustiapen gehienak beheko geruzan kokatzen dira (100 ardi baino gutxiago): EAeko ustiapen guztien % 88 izango liriteke. Ehuneko hori handiagoa da Bizkaian (% 92) eta Gipuzkoan (% 90). EAE osoan 100 abelburu baino gehiagoko 600 artalde besterik ez daude, eta 200 abelburu baino gehiagoko 250 baino gutxi batzuk gehiago. Euskal ustiapenetako ardi kopuruak goranzko nolabaiteko joera erakusten du (% 16ko igoera), Bizkaian eta Gipuzkoan azientak izandako hazkundeak eraginda. Araban, aitzitik, ardi kopurua % 10 gutxitu da 1990-2002 aldian. Artzaintza gazta egiteko esne-produkzioa bideratzen da batik bat. EAeko ardi-ustiapenen % 4,6 besterik ez da zuzentzen haragi-produkzioa (denak Araban kokatuak).

Azpimarratu beharra dago Eusko Labela duten produktuen garrantzi ekonomikoa, merkaturatutako bolumenaren balioaren arabera neurtua, bizkor hazi dela azkeneko hamarkadan. Alabaina, ulertzekoa den moduan, produktu guztiek ez dute garrantzi kuantitatibo bera. Haragitarako behi-azientaren produktoreak eta, ondoren, esneko arkumearenak dira kalitateko labelari neurri handienez atxiki zaizkionak. Izan ere, haragitarako behi-azientaren produkzioa da garrantzi kuantitatibo eta estrategiko handiena duena.

Eusko Label markari atxiki gabeko beste produkzio batzuk, baina kalitateko produktuen kategorian sartzen direnak eta produkzioarako nekazaritzako lurzorua erabilerara estentsibo eskatzen dutenak, Idiazabal gazta egiteko artzaintza (eta esneko arkumea, jarduera hori osatzen duen azpiproduktua) eta ardogintzarako, txakolingintzarako eta batez ere Arabako Errioxako mahastizaintzarako mahatsa dira.

b.10.2. Basogintzako azpisektorea

Gaur egungo baso-azalerak EAeko lurraldearen % 54 hartzen du, 390.000 hektarearekin, EBko ratio handienetakoa (Suediaren eta Finlandiaren atzetik). Estimazioen arabera, azkeneko mendean, eta bereziki bigarren erdian, Euskal Autonomia Erkidegoko zuhaitz-masa % 20tik % 54ra igaro da, basogabetze-egoera larria gaindituz.

Baso-azaleraren eta baso-ondarearen gehitzea baserriaren eta nekazaritza tradizionalaren krisialdiari loturik agertzen da. 50eko hamarkadatik aurrera landa-inguruetakoa hondar-lurretako asko basogintzako erabileretara bideratzen hasi ziren. Hori laguntza garrantzitsua izan zen landa-ekonomientzat eta, kasu askotan, ziur asko, gutxiegi erabiltzen ziren baliabideak optimizatzeko bidea, baita aurrezteko eta soberakina kapitalizatzeko ere. Nazioko eta nazioarteko egoera ekonomikoa mesedegarria gertatu zen fenomenoarentzat eta, horren babesean, basogintzako azalera eta jarduera garrantzitsuak garatu ziren.

Koniferoen landaketa berriak izango dira gaur egun dagoen basogintzako azalera eta ondare horren garapen handiaren erantzule nagusiak. 400.000 ha inguruko azalera *Pinus radiata* da nagusi, basogintzako azaleraren % 40 hartzen baitu eta ateratzen den zur-bolumenaren % 80-90 baitagokio.

Alabaina, azkeneko hamarkadetan zehar finkatu den eredu horrek ziurgabetasun handia erakusten du azkeneko urteetan, joan den hamarkadaren amaieraz geroztik prezioek oso beherakada handia izan baitute eta, gainera, zur-ateratzeen bolumenak atzerakada garrantzitsua izan baitu. Hori guztia larritu egiten du belaunaldien arteko hausturako testuinguruak, azken buruan birlandatzeen atzerakada eta absentismo-arriskua ekartzen baititu, finkatuz gero azkenean Euskal Autonomia Erkidegoko basogintzako ondare garrantzitsua higa lezaketenak.

Isurialde kantauriarrean antropizazio handieneko eremuak dira basogintzako azalera txikiena dutenak. Hala ere, Bilbo Metropolitarra basogintzako azalera erlatibo txikieneko da, eta azaleraren herena basogintzari dagokio. Beste muturrean Arratia, Aiara, Debagoiena eta Busturialdea-Artibai bezalako eskualdeak daude, % 70etik gorako basogintzako azalerarekin.

Basogintzako azaleraren banaketak agerian uzten du egitura duala dagoela. Alde batetik, beren eskuetan basogintzako azaleraren zati txiki bat besterik ez duten baso-ustiatzaile txiki asko; bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko basogintzako azaleraren zati handi bat kontzentratzen duten baso-ustiapen handi gutxi batzuk (mendi pribatuetako basogintzako batez besteko azalera 8,5 ha-koa zen). Gainera, nolabait ere zalantzan jartzen du oso hedatuta dagoen ideia bat, basogintzako jardueraren eta nekazaritza eta abeltzaintzako jardueraren eta baserriaren artean dagoen lotura estuarena, alegia, zeren basogintzako produkzio gehiena baserriarekin inongo zerikusirik izan gabe garatzen bide baita.

90eko hamarkadan, produkzioaren balioaren goranzko portaerarekin bat etorritik, zur-produkzioak etengabe egiten du gora ia hamarkadaren amaiera arte. 1997-1998an sabaia jotzen du eta hortik aurrera gaur egun arte iraun

duen beherakadari ekiten dio. Mozketen bolumenean izandako atzerakada hainbat faktoreren ondorio da (beste herrialde batzuetako zura sartzea, euroaren indarra, kostuak gehitzea). Faktore horiek zuraren prezioaren beherakada eragin dute eta basogintzako jarduera ahuldu egin da, baldintza hobeen zain.

b.10.3. Arrantza

Arrantza-politika bateratuaren erreformaren orientabideekin bat etorritik, Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza-ontzidiak arrantza-ahalmena selektiboki gutxitzeko oso prozesu garrantzitsua jasan du, bere ahalmena dauden baliabideetara egokitzeko. Horren adierazgarri, 1999-2005 aldian ontzi kopurua % 34,8 gutxitu da.

Arrantza tradizio handiko jarduera da Euskal Herrian, kostaldeko herri askotan garrantzi sozial eta ekonomiko handikoa. Erauzte hutseko jarduerak EAEko BPGaren eta enpleguaren % 1 inguruko ekarpena egiten du, baina arrantzaren garrantzi sozioekonomikoa datu horrek adierazten duena baino handiagoa da. Alde batetik, itsasoko enplegu bakoitzak EAEn 3,5 enplegu sortzen ditu transformazio-sektorean, arrantza arloko banaketako, ikerketako eta aholkularitzako sektoreak zenbatu gabe. Bestetik, arrantza-jardueraren kontzentrazio handiaren ondorioz, arrantzarekiko mendetasun handia duten zonak daude, non erauzteko jarduerak BPGaren % 7ko ekarpena egitera irits baitaiteke eta arrantzak oro har enpleguaren % 20 sortzen baitu.

Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza-sektorea (oinarri-portua EAEn 2005. urtean) 299 unitateko ontzidiak osatzen du. Ontzidiak 195.000 ZP-tik gorako potentzia du guztira eta 78.000 GT, eta 13 bat urteko batez besteko adina,

azkeneko urteetan egindako modernizazioaren isla. Ontzi horiek guztira 2.800 tripulatazailerik hartzen dituzte baxurako, freskotarako alturako, bakailao-ontzien eta atunontzi izoztaileen azpisektoreetan.

Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza-sektorearen azken bilakaera hainbat baldintzatzaile garrantzitsuren eraginpean dago. Adibidez, munduko merkataritzaren liberalizazioaren ondorioz arrainaren batez besteko prezioa gutxitzea; arrantzaguneak kontrolatzeko sistemen ondorioz eta arrantzagune tradizional batzuetako arrantza-baliabideen egoera kaskarraren ondorioz harrapaketak areagotzeko zailtasuna; baliabide berriak eskuratzeko zailtasuna; ustiapen-kostuen garestitzea, erregaien azkeneko igoerak are larriagotu duena; horiek guztiak, langile kualifikatuen urritasunarekin batera, itsasoko lana konparatiboki gutxi ordaintzen baita, egungo egoera eratzen laguntzen duten funtsezko elementuak dira. Euskal ontzidien urteko harrapaketak 200.000 tonatik gorakoak dira (2004. urtea). % 78 tunidoak dira, % 15 populazio pelagikoak eta gainerako % 7a Europako uretako (EB, Norvegia eta Svalbard) espezie demertsalak. Hegalaburra izan ezik, euskal ontzidiak ustiatzen dituen tunidoak ustiatzeko egoera optimoan daude, segurtasun-muga biologikoen barruan. Ezin da gauza bera esan Kantauriko antxoaz edo legatzaz. Artisau-arrantzako ontzidiak ustiatzen dituen kostaldeko stockek (esate baterako, itsaskiak, aingira eta *Gelidium*) merkataritza-interes nabarmena dute, baina garrantzi ekonomiko erlatibo txikia eta ezagutza-oinarri urria. Azkeneko urte hauetan, EAeko arrantza-portuetan lan egiten duten ontzien eta erabiltzaileen arrain-deskargak beheranzko joera erakutsi dute, hirugarren herrialdeetako arrain-inportazioek gora egin duten aldi berean. Arrantza-ontzidia biziki berriro da aldi horretan; ez, ordea, arrantzako produktuak manipulatzeko eta lehen aldiz transformatzeko, sailkatzeko eta bestelakoetarako lehorreko azpiegiturak, itsasertz kantauriarreko beste inguru batzuetan gertatu den bezala.

EAEn enkante-lonja duten arrantza-portuak Bermeo, Lekeitio, Ondarroa, Mutriku, Getaria, Donostia, Pasaia eta Hondarribia dira. Erosketa-mugimenduek erlazio logikoa dute deskargatutako bolumenekin. Hala, erosle kopuru handiena duten portuak Ondarroa (60 erosle handi eta ertain) eta Pasaia (40) dira, eta, askoz ere garrantzi txikiagokoak, Bermeo (6), Getaria (4) eta Hondarribia (3). Portu horiek EAeko arrantza-sektore osoak sortutako guztizko errentaren % 70 eta enpleguaren % 75 ordezkaten dute.

Arrantzako produktuak transformatzeko industriak oso ezarpen zabala du gure erkidegoko kostaldeko lurraldeetan, euskal portuen erauzketa-tradizio luzearen ondorioz. Arrain-kontserben industriak du protagonismo handiena transformazioko azpisektoreen artean. Jarduera hau, tradizio eta pisu handikoa, alde handiarekin da azpisektore nagusia, eta sektoreko produkzio eta enplegu guztiaren hiru laurden baino gehiago xurgatzen ditu; ondoren, eta urrun gainera, izozkien segmentua dago, eta azken tokian ketuena.

Euskal industriaren osotasunari dagokionez arraina transformatzeko industriaren parte-hartzea urria bada ere, ez baita % 1era iristen ez enpleguan ez sortzen duen balio erantsian, elikagaien industriaren osotasunari dagokionez badu bere garrantzia, 2003. urtean industria horretako landun guztien % 17 eta sortutako balio erantsi guztiaren % 14 hartzen baitzuen.

Munduko arrain-eskari gero eta handiagoaren eta erauzketa-arrantzak bizi dituen zailtasunen ondorioz, akuikultura da gaur egun eskari hori betetzeko aukera nagusia. Euskal Autonomia Erkidegoan akuikultura jarduera minoritarioa izan da historikoki. Hainbat arrazoi daude horretarako: batez ere, kostaldeko erabileren lehia handia, itsasertzeko lurzoru erabilgarri urria, baldintza ozeaniko eta meteorologikoak eta baldintza horietara egoki

daitezkeen espezieen urritasuna. Hala eta guztiz ere, itsas akuikulturako sektorearen aldeko apustu garrantzitsua egin da azken urteetan Euskal Autonomia Erkidegoan. Ildo horretan, hainbat jardun eta ekimen eraman dira aurrera eta, esate baterako, erreboiloa hazteko bi instalazio daude martxan. Hala ere, Kantauriko beste esparru batzuen aldean oso gutxi garatuta dagoen azpisektorea da.

b.11. Eraikuntzaren sektorea

Eraikuntzak sektoreak EAeko prezio korranteetako BPGaren % 8,1 ordezkutzen du 2006. urtean, 2005. urtean baino bi hamarren gehiago, eta enplegu guztiaren % 10 hartzen du gutxi gorabehera (98.532 lanpostu).

Adierazitako datu-iturriaren arabera, eraikuntza lehen sektorea izan da 2003 eta 2006 artean BPGaren hazkundeari dagokionez. Dena den, 2006. urtearen amaieraz geroztik dezelerazioa hautematen da hazkunde-erritmoan. Lizitazio publikoa da azkeneko urte hauetan gehien hazi den adarra, etxegintzaren gainetik.

Eremu funtzionalen arabera, jarduera horrek enpleguari dagokionez Enkartazioetan, Bilbo Metropolitarran eta Tolosan duen pisua nabarmentzen da, enplegu osoaren % 10etik gorako tasekin. Aitzitik, Debabarrena, Debagoiena, Mungia, Aiera eta Durangaldea ez dira landunen % 8ra iristen eraikuntzan.

Azkeneko urteetan, etxebizitza berrien eskaintzak etxebizitza babestuen eraikuntzan izandako igoera eta hasitako etxebizitza librean kopuruan izandako jaitsiera arina ditu bereizgarri. Zehazki, 2002 eta 2005 artean 20.730 etxebizitza babestu hasi dira guztira.


Bestalde, hasitako 47.100 etxebizitza libreak nabarmentzen dute jaitsiera txiki bat izan dela 1998-2001 aldian hasitako 52.160 etxebizitzaren aldean.

Etxebizitza babestuak eta etxebizitza libreak batera kontuan hartuta, 90eko hamarkadaren amaieraz geroztik etxebizitza berrien eraikuntzak gora egin duela eta, horrenbestez, mota horretako etxebizitzaren eskaintza handitu egin dela ikus daiteke.

Azkeneko datu erabilgarrien arabera, EAEn 2005. urtean etxebizitza librean prezioa 3.369 €/m² da, hots, salgai dauden etxebizitza babestuen prezio handiena (1.237,2 €/m²) baino 2,7 bider handiagoa. Bilakaerari dagokionez, eraikuntza berriko etxebizitza librean urteko aldakuntza-tasa % 16 izan zen 2005. urtean. Tasek pixkanaka behera egiten dutela egiazta daiteke, etxebizitza berri librean prezioaren hazkundera apurka atxikitzen ari den adierazgarri.

Bestalde, alokatzeko etxebizitza berrien eskaintza nabarmen markatzen du merkatu hori hain urria izateak. Izan ere, 2002 eta 2005 artean alokatzeko 4.125 etxebizitza babestu gehitzearen ondorioz, urtean alokatzeko eskaintako etxebizitzaren % 50 baino gehiago etxebizitza babestuak dira.

ERAIKUNTZAREN SEKTOREKO BIZTANLERIA



b.12. Industria-sektorea

Euskal industriak, eta, batez ere, oinarritzko metalikoak, eraikuntza metalikoak, makineria eta garraio-materiala (ontzizintza) bezalako jarduera batzuek, azkeneko bi hamarkadetan izan dituen eta sektore horretako enplegu-galerak eta industria-establezimenduen itxierak ekarri dituzten zailtasun larriak gorabehera, Euskal Autonomia Erkidegoa industria-eskualde garrantzitsua da oraindik ere, eta industria da bere kokaguneetako askoren oinarri ekonomikoaren osagai nagusia, euskal hiri-sistemaren gainean duen eragina ahaztu gabe. Industria-sektoreak EAEko balio erantsi gordin osoaren % 29,4 ordezkaten du 2006. urtean, 2005. urtean baino bi hamarren gehiago, eta enplegu guztiaren % 25,4 hartzen du (2005. urtean baino zazpi hamarren gutxiago).

Aurreko kapituluetan aurkeztu ditugun enpleguari eta balio erantsi gordinari buruzko datuek baieztapen horiek berresten dituzte. 1994. urteaz geroztik, aldeko testuinguruaren barruan, Euskal Autonomia Erkidegoak hazkunde-ahalmen nabarmena erakutsi du, bigarren sektorearen aurrerakadaren eta berritutako industria-ehunaren sendotasunean oinarrituta batik bat. Joan den mendearen azkeneko bi hamarkadetan izandako galera erlatiboak gorabehera, euskal industriak aberastasuna eta enplegua sortzeko ahalmen handia dauka oraindik ere. Horretan oso lagungarriak izan dira erakunde publikoek abian jarri dituzten industria-politikak, sektorialak eta horizontalak, denboraren arabera aldatu diren helburuekin (doitze-politikak, industria sustatzekoak, lehiakortasun-programak, teknologia sustatzekoak, etab.). Politika horietako asko Eusko Jaurlaritzak diseinatu ditu eta aldundien eta udalen laguntza izan du eginkizun horretan.


Baina Euskal Autonomia Erkidegoak azkeneko hamarkadetan egin duen ibilbidea, bereziki industria-krisialdia eta industria-ehun zaharraren

birmoldaketa, nabaritu egin dira bere ekonomiaren egitura sektorial eta produktiboan, zenbait aldaketa arin eragin dituzte-eta (hirugarren sektoreratze edo tertziarizazioaren aurrerakada eta industriaren beherakada, nahiz eta industria-espezializazio erlatibo handia izaten jarraitu). Halaber, lurraldeetan ere izan ditu ondorioak, euskal industriaren lokalizazio-jarraibideak aztertzean nabarmenduko den moduan.

b.12.1. Euskal industriaren egitura

Euskal Autonomia Erkidegoko egituraren eta lokalizazioaren azterketa "Sistemas productivos locales en la C.A. del País Vasco" (Ogasun eta Herri Administrazio Saila) argitalpenean eta 2000. urtean eguneratutako Euskal Industriaren Katalogoan bildutako informazioa oinarri hartuta egin da. Katalogatutako industria-establezimenduak 3.739 dira guztira eta 187.088 pertsonari ematen diete enplegua. Enpresa gehienak itsasertzeko probintzietan kokatzen dira. Bizkaian eta Gipuzkoan enpresa guztien % 43,8 eta % 40,1 kontzentratzen dira, hurrenez hurren, eta Araban kokatutakoak % 16,1 besterik ez dira. Alabaina, industria-enpleguaren banaketa bidezkoagoa da, Arabaren parte-hartzea guztizkoaren ia % 20raino igotzen baita, enpresa handi batzuen presentziari esker. Establezimenduaren tamainaren arabera enpresen banaketak gaur egun enpresa txikia nagusitzen dela nabarmentzen du, establezimenduen % 80,6k ez baitu 50 langile baino gehiago. Enpresa-atomismoa nabarmena da baina aldi berean nolabaiteko kontzentrazioa ere badago, zeren enpresa handiak eta oso handiak (251-500 langile eta 500 baino gehiago) baitira langile bolumen handiena biltzen dutenak (% 34,2). Enpresa handiaren protagonismo-galera, Bizkaian batik bat, krisialdiak eragindako industria-berregituratzeak ekarri dituen ondorioetako bat da.

ERAIKUNTZAREN SEKTOREKO BIZTANLERIA



Hiri-dentsitate txikieneko inguruetan industria-establezimendu txikia da nagusi. Izan ere, Arabako Errioxan eta Enkartzioetan lortzen ditu balio erlatibo handienak. Enpresa handiak, bestalde, presentzia handiagoa du Bilbo Metropolitarran, Debagoienan, Araba Erdialdean eta Donostia-Beterrin.

Adarren arabera banaketak metalurgiaren eta artikuluko metalikoen jardueren nagusitasun garbia erakusten du, enpresen % 35,6 eta langileen % 34,6 horietan dihardute-eta. Makineriaren sektorea da garrantziz bigarrena; enpleguaren eta enpresen % 16k garatzen dute jarduera hori. Urrunago daude garraio-materialaren, kautxu eta plastikoaren eta material elektrikoaren industriak, enpleguaren % 8,4, % 8,1 eta % 7,6 kontzentratuz, hurrenez hurren.

Industria berregituratzeko prozesuak ez ditu drastikoki aldatu aurreko lokalizazio-jarraibideak, baina aldaketa jakin batzuk sartu ditu. 1970eko hamarkadaren erdialdera ukazina zen Bizkaiko industriaren pisu handia, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen % 49,8 eta enpleguaren % 53,2 biltzen baitzuen. Ehuneko horiek gaur egun % 43,8ra eta % 41,1era jaitsi dira, hurrenez hurren, Gipuzkoako eta Arabako industriaren pisu erlatiboak gora egin du-eta. Era berean, bistan zen Bizkaiko industria Bilboko eremuan kontzentratzen zela. Industria-lurzoruaren beharrari erantzuteko abiarazitako industrialdeen programak, teknologia berriei eta berrikuntzari lotutako enpresei zuzendutako Zamudioko (Bizkaia), Donostiako eta Miñaoko (Araba) parke teknologikoen sorrera eta landa-ingurunea industrializatzeko ekimenak dira industria-lokalizazioan izan diren aldaketa txikiak argi ditzaketan zergatikoetako batzuk.

Alabaina, jarraibide nagusiek bere horretan irauten dute. Laburbilduta, honako ezaugarri hauek dituzte: Bilbo Metropolitarrako kontzentrazio itzela,

Gipuzkoako haranetan eta kostaldeko zerrendan zeharreko zabalkundea, Gasteizko makrozefalia eta Bizkaiko eta Gipuzkoako industria-ehunen arteko konexioa Durangon eta Deba ibaiaren haranean zehar.

Industria-dentsitatearen arabera, hiru eremu mota bereiz daitezke. Balio handienak adierazitako industria-eremu nagusiei dagozkie: Bilbo Metropolitarra, Donostia-Beterrin, Debagoiena, Debabarrena eta Arabako Lautada. Toloserriko, Goierriko, Mungiako, Aiarako eta Urola-Kostako eremuak, denetara, dentsitate ertaineko zonak dira, nahiz eta batzuek industria-ezarpen handiko udalerriak dituzten. Azkenik, industria-dentsitate txikieneko zonak daude, izaera landatarragoko eremuei dagozkienak: Arabako Errioxa, Arratia, Busturialdea-Artibai eta Enkartzioak.

b.12.2. Industria-dentsitate handiko eremuak

Bilbo Metropolitarra, Euskal Autonomia Erkidegoko industrializazio-prozesua hasi zen gunea, industria-eskualde nagusia da gaur egun ere, nahiz eta birmoldatzeko eta berregituratzeko prozesuen eragin handiena jaso dutenetako bat izan. Jarduera Nerbioi itsasadarraren alde bietan kokatzen da, baita azkenaldi honetan industria-hedapeneko eremu berri bihurtu den Asua haranean ere. Ezkerraldeko udalerriek produkzio-prozesuak modernizatu dituzten jarduera tradizionalak (siderurgia, ontzizintza) hartzen jarraitzen badute ere, jarduera horiek dagoeneko ez dira eremuaren bereizgarri bakarrak. Ezkerraldeko udalerririk batzuek (Sestao eta Barakaldo kasu) eta enpresa handiek ere protagonismoa galdu dute, orain enpleguaren % 35 besterik ez baitute hartzen, tamaina txikiko establezimenduei dagokien ehunekoaren antzekoa, alegia. Gaur egun, industria-enplegu gehien dituzten udalerririk Bilbo, Basauri, Zamudio, Trapagaran, Galdakao, Leioa, Erandio eta Etxebarri dira. Litekeena da

Bilboko industria-enplegua gairantsionatuta egotea, zeren enpresa askok egoitza soziala Bizkaiko hiriburuan baitute eta produkzio-instalazioa beste herri batean. Basauri, 4.477 enplegurekin, eremuko bigarren industria-udalerrria da; bertan instalatuta daude enpresa handi nabarmenetako batzuk, hala nola Sidenor, Fagor eta Bridgestone Firestone Hispania.

Bilbo Metropolitarrako industria-ehuna Ibaizabal haranean zehar luzatzen da, Durangaldean. Eskualde hori industrializazio berriagokoa da, desarrullismoaren urteetako, eta probintziako bigarren industria-eremua da gaur egun. Industria-dentsitate handiena Durangori dagokio, baina Abadiño eta Amorebieta-Etxano dira enplegu kopuru handiena dutenak. Bi ezaugarri dira eremu honen bereizgarri: enpresa txiki eta ertainaren nagusitasuna eta metalurgiaren eta artikuluko metalikoen adarreko espezializazio handia. Garraio-materialeko eta makineriako industrietan eta, neurri txikiagoan, paper-fabrikek nolabaiteko aniztasun sektoriala ematen diote.

Durangaldeko industria-eremua ekialdetik Deba ibaiaren haranarekin konektatzen da; harana jarraitutasun handiarekin hedatzen da Eskoriatzarik Debako udalerriraino. Harana osatzen duten bi eremuek, hots, Debagoienak eta Debarrenak, enpleguaren hiru laurdenak baino gehiago bi sektoretan kontzentratzen dituzte, metalurgiaren eta artikuluko metalikoen eta makineriaren sektoretan hain zuzen. Lehenengoak, Debagoienak, industria-dentsitate handiagoko du. Bertan daude haran osoko industria-garrantzi handieneko bi udalerririk, Arrasate eta Bergara, eskualdearen bereizgarri den kooperatiba-mugimendua sortu zen eta gaur egun garatuen dagoen gunea. Gaur egun eskualdearen industria-egitura adierazitako bi sektoretan oinarritzen da, metalurgiaren eta artikuluko metalikoen fabrikazioaren eta makineriaren sektoretan; urrun samar, baina hirugarren tokian, material elektrikoaren industria egongo litzateke. Alabaina, iraganean

garrantzikoak izan ziren sektoreak, ehungintzarena edo elikagaien industriarena kasu, bigarren mailara baztertua geratu dira. Debarreneko eremuko bi industriagune garrantzitsuenak Elgoibarkoa eta Eibarkoa dira, eta Debakoa da hirugarrena. Eibarko udalerrria krisialdiaren eragin handiena jasan duenetako bat izan da, industria-enpleguaren herena baino gehiago galdu baitu, baita 1970eko hamarkadaren erdialdea arte eskualdean ez ezik haran osoan ere zuen nagusitasuna galdu ere. Enpresa handia apenas dago ordezkaturik artikuluko metalikoen eta makina-erreminten produkzioan oso espezializatuta dauden establezimendu txiki eta ertainen nagusitasuna bereizgarri duen eskualde honetan.

Baina Gipuzkoako industria-eremu nagusia, eta Euskal Autonomia Erkidegoko garrantzitsuenetakoa, Donostia-Beterriko eremuan dago. Espazio metropolitarran zentratzen da eta ekialdetik luzatzen da Bidasoa Beherean eta mendebaldetik eta hegoaldetik Oria ibaiaren haranean. Donostia da enplegu-bolumen handiena duen udalerrria eta Hernani, Oiartzun eta Lasarte-Oria, Andoain, Usurbil eta Lezo dira garrantziz hurrengoak. Enplegua ez dago nabarmenki establezimendu mota jakin batean kontzentratuta, ia zati berdinetan banatzen baita establezimendu txiki, ertain eta handien artean. Espezializazio garbirik ere ez dago sektore batean edo zenbaitetan. Eremuak industria dibertsifikatua dauka; bertan, enplegu kopuruagatik honako jarduerak hauek gailentzen dira: makineria, kautxua eta plastikoa, Neumaticos Michelin multinazionalak Lasarte-Oria duen faktoria handiari loturik, eta metalurgia eta artikuluko metalikoak.

Gaur egun Gasteiz eta ingurua da bigarren eremua. 1950eko hamarkadatik aurrera hiriarren iparraldean eta mendebaldean eraiki diren poligonoetan eta 1992. urteaz geroztik inguruko Miñao herrian kokaturako parke teknologikoan ere oinarritzen den industria, enpresa handiak duen pisu handiagoko bereizgarri duena, Gasteizko enpleguaren % 40 baino gehixeago

kontzentratzen du-eta. Fabrika ugariak produkzio dibertsifikatua eskaintzen badute ere, jarduera batzuk besteen gainetik gailentzen dira: metalurgia eta artikulu metalikoen fabrikazioa, garraio-materiala eta kautxua eta plastikoa, 3.000 langile baino gehiago dituzten bi enpresa nabarmenduz, hots, Mercedes Benz eta Neumáticos Michelin. Gasteizko garraio-materialaren industria dibertsifikatu egin da hegazkinen hegoak eta fuselajeak eraikitzekeo faktoria bat instalatuz: Gamesa Producciones Aeronauticas. Makineriaren, elikaduraren, material elektrikoen eta bulegoko altzarigintzaren sektoreek neurri egokian osatzen dute Gasteizko industriak garatzen duen jarduera sorta. Ereduaren gainerakoan industriagune txiki batzuk agertzen dira. Horien artean Agurain, Iruña Oka, Legutio eta Asparrena aipa daitezke.

b.12.3. Industria-dentsitate ertaineko eremuak

Kategoria honetan bost eremu aurkitzen ditugu, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-enpleguan % 2 eta % 6 bitarteko parte-hartzea eta km²-ko 15 eta 30 enplegu bitarteko dentsitatea dutenak. Gipuzkoakoak, hots, Goierri, Urola-Kosta eta Toloserria dira, inongo zalantzarik gabe, industria-ehun garatuagoa eta tradizio handiko industriaguneak dituztenak.

Goierriko eremuak 155 kontzentratzen ditu. Industriagune nagusia Beasain da. Bertan dago probintziako enpresa zaharrenetakoa: CAF (Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles), gaur egun eremu osoko tamaina handieneko faktoria. Bigarren tokian Legazpi dago eta distantzia handiagora Olaberria eta Zumarraga. Industria-jarduera hiru sektoreen inguruan mamitzen da. Metalurgia eta artikulu metalikoenak tradizio handiko enpresak ditu eta garraio-materialarenak bi enpresa garrantzitsu: adierazitako CAF eta Irizar.

Industria-dentsitatea txikiagoa da Toloserrian. Tolosa da eremuko industriagune nagusia. Instalaturako enpresa guztiak tamaina txiki eta ertainekoak dira. Makineriarena da sektore nagusia. Krisialdiko urteetan paper-fabrikak itxi izanaren ondorioz sektore horrek nagusitasuna galdu du eta bigarren tokira baztertuta geratu da, baina oraindik ere eremua papergintzako espezializazioagatik da ezaguna. Metalurgia eta artikulu metalikoen produkzioa garrantziz hirugarren jarduera da.

Urola-Kostako eremuan Azpeitiko eta Azkoitiko industriaguneak gailentzen dira barrualdean eta Zarauzkoa eta Zumaiakoa kostaldean. Enpresen jarduera honako adar hauen inguruan garatzen da: metalurgia eta artikulu metalikoak, altzarigintza, Azpeitian oso kontzentratua, makineria eta, ezarpen txikiagoarekin bada ere, garraio-materiala (automobil-piezen produkzioa eta ontzigintza, Gipuzkoan dagoen ontziola bakarrean garatzen dena, arrantza-ontzietan espezializatutako Zumaiako Balenciaga ontzian hain zuzen).

Industria-ezarpina txikiagoa da Bizkaiko Mungiako eremuan. Gainera, industria oso kontzentratuta dago, ia dena bi udalerritan: Mungian eta Urdulizen. Jarduera hiru sektoreen inguruan mugitzen da: metalurgia eta artikulu metalikoen fabrikazioa, material elektrikoa eta makineria.

Aiarako eremuak, oinarritzko industrietako (siderurgia) espezializazio handiaren ondorioz, industria-krisialdiaren ondorio negatiboari aurre egin behar izan die. Industria-eremu nagusiak Laudioko eta Amurrioko udalerritan daude; hirugarren bat Aiarako udalerrian nabarmentzen ari da, bertan industria-poligono bat eraiki dute-eta. Enpleguaren zati handi bat establezimendu handietan biltzen da, eta bi sektoretan besterik ez: metalurgian eta artikulu metalikoetan eta industria ez-metalikoan.

b.12.4. Industria-ezarpen urriko eremuak

Bizkaiko industria Nerbioi eta Ibaizabal ibaien haranetan eta Arabako industria hiriburuan oso kontzentratuta egoteak oso gutxi industrializatutako eremu zabalak egotea du ordain gisa.

Busturialdea-Artibaiko, Arratiako eta Enkartzioetako eremuetan Bizkaiko enpresen % 13 besterik ez da kokatzen. Arratiako industria gehiena Igorreko eta Arrankudiagako udalerrietan kokatzen da. Enpresa metalurgikoak eta artikuluko metalikoen produzitzaileak, garraio-materialekoak (automobil-piezak) eta makineriakoak dira enplegu gehiena xurgatzen dutenak. Busturialdea-Artibain maila handieneko udalerrietan besterik ez dago industria: Gernika-Lumon eta Bermeon. Lehena metalurgiaren eta artikuluko metalikoen industrian espezializatzen da eta Bermeo elikagaien sektorean gailentzen da, arrain-kontserben enpresen ezarpenari esker. Azkenik, Enkartzioetako eremua industria-ezarpen txikiena duen Bizkaiko eremua da. Dauden enpresa bakanak Zallan, Gueñesen eta Balmasedan kokatzen dira batik bat. Industria hiru sektoretan oinarritzen da: kimikoan, metalurgiaren sektorean eta paperaren sektorean.

Arabako Errioxak ere atera zion onura Arabako Foru Aldundiak 1970eko hamarkadatik aurrera abian jarri zuen eta Oionen instalatutako industria-poligonoan gauzatu zen industria deszentralizatzeko politikari, Logroñoko hiriarekiko hurbiltasunaren abantaila duen herri hori eremuko industriagune nagusi bihurtu baitzen. Errioxako industriak garatzen duen jarduerak bi sektore ditu oinarri: artikuluko metalikoen fabrikazioarena, Oionen kokatua, eta elikagaiena (ardo-enpresak), beste udalerririk batzuetan ere kokatua (Guardia, Eltziego eta Bastida).

b.13. Zerbitzuen sektorea

Eustaten datuen arabera, zerbitzuen sektoreak EAEko balio erantsiaren % 60,5 eta enpleguaren % 61,8 hartzen zuen 2006. urtean, eta sektore honen % 83,2 merkatuko zerbitzuei zegokien.

Euskal Autonomia Erkidegoko hirugarren sektorearen azken urteetako bilakaerari dagokionez, lehenengo ebidentzia da euskal ekonomian zerbitzuek lehen tokia betetzen dutela, hala enpleguari nola produkzioari dagokionez. Ondorio hori Euskal Autonomia Erkidegorako oro har baliozkoa bada ere, zehaztu egin behar da eskualdeen alorrean. Zalantzarik gabe eremu metropolitan handiak dira, Donostia, Gasteiz eta, batez ere, Bilbo, zerbitzuetako enpleguaren ehuneko handienak hartzen dituztenak. Alabaina, lurralde bakoitzean badaude alor horretan posizio nabarmena betetzen duten zona batzuk eta horien parean industria-izaera nabarmena duten beste batzuk kokatzen dira.

Hirugarren sektoreko jardueren pisu handiena duten eremuak hiri-aglomerazio handietatik hurbilen daudenak eta horien eragin zuzenena jasotzen dutenak dira. Hala, hirugarren sektoreak orokorrean EAEn aurrera egin izanaren ondorioz, lurralde-dualtasun garbia sortu da: eremu tertziarizatuak eta eremu industrializatuak aurrez aurre; horien artean bereziki nabarmentzen dira Goierri, Debarrena eta Debagoiena, alde batetik hirugarren sektorearen indar gainerakorra eta, bestetik, industria-tradizioaren erresistentzia erakutsiz. Deigarriki, industriaren produktibitate handiagoa, egungo euskal industrian gehitutako berrikuntza-elementu nabarmenak eta bere garapen produktiboa eta lehiakorra gorabehera, industria-eremuak dira portaera demografiko txarrena eta biztanleria erakartzeko edo finkatzeko ahalmen txikiena dutenak.

Zerbitzuetako enpleguaren hazkunde handi horren bultzadan —beste herrialde batzuetan izandakoaren paralelo, baina beranduago— hainbat faktore unibertsal biltzen dira, hala eskaintzatik nola eskaritik: zerbitzuen kanporatzea, zerbitzuen eta industriaren integrazio gero eta handiagoa, errenta mailaren gehikuntza orokorra, zerbitzuen produktibitatearen hazkunde ahula, gizarte-zerbitzuak hornitzeko gastu publikoaren igoera —duela gutxi joera aldatu bada ere—, emakumezkoen aktibotasun-tasaren igoera, desindustrializazio-prozesua, eta abar.

Laburbilduz, esan daiteke zerbitzuek gainerako sektoreei dagokienez euskal ekonomiaren langabezia-maila nabarmena konpentsatzeko funtzioa bete dutela eta industria-jardueratik kanporatutako biztanleriaren sektore garrantzitsuen enplegua estaltzeko aukera eman dutela.

Hori hedaldietan eta susperraldietan egiazta daiteke, zerbitzuetako enpleguak izugarritzko dinamismoa erakusten baitu, sortutako zerbitzuek guztizko enpleguari % 85eko ekarpena egitean islatzen dena. Gainera, EAEko zerbitzuetako enpleguaren bilakaera Espainiako eta mendebaldeko inguruneak hurbiltzen zaio, nahiz eta krisialdian eta doitze-etapan izandako atzerapenak lastertasun handiagoa eragiten dion EAEko hirugarren sektorearen dinamismoari laurogeiko hamarkadaren erdialdetik aurrera.

Zerbitzuetako enpleguaren goranzko joera ez da uniformea izan barneko lanbide-egoerari dagokionez, ezta zerbitzuetako jarduerak izan duten bilakaerari erreparatzen badiogu ere. Zerbitzuen osotasunerako enplegu-gehikuntza garrantzitsua zerbitzuetako adar guzti-guztietan izandako enplegu-gehikuntzen isla da. Dena den, zerbitzuetako adarren artean hazkundearen erritmoan eta aldian dauden aldeak begien bistan gelditzen dira azkeneko bi hamarkadetan zehar.

Zerbitzuen hazkundera mugitu edo bultzatzen duten faktoreek modu, zentzu eta intentsitate desberdinean eragiten diete hirugarren sektoreko adarrei, horien heterogeneotasuna kontuan hartuta. Desberdina da, halaber, jardueren arabera, merkatuen erregulazio eta liberalizazio maila eta, horrenbestez, neurri desberdinetan geratzen dira lehiaren eraginpean.

EAEko hirugarren sektorearen hazkundean izandako bilakaerari dagokionez, honako ezaugarri orokor hauek aipa daitezke:

- Hazkundera handiagoa da adar batzuetan besteetan baino, baina adar guztiak hartzen ditu eraginpean, denek baitute bilakaera positiboa azkeneko 10 urteetan.

- Zerbitzu publikoak, hala nola administrazio publikoak —hazkunde handieneko taldea— edo irakaskuntza eta osasun arloa; zerbitzu kolektibo eta pertsonalak; eta bereziki, bestelako merkataritza-zerbitzuak —enpresentzako zerbitzuak hemen sartzen dira— dira hazkunde handiena izan duten adarrak.

Azpi-sektoreen portaera hori Europako eta mendebaldeko inguruneak herrialde gehienek izan dutenaren antzekoa da.

-Adarrez adarreko portaera-jarraibide horien emaitza, adarrek zerbitzuen hazkundeari egindako ekarpena aldatu egin da azkeneko bi hamarkadetan zehar. 1980. urtean merkataritzak eta ostalaritzak % 40ko ekarpena egiten zioten zerbitzuetako enpleguari eta aldi horren amaieran ekarpena zortzi puntu txikiagoa da. Garraio eta komunikazioen eta banku eta aseguruaren kasuan ere behera egin du enpleguaren pisu erlatiboak. Beste muturrean, arestian adierazitako adarrek zerbitzuetako enpleguari egindako ekarpen gero eta handiagoak nabarmentzen dira, izan ere adar horiek baitira

bultzada handiena izan dutenak: administrazio publikoak, irakaskuntza eta osasun arloa, merkataritza bestelako zerbitzuak eta bestelako merkataritza-zerbitzuak (enpresentzako zerbitzuak). Azkeneko adar hori nabarmentzen da laurogeiko hamarkadaren bigarren erdiko hedatze-fasean eta laurogeita hamarreko hamarkadaren lehen erdian zehar izugarritzko ekarpena egin zuelako, laurogeita hamarreko hamarkadaren erdi atzerakor horretan zerbitzu guztiak geldialdia jasaten ari zirenean.

Hirugarren sektoreko jarduerak EAEko beste produkzio-sektore batzuen aldean dituen ezaugarri bereziei dagokionez, bereizgarri espezifiko hauetan laburbil daitezke:

- Hirugarren sektoreko jarduerak dira emakumezkoek enpleguan neurri handienean parte hartzen dutenak. Oso alde nabarmena dago gainerako sektoreekin, emakumezkoek zerbitzuetako enpleguan duten parte-hartzea bi bider handiagoa baita emakumezkoen presentzia handiena erakusten duen hurrengo sektorean baino.
- Sektoreetako enpleguko adin-egiturari dagokionez, zerbitzuen sektorea nabarmentzen da, 45 urtetik gorako biztanle landunen parte-hartzerik txikiena baitu, eraikuntzak hurbiletik jarraitzen diola. Beraz, zerbitzuetako jardueretan presentzia handiagoa du enplegu gazteenak.
- Enpleguko behin-behinekotasunari dagokionez, sektoreen arteko aldeak ez dira aurreko ezaugarrietan bezain garbiak. Izan ere, eraikuntzako behin-behinekotasuna nabarmentzen bada ere, praktikan enpleguko ezegonkortasun-mailak berdin eragiten die jarduera guztiei.
- Soldatapeko enplegua aztertzean, zerbitzuetako enplegua industriakoaren aldean neurri txikiagoan soldatapekotuta dagoen susmoa baieztatu egiten da. Egoera horren arrazoi nagusietako bat honetan datza, hots,

zerbitzuetako jarduerak enplegu-babeslekuaren funtzioa bete dute atzeraldietan, eta horrek sektorean enplegu autonomia areagotzea ekarri ohi du ezinbestean.

- Zerbitzuetako enpleguaren prestakuntza/tiluazio maila beste sektoreetakoaren oso gainera dago. Enpleguaren % 31,6, aldiz, lanaren itxurazko produktibitatea, zerbitzuetan aski txikiagoa izan da beste sektore ekonomikoetan baino azkeneko bi hamarkadetan zehar. Hirugarren sektoreko jarduerak produktibitate global askoz ere txikiagoa dute industria-jarduerak baino. Produktibitate txikiago horren zergatikoak desberdinak dira adar desberdinen arabera mendebaldeko herrialde gehienetan. Oro har, zerbitzu batzuek, izaera pertsonala dutenak batik bat —zerbitzu pertsonalak, ostalaritza eta abar—, izaerarekin berarekin erlazionatutako begien bistako arrazoiengatik izaten dute mugatuta produktibitatearen hazkundera. Beste zerbitzu batzuetan, produktibitatea neurtzeko arazoak ikaragarriak dira, eta kalitatearen hobekuntza bezalako alderdiak beste produkzio-sektore batzuetara lekualdatzen dira, eta horiek izaten dira produkzio-eraginkortasunari dagokionez irabaziak lortzen dituztenak. Produkzio-sisteman inbrikatuen dauden adarrak dira EAEen indize handienak erakusten dituztenak, industriako hurbilekoak eta are horiek baino handiagoak ere: horixe da garraio eta komunikazioen kasua eta, bereziki, enpresentzako zerbitzuena. Beste muturrean kokatzen dira produktua masiboki azken kontsumora zuzenduta duten adarrak, produktibitate-indize oso txikiak eta/edo hazkunde-tasa nuluak dituztenak. Horien artean daude etxeko zerbitzua, hezkuntza, administrazio publikoa, ostalaritza eta turismoa.

Hirugarren sektoreko adarren azterketa zehatzagoa eginda, enpresentzako zerbitzuen sektorearen abiada ikusgarria egiazta daiteke, arestian aipatu den moduan, izan ere enplegu garbia % 147,8 hazten baita 1993 eta 2005

artean. Enpleguaren gehikuntza, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoan erregistratzen den % 38,8ko batez bestekoa baino nabarmen handiagoa da beste adar hauetan ere: ostalaritza (% 48,7), garraio eta komunikazioak (% 51,7), osasun arloa eta gizarte-zerbitzuak (% 72,2) eta merkataritza-zerbitzuak (% 59,9). Adierazi beharra dago, alabaina, adar horiek hazkundera moteltzeko nolabaiteko joera erakusten dutela. Horrela, merkataritza-zerbitzuetan izan ezik, bultzada handia baitute aldi horretan, % 45,7ko hazkundera izanik 2001 eta 2005 artean, 1997-2001 aldian % 14,3koa eta 1997 baino lehen enplegua galdu ondoren, kasu guztietan azkeneko lau urteetan hazkundeak txikiagoak izan dira 1997-2001 aldian baino. Indar-galera hori bereziki nabarmena da ostalaritzan, azkeneko lau urteetan enplegu garbiaren hazkundera ozta-ozta iritsi baita % 4,6ra. Hazkunde-erritmoetan beherakada horiek izan arren, gehikuntza-mailak % 15 eta % 25 bitartean mugitzen dira oraindik ere hirugarren sektoreko gainerako sektoreetan. Gainera, azkeneko urteetan enpleguaren gehikuntza oso nabarmena izan da hezkuntzaren sektorean. % 24,1eko gehikuntzari esker maila ertainetan kokatu da aldi osoari dagokionez, 1997 eta 2001 artean antzemandako geldialdiaren ondoren. Hain zuzen ere, enpresentzako zerbitzuekin eta gainerako merkataritza-zerbitzuekin batera, hezkuntza enpleguaren hazkunderaren eragileetako bat da 2001 eta 2005 artean. Denera jota, hezkuntzak % 39,3ko enplegu-gehikuntza garbia erregistratzen du 1993-2005 aldian, hau da, EAEko batez besteko maila baino goraxeago kokatzen da.

EAEko batez bestekoa baino txikixeagoa izan arren, enplegu-hazkundera garrantzitsua da merkataritza-sektorean ere, enpleguak % 34,3 egiten baitu gora 1993 eta 2005 artean. Gainera, hazkunde-erritmoak etengabe egiten du gora denboran: 1993 eta 1997 arteko % 4,3tik 1997 eta 2001 arteko % 8,8ra eta 2001 eta 2005 arteko % 18,3ra.

Zerbitzuen sektorearen gainerakoaren bilakaera ez da hain onuragarria, alde handiarekin gainera, enplegu-hazkunderaren tasak EAEko batez bestekoa baino txikiagoak dira-eta. Hala ere, enpleguak % 19,9 egin du gora 1993 eta 2005 artean etxeko zerbitzuan eta % 20,7 administrazio publikoan. Bilakaeraren noranzkoa, ordea, desberdina izan da bi kasuetan. Hala, administrazioan enplegua % 23 suspertzen da 1997 eta 2001 artean, 1993-1997 aldian % 1,3 jaitsi ondoren, baina berriz ere % 0,7 egiten du behera 2001. urtetik aurrera. Etxeko zerbitzuan, aldiz, enpleguak etengabe egiten du behera 1997. urtetik aurrera, 1993 eta 1997 artean % 26,8 igo ondoren.

Finantza-erakundeen adarra, bestalde, enplegu-egonkortasunerako joera bereizgarri duen sektore bat bezala finkatzen da, enpleguaren hazkundera ozta-ozta iristen baita % 5,5era 1993 eta 2005 artean. 2001. urtea baino lehenago antzemandakoa ez bezala, aldi horretan enpleguak funtsean geldialdirako joera erakusten baitu, 2001 eta 2005 artean enplegua hedatu egiten da nolabait ere, landunen kopuruak % 5,8 egiten baitu gora.

Zerbitzuen sektoreko enplegua lurralde-esparruen arabera aztertuz gero, enplegu-mailetan izandako hazkunde handiena, alde batetik, Bilbo Metropolitarrako eremuari dagokiola ikus daiteke, zerbitzuen sektoreko enpleguaren hazkundeak % 60 ingurukoak izan baitira 1993 eta 2005 artean. Hedapen hori Mungiara zabaltzen da, % 68,5 hazten baita. Eremu horietan 2001 eta 2005 artean handitu egiten dira edo oso goian mantentzen dira sektoreko enpleguaren hazkunde-erritmoak. Eremu metropolitarrak horretan antzematen dena ez bezala, Bizkaiko gainerako lurretan enpleguaren hazkundera Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino dezente txikiagoa da. Toloserriko eta Debagoieneko eremuetan ere zerbitzuen sektoreko enpleguaren gehikuntza garrantzitsua antzematen da 1993 eta 2005 artean, % 64,1eko eta % 74,2ko igoerak

baitituzte, hurrenez hurren. Igoera horiek neurri handi batean, 1997-2001 aldian izandako geldialdiaren ondoren, 2001 eta 2005 artean sektorean enpleguak izan zuen susperraldi handiarekin lotzen dira. Gipuzkoaren gainerakoan, enpleguaren gehikuntza maila ertainetan kokatzen da Donostia-Beterrin (% 50,5), baina joera hedakorra erakusten du enplegu berria sortzeko erritmoan 1997 eta 2005 artean, eta batez bestekoaren azpitik geratzen da Debabarrenan (% 44), eremu horretan behera egiten baitu pixkanaka sektore honetan enplegu berria sortzeko erritmoaren bizitasunak (1993 eta 1997 artean hazkundea % 17,6koa zen, batez bestekoa baino handiagoa, 1997-2001 aldian % 11,3ra jaisten da eta 2001-2005 aldian % 10era; azkeneko bi zifra horiek EAEko batez bestekoaren azpitik daude argi eta garbi).

Arabako eremuei dagokienez, zerbitzuen sektoreko enpleguaren hazkundea, 1993 eta 2005 artean, gutxiatik bada ere, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren gainetik kokatzen da (% 51,9 Araba Erdialdean eta % 52 Aiaran). Enpleguaren hedapenak garrantzitsua izaten jarraitzen badu ere, bi eremu horietan enpleguaren hazkunde-mailak azkeneko urteetan nolabait ere behera egiten ari direla antzematen da. Joera 2001. urtetik aurrera hasten da Aiaran: hazkunde-erritmoa 1993 eta 2001 artean % 15etik gorakoa zen eta % 10,7ra jaisten da 2001-2005 aldian. Araba Erdialdean lehenago mantsotzen da hazkunde-erritmoa: 1993-1997 aldian % 18,1ekoa zen eta % 13,4ra jaisten da 1997-2005 aldian.

Zerbitzuen sektorean 1993 eta 2005 artean izandako enplegu-hazkundearen jatorria aztertuta, aldeak antzematen dira eremu hedakorren artean. Adibidez, Bilbo Metropolitarrako eremuan sortutako enplegu berriaren gehiena, ia enpleguaren % 40, merkataritza-zerbitzu orokorrenei lotzen zaie (merkataritza, ostalaritza eta gainerako

merkataritza-zerbitzuak). Hain hedakorrek ez diren Durangaldea eta Debabarrena bezalako beste eremu batzuek ere zirkunstantzia hori dute bereizgarri, % 50eko mailetara ere iristen baitira. Bilbo Metropolitarran izan ezik, eremu horietan oso urria da enpresentzako zerbitzuek eta finantza-erakundeek betetzen duten eginkizuna, enplegu berriaren % 25 edo gutxiago ordezkatzeko baitute.

Alabaina, administrazioak, zerbitzu publiko orokorrek eta garraio eta komunikazioen adarrak eginkizun erabakigarria betetzen dute beste bi eremu hedakorrenetan, hots, Toloserrian eta Debagoienan. Kasu honetan, 1993 eta 2005 artean zerbitzuetako enpleguan izandako hazkundearen % 43,5 eta % 53,9 jarduera-adar horiei lotzen zaie. Adar horien pisua EAEko batez bestekoa baino handiagoa da Aiaran (% 54,2), Mungian (% 42,3) eta Donostia-Beterrin (% 38) ere. Aiaran izan ezik, enpresentzako zerbitzuen eta finantza-erakundeen pisuak EAEko batez bestekoaren azpitik kokatzeko joera du.


Enpresentzako zerbitzuak eta finantza-erakundeak Araba Erdialdeko eremuan besterik ez daude lehen tokian 1993-2005 aldian zerbitzuen sektorean sortutako enplegu berriaren sailkapenean, enplegu berriaren % 36,7 hartzen dute-eta.

Adierazi beharra dago, alabaina, eremu bakoitzeko enplegu-hazkundearen eragin erlatiboak ez dituela ezinbestean inplikazio handiak eduki behar Euskal Autonomia Erkidegoaren osotasunean. Hori dela-eta, interesgarria da Euskal Autonomia Erkidegoaren osotasunerako zerbitzuen sektoreko adar hedakor nagusietan antzeman den enpleguaren hazkundea kontzentratzen duten esparruak aztertzea.

Maila horretan, nabarmentzekoa da, lehenik, Donostia-Beterriko eta Bilbo Metropolitarrako eremuetan enplegu-hazkundera oso kontzentratuta dagoela merkataritzako eta ostalaritzako adarretan, 1993-2005 aldian adar horietan izandako enplegu-hazkundera osoaren (% 23 Donostia-Beterrin eta % 65,8 Bilbo Metropolitarran) % 47,5 hartzen dute-eta.

Alabaina, Bilbo Metropolitarrako eremuak protagonismo diferentzial handiagoa lortzen du bestelako merkataritza-zerbitzuen, garraio eta komunikazioen eta enpresentzako zerbitzuen adarretan enplegu berria sortzeko esparruan. Kasu horietan, eremu horrek enplegu berriaren % 49 kontzentratzen du. Enpresentzako zerbitzuen esparruan besterik ez da maila horietara iristen Araba Erdialdeko eta Donostia-Beterriko eremuetako baterako pisu erlatiboa, % 38,9ekin (Bilbo Metropolitarrako eremuan % 47,9). Bestelako merkataritza-zerbitzuetan proportzioa % 34,4ra jaisten da — Bilbo Metropolitarrako eremuan % 48,2—; aldea are handiagoa da garraio eta komunikazioen adarrean (% 31,3 eta % 49,1). Alabaina, administrazioan eta zerbitzu orokorretan enplegua sortzearen pisu erlatiboa handiagoa da Araba Erdialdean eta Donostia-Beterrin. Izatez, batez ere mota horretako enplegu berriak Donostia-Beterrin duen pisuari esker (% 28,8 eta Araba Erdialdean, aldiz, % 9,7 besterik ez), haren % 38,6 eremu horietan kontzentratzen da eta Bilbo Metropolitarrako eremuan % 34. Kasu honetan, era berean, Debagoienari eta Toloserriari dagokien % 10,8 nabarmentzen da. Mota honetako enpleguetan, hain zuzen, Gipuzkoa Bilbo Metropolitarrako eremuaren multzoari nagusitzen zaio, zerbitzu orokorrekin erlazionatutako enplegu berrien % 40,9 hartzen du-eta.

ZERBITZUEN SEKTOREKO BIZTANLERIA



b.13.1. Turismoa

Turismo-sektorea funtsezko sektore bihurtu da fakturazioari eta enpleguari dagozkien zifrei esker. Gainera, lehen esportazio-jardueretako bat da, kanpoko kontsumoa erakartzen du-eta. Eustaten Kontu Satelitearen 2004. urteari buruzko azkeneko datuen arabera, 2.786 milioi euroko zifrara iritsi zen, hau da, EAEko BPGrako % 5,2ko ekarpena; eta jarduera horri lotutako biztanleria landuna 47.000 enplegutik gorakoa izan zen (enplegu osoaren % 5,0). Turismo-gastuaren % 55,6 Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpotik (estatuaren gainerakoa eta atzerria) datozen bisitariak sortzen dute, eta gastuaren gainerako % 44,4a autonomia-erkidegoan bizi diren turistek eta txangozaleek egiten dutenaren artean banatzen da. Alabaina, EAEn turismo igorleak turismo hartzaileak baino garrantzi handiagoa izateak 2.324 milioi euroko defizita sortzen du 2004. urtean, BPGaren % 4,4, eta ehuneko hori gero eta handiagoa izan da 2000-2004 aldian.

Lurraldeei dagokienez, Gipuzkoa da garrantzi handieneko turismo-garapena erakusten duena, bere BPGaren % 7,5 hartzen baitu. Araban eta Bizkaian, aldiz, ekarpen hori % 4 ingurukoa da.

1997 eta 2004 artean ongi desberdindutako bi fase bereizten dira.


1997-1999 aldian, EAEn denera jota, baina batez ere Bizkaian eta, zehazkiago, Bilbon eta bere inguru metropolitarran, bizkor hazten da turisten sarreren eta ostatu-gauen kopurua. Hazkunde horrek, denboran hedatukiago bada ere, Gipuzkoa eta Araba ere hartzen ditu eraginpean.

Hazkunde laster horren ondoren finkatze-fasea iristen da, eta sarreren eta ostatu-gauen kopuruaren hazkundera egonkortu egiten da, 2004. urtean abiadari ekinez berriz ere. Aurreko etaparekiko joera-aldaketa horrek, era

berean, turistaren tipologia pixkanaka izandako aldaketaren berri ematen du, gero eta gehiago erantzuten baitio aisiaren motibazioari lanarenari baino.

Turisten sarreren hazkunde handi horrek, era berean, ostatu-plazen eskaintzaren gehikuntza garrantzitsua ekarri du (% 31,8 hazi da 1999-2004 aldian), sortutako itxaropenen ondorioz, ostatu-gauen kopuruari dagokiona baino askoz ere handiagoa (% 17,7 hoteletako sarreretan aldi horretan bertan, batez besteko egonaldian aldakuntza aipagarririk izan gabe). Horren ondorioz, okupazio-mailak behera egin du.

EAEko turismoaren bilakaera (1992-2005)



Ez da batere erraza EAEko guztizko bisitari kopurua mugatzea. Lehen taldea, ezin hobeto mugatua, ostatu arloko establezimendu publikoetan (hotelak, landa-turismoko ostatuak eta kanpinak) ostatu hartzen duten turistek osatzen dute. Talde horrek 2 milioi pertsonatik gora izan ditu 2004. urtean (1,8 milioi 2003. urtean).

Alabaina, badira beste kolektibo ugari batzuk ere; horiek ere garrantzitsuak dira eta dagozkien datuak hainbat inkestaren bidez lortzen dira: alde batetik, hiru gau baino gehiago jarraian bigarren etxebizitzetan (norberaren etxebizitzak edo alokatuak, senitartekoenak edo lagunena) eta bestelako establezimenduetan ostatu hartzen dutenak; 2003. urtean 1,1 milioi pertsona biltzen zituzten. Lehenengoekin batera, turistak dira adiera hertsian. Hirugarren talde batek egonaldi laburrak egiten ditu norberaren bigarren bizitegian (4 gau jarraian baino gutxiago); 2,1 milioi pertsonak osatzen dute eta ez dira turistatzat hartzen estatistikaren ondorioetarako. Guztira, beraz, EAEn gaua igarotzen duten bidaiarien kopurua 5 milioi pertsona baino gehixeagokoa dela esan daiteke.

Azkenik, kopuru horiei txangozaleak gehitu behar zaizkie; EAEn gaua igarotzen ez duten bidaiari horiek atzeritik datozenean baino ez daude ongi zenbatuta: 7.211.909 txangozale 2004. urtean. Estatuko beste eskualde batzuetatik datozenekin batera, ongi zenbatuta ez badaude ere, fenomeno ekonomikoki garrantzitsua osatzen dute.

Eskari motari dagokionez, azkeneko bosturtekoan atzerriko turismoa bizkorrago hazi dela antzematen da; 2004. urtean establezimendu publikoetan ostatu hartzen duten turisten % 28,6 ordezkatzen du, eta presentzia handixeagoa du hiriburuetan barrualdean baino. Halaber, eskaria nolabait ere ostatu hartzeko modu berrietarantz bideratzen dela antzematen da, landa-turismoko instalazioetarantz batik bat (2004. urtean turisten % 4,4k aukeratu zituen). Bestalde, kanpinek beste % 8,3 erakarri zuten. Ostatu-gauei dagokienez, bi turista mota horiek ostatu-gauen % 20,78 ordezkatzen dute.

Bestalde, azpimarratu beharra dago Euskal Autonomia Erkidegoan turismoa nagusiki egonaldi laburretako fenomeno dela: % 50ek ez du bi gau

gainditzen eta % 7k besterik ez du egonaldia hiru aste baino gehiago luzatzen (hala barne-turismoaren kasuan, % 7,8, nola atzerriko turisten kasuan, % 7,0). Establezimendu publikoetako ostatatzeen datuak bakarrik kontuan hartuta, batez besteko egonaldia 1,9 egunekoa da. Landa-turismoko ostatuak eta kanpinek batez besteko egonaldi luzeagoak dituzte (3,0 eta 2,7 egun, hurrenez hurren, 2004. urtean). Ez da batere erraza batez besteko egonaldia luzatzea, hazkundean zein turismo-segmentutan gertatzen ari den ikusita: turismo kultural eta hiritarrean, eta negozioen turismoa (biltzar-turismoaren batez besteko egonaldia 2,46 egunekoa da 2004. urtean).

Aisiaren motiboa da garrantzitsuena (% 58,4) ostatu arloko establezimendu publikoetan ostatu hartzen duten turistentzat, eta negozioen motibazioaren pisu txikiagoarekin batera (% 34,1), senitartekoei eta lagunei egindako bisitak edo osasun-tratamenduak bezalako motiboak ere agertzen dira. Hirugarren motibo multzo hori garrantzi handiagokoa da jatorria EAEn edo estatuan duten turisten kasuan, eta ia berdindu egiten zaio aisiaren faktoreari (2003. urtean % 49), negozioen faktorea ozta-ozta utziz % 5ean. Garbi dago, beraz, harreman pertsonalak eta familia-harremanak erakarren-faktore garrantzitsua direla, nahiz eta kasu horretan ez duten jotzen hoteletara, norberaren etxebizitzara, alokatutakora edo lagatakora baizik.

Alabaina, hotelen kasuan, zehazki, alde geografikoak garrantzitsuak dira:


– Aisia da motibazio nagusia Arabako barrualdean (% 79,8), Gipuzkoako esparru guztietan —Donostian (% 69,0), kostaldeko udalerrietan (% 89,3) eta barrualdean (% 55,7)— eta Bizkaiko kostaldean (% 57,6).

– Negozioen kontuak, aldiz, nagusi dira Gasteizen (% 69,9), Bilbon (% 51,7) eta Bizkaiko barrualdeko udalerrietan (% 51,7).

Aisiaren motiboa batez ere «turismo hiritarrarekin» eta «turismo kulturalarekin» identifikatzen da. Itsasoa osagai garrantzitsua da kostaldean oraindik ere. Naturako jarduerak garrantzitsuak dira landa-turismorako, nahiz eta horrentzat ere turismo hiritarra izan motibo nagusia. Naturako turismoa garrantziz bigarrena da landa-turismoarentzat eta lehenengoa kanpinetan ostatu hartzen duten turistentzat, baina pisu txikia du segmentu honetan dauden baliabideen aldean.

Euskal Autonomia Erkidegoa turismo-helburu gisa berraurkitzeak ikono bikaina izan du Guggenheim museoan, baina ez da bakarra izan. Museo horren erabateko berritasunak hiriaren beste erakargarri lausotuago batzuk aurkitzeko bidea eman du eta Guggenheim efektuari Bilbo efektuak hartu dio lekua, hiri-berrikuntzako prozesu indartsua bizitzen ari den hiri baten erakarpenean gauzatua. Alabaina, bistan da fenomeno hori ez dela lurraldeen artean hedatzen, izan ere Euskal Autonomia Erkidegora etortzen diren turisten % 15ek besterik ez baitu lurralde historiko bat baino gehiago bisitatzen.

TURISMO OSTATUETAKO PLAZAK



b.14. Produkzio-jardueretarako lurzoruak

Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren banaketa bat dator arestian deskribatu ditugun produkzio-jarduerak lokalizatzeko eta garatzeko prozesuekin.

UDALPLANen datuen arabera, EAEn 2007. urtean guztira 13.367 ha lur zeuden jarduera ekonomikoetarako kalifikatuta. Arabak eta Bizkaiak azalera horren % 36,5 inguru hartzen zuten bakoitzak eta gainerako % 26,6a Gipuzkoan kokatzen zen. Banaketa horrek aldaketa esanguratsua izan du azkeneko zazpi urteetan, 2000. urtean Bizkaiak lurzoru horren % 40,8 baitzuen eta % 29,8 Gipuzkoan kokatzen baitzen eta % 29,4 Araban. Hiru lurraldeen arteko lurzoruaren banaketan izandako aldaketa hori, joan den mendeko 80ko hamarkadaz geroztik datorren joera burutzen duena, Arabako dinamismo apartaren emaitza da. Izan ere, lurralde horretan jarduera ekonomikoetarako 1.681,1 ha lurzoru sortu dira azkeneko zazpi urte hauetan, Bizkaiak 489 ha eta Gipuzkoan 313,9 ha.

Lurralde-aldaketako prozesu hori era berean islatzen da eremu funtzionalen eskala edo mailan. 2007. urtean Araba Erdialdeak sailkatutako lurzoruaren % 31 kontzentratzen zuen, Bilbo Metropolitarrak % 24,5 eta Donostia-Beterriko eremuak % 10. Horren aldean, 2000. urtean Bilbo Metropolitarrak % 26,7 hartzen zuen, Araba Erdialdeak % 26,8 eta Donostia-Beterri % 12,5.

Hiru kontzentrazio handi horien ondoren askoz ere tamaina txikiagoko beste batzuk ageri dira. Durangaldea, 749 ha-rekin, EAeko industria-lurzoru gehien kontzentratzen duen laugarren eremua da; lurzoru mota horren % 5 baino gehixeago hartzen du, eta aldi osoan eutsi dio posizio horri. 2000. urtean Goierri % 4,3 hartzen zuen eta bosgarren tokian zegoen azalera

sailkatuaren arabera. Gaur egun seigarren tokian dago, Debagoieneko eremuak aurrea hartu baitio; izan ere, 2007. urtean % 4,4 hartzen du eta eremu funtzionalen arteko zazpigarren tokitik igo da. Sailkapenean gora egiten dute, halaber, Aiarak (8. tokitik 7.era) eta Arabako Errioxak (12. tokitik 10.era), eta behera, aldiz, Urola-Kostak (6. tokitik 8.era) eta Toloserriak (10. tokitik 11.era). Bilbo Metropolitarraren inguruko eremu tradizionalki landatarrak dira jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren eskaintzan pisu txikiena dutenak (Enkartazioak % 1,1, Arratia eta Mungia % 1,2 eta Busturialdea-Artibai % 1,8). Arabako Errioxa (% 2,6), aldiz, industria-tradizio handiko beste eremu batzuen antzeko ehunekoetan kokatzen da (Toloserria % 2,2, Debabarrena % 2,9, Aiara eta Urola-Kosta % 3,4 eta Goierri % 3,7).

Prozesu horiek oso portaera-jarraibide desberdinak erakusten dituzte esparru batetik bestera aldi horretan, sailkatutako lurzoruaren hazkundeko erabateko giroan, jarduera ekonomikoaren hedaldi bati dagokion bezalaxe. Hazkunde nagusiak 2003. urtea arte gertatzen dira, orduan hazkunde geldiegoko fase bat hasten da, 2006. urtea arte luzatzen dena, eta urte horretan egonkortu egiten da. Hazkundearen gehiena Araba Erdialdeko eremuak kontzentratzen du, hain zuzen ere 2000-2003 aldian bere ahalmena 1.060 ha-tik gora handitzen baitu, aldi horretan abian jartzen diren proiektu logistiko handien ondorioz batik bat. 2000-2007 aldi osoan Araba Erdialdeko eremuak ia % 60 handitu du jarduera ekonomikoetarako kalifikatutako lurzoruak. Dinamismoari dagokionez Arabako Errioxa da hurrengo eremua, % 46 hazten baita. Termino absolutuetan 366 ha baino gehixeago besterik ez da, Araba Erdialdeko eremuko kopurutik oso urrun, baina, hala ere, guztizko azaleran gehien hazten den bigarren eremua da. Guztizko azalerari dagokionez, hazkundera oro har apala da lurraldearen gainerako lurretan. 100 ha inguru Durangaldean eta Arratian, 50 ha inguru Donostia-Beterri, Mungia eta Toloserrian, 30 ha inguru Enkartazioetan,

Debagoienan, Goierrin eta Bilbo Metropolitarran, 19 ha Debabarrenan, 4 ha Aiaran, 2 ha Busturialdea-Artibain eta 2,5 ha-ko gutxitzea Urola-Kostan. Proporzionaliki gehikuntzarik handienak Debagoienan, Arratian, Enkartzioetan eta Tolosan gertatzen dira eta gainerako eremuetan hazkunde erlatiboa urria da, % 10 ingurukoa gehienez ere.

Hala, produkzio-dinamikekin eta esparru bakoitzaren baldintza fisiko bereziekin bat datozen lurralde-joera batzuk agertzen dira. Lehenengo eta behin, industria-espazio eta jarduera ekonomikoetarako espazio berriak nabarmen lekualdatzen dira hegoalderantz, Arabako Lautadarantz eta, neurri txikiagoan, Arabako Errioxarantz. Fenomeno hori, neurri handi batean, eremu horietan erabilera horiek hartzeko ahalmena duten lurzoruak erabilgarri izateari zor zaio, kontraste handia baitago lurraldearen gainerako eremuetan dagoen urritasunarekin, urbanizazio-maila handiagoa eta murrizketa fisiko askoz ere nabarmenagoak dituzte-eta. Zati batean bederen, goraka ari diren sektore batzuekin lotutako produkzio-dinamika berriei ere erantzuten die. Hala, jarduera logistikoak azkeneko urteetan hazkunde handiena izan duten sektoreetako bat bezala agertzen dira eta espazio-eskari handiaren berezitasuna dute. Hori dela-eta, Araba erdialdeko lurretan kokatu dira lehentasunez eta, horren ondorioz, gero eta espezializazio handiagoa garatzen ari dira jarduera horien inguruan. Arabako Errioxaren kasuan, Ebro ibaiaren ardatzari lotutako industria-kokapeneko prozesu zalantzarik gabeaz gain, ardogintzaren sektoreak azken urteetan erakutsi duen dinamismoa nabarmendu beharra dago, upellegien eraikin eta industria osagarri berrien ugaritzea ekarri du-eta.

Bigarren prozesua Bilbo Metropolitarrako desindustrializazio progresiboa da, espazio horretan nabarmen den tertziarizazio biziarekin eta lurzoruaren kostu handiekin bat etorritik. Izatez, esparru horretan antzematen diren jarduera-espazioen hazkunde berrietako asko jarduera

ekonomikoetarako sailkatutako espazioetan kokatzen diren hirugarren sektoreko merkataritza, bulego eta aisiako garapenei dagozkie. Bilbo Metropolitarraren inguruan, bereziki Durangaldeko eremuan eta, neurri txikiagoan, Arratian eta Enkartzioetan, gauzatzen ari da Bizkaiko berezko industria-hazkunde azken etapa horretan, eta hor garatzen ari dira, hain zuzen, espazio metropolitarrako zona zentralagoetan dagoeneko kokaleku egokirik aurkitzen ez duten jarduera-espazio berriak. Deigarriki, Bilbo Metropolitarretik hurbilen dauden Mungiako eta Busturialdea-Artibaiko itsasertzeko esparruek apenas dute dinamismorik lurzoru horien garapenean, eta bizitegiko eta hirugarren sektoreko espezializazio garbia erakusten dute, baita industria-lurzoruak garatzeko joera urria azaldu ere. Egoera horren antzekoa da Urola-Kostako eremuan, Donostiako inguruetan, erabilera horietarako kalifikatutako azalera murriztu egin da-eta. Gipuzkoaren gainerakoan hazkunde-esparruak agertzen dira, kuantitatiboki txikiak, A-1 autobaien ardatzaren inguruan eta Bidasoa Behereko zonan, eta Arrasaten ere hazkunde puntual bat antzematen da. Hutsik dagoen lurzoruaren azterketak dinamika horiek azpimarratzen ditu. Kontuan izan behar da, alabaina, guztizko lurzoruaren datuak kalifikatutako lurzoruari dagozkiela baina horrek ez du esan nahi nahitaez garatuta daudenik. Beraz, denbora-atzerapen bat agertzen da azkeneko urte hauetan sortu diren lurzoruaren okupazioan.

2007. urteko datuek adierazten dutenez, EAEn jarduera ekonomikoetarako kalifikatutako lurzoruaren % 33,3 hutsik dago. Arabari dagokio hutsik dagoen lurzoru horren % 44, Bizkaia % 26 eta Gipuzkoari % 28. Araba Erdialdean lurzoru guztiaren % 71,8 hutsik zegoen 2007. urtean. Ehuneko hori % 32 zen 2000. urtean eta 2006. urtean izan zuen baliorik handiena: % 73,5. Egoera antzekoa da Arabako Errioxan, jardueretarako hutsik dauden lurzoruak % 82 baitira eta % 31tik hazi baitira balio horretaraino azkeneko zazpi urteetan. Enkartzioetan ehuneko % 62ra

iristen da, Debararrenan % 45era eta gainerako eremu funtzionalek okupatu gabeko lurzoruaren % 25 eta % 38 bitarteko ehunekoak dituzte, Donostia-Beterriko eremua izanik okupazio-indize handiena erakusten duena: % 25. Lurzoru erabilgarriko paketerik handienak Arabako Lautadan agertzen dira. Bertan, Gasteizko udalerriak bakarrik ia EAE osoan erabilgarri dagoen lurzoru guztiaren ia laurdena hartzen du. Arabako A-1 autobiarren ardatzeko udalerrietan ere lurzoru erabilgarri asko dago, Lantaron-Gasteiz eta Agurain-Asparrena tartetean batik bat. Jarduera ekonomikoetarako kalifikatuta eta hutsik dagoen lurzoruaren bigarren esparru handia Bilbo Metropolitarran agertzen da, Asua haraneko udalerrien inguruan bildua, nagusiki aireportuaren inguruetan, 'kanpoko portuaren' hurbileko espazioetan eta, modu puntualagoan, Ezkerraldeko udalerrietan (Barakaldo, Sestao) eta AP-8 autobidean zeharreko Durangorekiko konexio-esparruetan (Galdakao). Denera jota, Bilbo Metropolitarran hutsik dauden 764 ha agertzen dira 2007. urtean. Hain zuzen ere, okupazioa eritmo handienez hazi den esparrua da. Donostia-Beterri, 344 ha-rekin, hutsik dauden lurzoruak dituen hirugarren esparru handia da, nahiz eta beste bietatik urrun egon. Irunek, Hondarribiak, Hernanik eta Usurbilek ia lurzoru erabilgarri horien osotasuna kontzentratzen dute. Durangaldeak hutsik dauden 212 ha ditu, nagusiki Amorebieta-Etxanon eta, neurri txikiagoan, Durangon, Muxikan eta lurretan kokatuak. Debagoiena, 202 ha-rekin, bosgarren esparrua da. Okupatu gabe dagoen ia lurzoru guztia buruan kokatzen da, eta hamarkadaren hasieran kalifikatutako lurzoruek ez dute ondoren izan. Arabako Errioxan ia 200 ha daude hutsik, batez ere buruan eta Oiongo eta Lantziegoko udalerrietan kontzentratuta. Aiako eremuan 161 ha agertzen dira hutsik. Lurzoru-paketeak Amurrion, Urduñan, Aiaran, Laudion eta Artziniegan kokatuta daude, eta okupatutako azalera murriztu egin da 2000-2007 aldian. Enkartzioetan, Balmasedak eta Gueñesek erabilgarri dagoen ia lurzoru guztia hartzen dute (79 ha inguru). Debararrenan ia 100 ha libre agertzen

dira, nagusiki Deban kokatzen direnak. Mungian beste 47 ha daude libre, eremuaren buruan batez ere. Gipuzkoako haranetan, Goierri esparru batzuk daude (Beasain, Ordizia, Ezkio-Itsaso) 132 ha baino gehiago biltzen dituztenak, eta Toloserrian (Tolosa, Ibarra) beste 97 ha. Azkenik, Urola-Kostako eremuan beste 146 ha daude, Azpeitian, Azkoitian, Zestoan eta Zumaian kokatuak.

b.15. Berrikuntza eta teknologia berriak

2004ko ekitaldian guztira 768.884 mila euro inbertitu ziren Euskal Autonomia Erkidegoan I+Gko jardueretan. Kopuru horrek maximo historikoa adierazten du, mota honetako jardueretako gastua etengabe gehitzeko joera erakutsi duen hamarkada baten ondoren. Ildo horretan, 2004. urtean egindako I+Gko gastua 1993. urtean erregistratutakoaren hirukoitza baino handiagoa izan da. Termino erlatiboan azterketak erakusten du 2004. urtean I+Gko jardueretan egindako gastuak Barne Produktu Gordinaren (BPG) % 1,44 ordezkatzeko duela, hots, 2003. urtean erregistratutako tasa baino hiru ehunen handiagoa. Azkeneko urteetan mota honetako jardueretan egindako ahaleginak gorako joera nabaria erakusten du (1993. urtean I+Gko gastua BPGaren % 1 izan zen).

Euskal Autonomia Erkidegoko I+Gko inbertsio-ahaleginak nabarmen gaitzen du estatuaren osotasunean egindakoa (% 1,07). Dena den, EAE oraindik ere EB-15eko (BPGaren % 1,91) eta ELGako herrialdeetako (BPGaren % 2,26) batez besteko mailaren azpitik kokatzen da argi eta garbi. Aldea are gehiago nabarmentzen da konparazioa Suedia (% 3,98), Finlandia (% 3,48) edo Japonia (% 3,15) bezalako herrialdeekin egiten badugu, horiek guztiek BPGaren % 3tik gorako I+Gko inbertsioak baitituzte, ikerketaren eta garapen teknologikoaren alorreko inbertsio-ahaleginaren eta

ZENTRO TEKNOLOGIKOAK ETA UNIBERTSITATEAK



esparru geografiko jakin baten per capita errentaren arteko korrelazio estua islatuz.


Testuinguru horretan, gogoan izan behar da Lisboako Agendan 2010. urterako helburu gisa ezartzen dela EBko I+Gko gastuak Barne Produktu Gordinaren % 3ra iritsi daitezela lortzea. Helburua asmo handikoa da, baina behar-beharrezkoa ekonomia gero eta globalizatu eta lehiakorragoari aurre egin ahal izateko. EAEko kasuan, 2010. urtean Europar Batasunaren % 3ko helburu hori lortzeko, aldi horretan bikoiztu egin beharko luke I+Gko jardueretako egungo inbertsio-ahalegina, eta hori benetan erronka handia da euskal ekonomiarentzat (gogoan izan behar da EAEn azkeneko hamaika urteetan BPGaren gaineko I+Gko gastua ehuneko puntu erdi inguru besterik ez dela gehitu).

EAEn gaur egun I+Gn egindako gastuaren finantziatio-iturriak erreparatuta, nabarmenezkoa da enpresek garatu duten eginkizun garrantzitsua, 2004. urtean I+Gn inbertitutako funtsen bi herenak (% 66) jarri baitzituzten; estatuko batez bestekoaren (% 48) eta Europako batez bestekoaren (% 54,3) gainetik, beraz. Dena den, zehaztu beharra dago kontu-sail horretan zentro teknologikoen jardura kontabilizatuta dagoela, eta horiek Euskal Teknologia Sareko irabazi-asmorik gabeko zentroak direla. Administrazio publikotik datorren finantziatioa (% 29,7), atzerritik datorrena (% 4,2) eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei dagokiena (% 0,1) dira garrantziz hurrengoak.

Ikerketako eta garapeneko jardueretan diharduten langileei dagokienez, 2004. urtean EAEn guztira 11.925 pertsona ari ziren lanean dedikazio osoko baliokidetzan (DOB), hau da, estatu osoko langileen % 7,4 gutxi gorabehera (parte-hartze hori EAEk estatuaren osotasunean duen biztanleriaren pisua (% 4,8) baino nabarmen handiagoa da). Lanbide-

kategorien arabera, ikertzaileek EAEn I+Gn diharduten langile guztien % 62,2 kontzentratzen dute, eta gainerako % 37,8a langile teknikoaren eta laguntzaileen artean banatzen da.

1995-2004 aldiko I+Gko gastua (BPGaren gaineko %)



Iturria: Eustat, 2006

b.14.1. Informazioaren gizartea

a) IKTak euskal familietan barneratzea

Azkeneko urteetan nabarmen egin du gora IKT ekipamendu nagusiak (ordenagailua, Internet eta telefono mugikorra) euskal etxeetara sartzeko prozesuak. Ildo horretan, 2005. urteko laugarren hiruhilekoan 15 urteko eta gehiagoko euskal biztanleriaren % 60,1ek ordenagailua zuen etxean (2000. urtearen hasieran % 37,1), % 45,1ek Internet konexioa zuen (2000. urtearen hasieran % 11), eta % 88,5ek telefono mugikorra (2000. urtearen hasieran % 49,2). 14 urtetik gorako euskal biztanleriaren etxeko IKT ekipamenduaren maila beste lurralde-esparru batzuekin konparatuz, azpimarratu beharra dago gaur egun Europar Batasuna osatzen duten herrialdeetako batez bestekoaren antzeko mailetan dagoela.

Interneteko erabiltzaileen kopurua kontuan hartuta, etxean zein etxetik kanpo, 2000. urtearen hasieraz geroztik nabarmen hazi dela ikus daiteke, nahiz eta 2002ko II. hiruhilekoan eta 2005eko II. hiruhilekoan eten txikiak izan ziren. Hala, 2005. urtearen amaieran 691.200 internauta zeuden guztira EAEn (% 33,8 emakumeak ziren), hots, 14 urtetik gorako euskal biztanleriaren % 37,6. Dena den, Internet euskal biztanleen artean gero eta hedatuago dagoen tresna bada ere, ekipamendu horren erabilera-maila oraindik ere EB-15ekoaren azpitik dago nabarmen. Izan ere, EB-15en 14 urtetik gorako biztanleriaren % 54,8 Interneteko erabiltzailea da, eta Europako iparraldeko herrialde batzuk bereziki nabarmentzen dira, hala nola Suedia, Holanda eta Danimarka, % 75etik gorako tasak dituzte-eta.

b) IKTak euskal enpresetan barneratzea

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-ehunak aurrerakada handia egin du azkeneko urteetan IKT ekipamenduen ezarpenari dagokionez, baina oraindik ere alde nabarmenak antzematen dira tamaina handieneko eta dimentsio txikieneko establezimenduen artean (eskuarki azkeneko horiek finantza-baliabide urriagoak izaten dituzte ekipamenduotan inbertitzeko, baita zenbait kasutan ekipamendu horiek erabiltzeko behar gutxiago ere). Ordenagailu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-ehunean izan duen barneratzeari dagokionez (informazioaren gizarteak egindako aurrerakadaren oinarritzko adierazlea), adierazi beharra dago 2006. urtean euskal establezimenduen % 68,6k ordenagailu pertsonala duela (2000. urtean % 50,3).

Telefono mugikorrari dagokionez, euskal familien kasuan bezalaxe, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-ehunean barneratze-maila handiena duen ekipamendua da. Hala, 2006. urtean euskal establezimenduen % 72,8k ekipamendu hau dute (2000. urtean % 51,3), eta tasa hori % 86,4raino igotzen da 9 langile baino gehiago dituzten establezimenduen kolektiboan (2000. urtean % 78,1). Informazioaren gizarte deritzonarekin erlazio zuzenagoa duten teknologiak, hots, Internet eta posta elektronikoa, sartzeari dagokionez, ordenagailu pertsonalak eta telefono mugikorrak baino ezarpen txikiagoa badute ere, aurrerakada handia izan dute azkeneko urteetan. Ildo horretan, 2006. urtean euskal enpresen % 56,4k Interneterako sarbidea du (2000. urtean % 26,2) eta % 52k posta elektronikoa erabiltzen du (2000. urtean % 23,2); ehuneko horiek % 93 eta % 92,8raino igotzen dira, hurrenez hurren, 9 langile baino gehiago dituzten establezimenduen kolektiboaren kasuan (2000. urtean % 76,6 eta % 74,3, hurrenez hurren).

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-ehunaren IKT ekipamendua Europako esparruarekin konparatuta, 2005. urterako erabilgarri dagoen 9 enplegu baino gehiagoko enpresei buruzko informazioaren arabera, euskal enpresek gaur egun duten IKT ekipamenduaren maila Europako homonimoen parekoa dela ikus daiteke, nahiz eta oraindik ere alde esanguratsuak antzematen diren Europako iparraldeko herrialdeekin Internet aplikazio aurreratuetan erabiltzeari dagokionez: web-orria edukitzea edo merkataritza elektronikoaren garapena esate baterako.

b.14.2. Berrikuntza teknologikoaren euskal politika

Sektore pribatuak EAEko I+Gko jardueren finantziazioan duen pisuak adierazten du I+G produkzio-sistemaren beharretatik askoz ere hurbilago dagoela, zeren enpresaburuak berak baitira proiektu gehienak gauzatzen dituztenak. Euskal Autonomia Erkidegoa Espainiako aitzindarietako bat da eta oso esperientzia zabala du eskualde-esparruan politikak garatzen.

Euskal Autonomia Erkidegoko lehen Plan Teknologikoa laurogeiko hamarkadaren amaierakoa da. Estrategia Teknologikoko Plan horrek aldaketa sakona zekarren euskal politika teknologikoan. Hasierako aldian laguntzak eskaini ondoren —hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadetan—, eskualdeko beharrak eta nazioarteko esparruko garapen teknologikoaren beharrak aztertzen hasi ziren, Euskal Autonomia Erkidegoarentzat garrantzia zuten sektore eta arlo teknologiko nagusiak identifikatzeko asmoz. Horrela, Eusko Jaurlaritzak ahaleginak hautatutako sektore hauetan kontzentratzen hasi zen: automobilaren industria osagarrian eta makina-erremintan. Hautatutako eremu teknologikoak material aurreratuena, fabrikazio-teknologiena eta informazio-teknologiena izan ziren.

Ondorengo plan teknologikoak erkidegoan bertan zegoen eskaritik planteatutako azterketetan oinarritu ziren. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko produkzio-sistema garatzeko garrantzi handiena duten sektore eta eremu teknologikoen multzoa identifikatu da. “Kluster” horiek —erlazioatutako industrien eta erakundeen multzoak, erlazio bertikalen (erosleak/saltzaileak) eta erlazio horizontalen (bezeroak, teknologia, ikerketa-zentroak eta abar) sistema bat osatzen dutenak— politika teknologiko eta zientifikoaren lehentasunak islatzen dituzte.

1991-1995eko Industria Politikan Jarduteko Esparru Orokorraren eta 1993-1996ko Industria Teknologikoko Planaren lehentasunezko klusterrak honako sektore hauek izan ziren: balio erantsi handiko altzairua, makina-erreminta, etxetresna elektrikoak, automobil-osagaiak, papera, aeroespaziala eta energia eta telekomunikazioak. Gaur egun lehentasunezko zat jotzen diren kluster estrategikoak 11 dira (aeronautikoa, automobilgintzako osagaiak, etxetresna elektrikoak, energia, makina-erreminta, ingurumena, papera, informazioaren teknologiak, itsasokoa, portukoa, eta enpresa-kudeaketako jakintza) eta horien jarduera kooperatiboak, besteak beste, garapen teknologikoa, kudeaketaren hobekuntza, nazioartekotzea, giza baliabideen prestakuntza edo bezero erkidea bezalako jardun-ildoak hartzen ditu ardatz.

Euskal politika teknologikoaren beste elementu bat plan teknologikoak dira, multzo koherente eta koordinatua. Hasieran hainbat sailen ekimen batzuk zeuden, pixkanaka integratuz joan direnak. Lehenengo produkzio-sistamarantz zuzendutako ekimen gehienak elkartu dira Industria Teknologikoko Planean 1992. urtean. Gero, 1997. urteaz geroztik, zientzia ere politika teknologikoaren osagai bezala bere baitan hartzen duen Zientzia eta Teknologia Plana landu da.

Zientzia eta Teknologia Plana "Euskal Autonomia Erkidegoko ikerketako eta garapeneko politikari izaera bateratua emateko" Eusko Jaurlaritzaren estrategiaren funtsezko tresna da. Zientzia eta Teknologia Planak hiru programa mota ditu. Oinarritzko ikerketakoak, Euskal Autonomia Erkidegoko produkzio-ehunarentzat garrantzi estrategikoa duen baina, aldi berean, arrisku teknologiko eta finantzario handiak dakartzan ikerketarantz bideratuak. Programa horiek unibertsitateetako ikerketa-taldeei zuzenduta daude batik bat. Bigarren motakoak programa horizontalak dira. Enpresa-sektorearen osotasunerako interes orokorreko arloak biltzen dituzte, edo izaera espezifikoagoa dutenak baina Euskal Autonomia Erkidegoko produkzio-sektorearentzat garrantzitsuak diren teknologia horizontaletan oinarritzen direnak. Hirugarren motako programa teknologiko espezifikoak sailen arteko programak dira, industriaren jardunak Eusko Jaurlaritzaren beste esparru teknologiko batzuekin koordinatuko dituztenak.

Eusko Jaurlaritzak hainbat egitura eskaini eta garatu ditu garapen teknologiko eta industrialari sostengua emateko. Ondoren berrikuntza-sisteman zuzeneko eragina duten erakundeak adieraziko ditugu, zeharkako eragina duten hainbat erakunde alde batera utzita. Euskal Autonomia Erkidegoa ikerketa-zentroen sare zabala, berezia eta bere produkzio-egiturarantz nabarmen bideratua duen eskualde bakarra da beharbada. Hirurogeiko hamarkadan zenbait laborategi sortu ziren (LABEIN, INASMET), eta hirurogeita hamarrekotan CEIT eta IKERLAN. Laurogeiko hamarkadaren hasieran TEKNIKER, ROBOTIKER eta GAIKER sortu ziren Eusko Jaurlaritzaren ekimenez, eta kideko teknologiak zituzten enpresak lotu zitzaizkien. 1982. urtetik aurrera, Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailak indartu egin zuen berrikuntza sustatzeko politika eta aipatutako zentroak bere industria-politikari atxiki zizkion, baliabide ugari hornituz. Harrezkero, "Tutoretzapeko Zentro Teknologiko" (TZT) izendatu zituztenetako jarduerak proiektu teknologikoak garatzea, enpresa teknologikoak sortzea, teknologia,

saiakuntzak eta laguntza teknikoa zabaltzea eta graduatu ondoko ikertzaileak prestatzea hartu zuten ardatz.

Euskal Autonomia Erkidegoak hiru Enpresa eta Berrikuntza Zentro (EBZ), hiru parke teknologiko eta zortzi enpresa-elkarte ditu. Enpresa eta Berrikuntza Zentroek jarduera berritzaileak eta horien dibertsifikazioa ahalbidetzea dute helburu. Enpresa berriak sortzeko aholkularitzan zentratzen dira eta, gainera, enpresa horiei ingurune zientifiko, teknologiko eta finantzarioarekiko erlazioak errazten dizkiete. Enpresa-elkarteek era askotako jarduera teknologikoak gauzatzen dituzte.


Makina Erremintaren Institutuak eta European Software Institute (ESI) fundazioak euskal azpiegitura teknologiaren panorama osatzen dute. Erakunde horiek dagozkien sektoreei buruzko prestakuntza eta informazioa eskaintzen dute. ESik Europa mailan funtzionatzen du, softwarearen alorreko teknologia berrien inguruan prestakuntzako, demostrazioko eta zabalkundeko lanak eginez. Gainera, zerbitzu teknikoan bi zentro daude, industria-diseinua sustatzeko jarduerak garatzen dituztenak, informazioa eta aholkularitza teknikoa eskaintzea barne.


Alor teknologikoan finantza-ahalmen garrantzitsuena duten institutuak ez dira finantza-erakunde pribatuak, erakunde erdipublikoak baizik, hala nola Euskal Herriko Arrisku-Kapitalaren Kudeaketa AKEKS, S.A. Sozietate horretan Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua (ISEB/SPRI) sozietate publikoak eta hiru euskal aurrezki-kutxek parte hartzen dute, eta ETEak zein berrikuntza-proiektu espezifikoak finantzatzen ditu. Gainera, I+Gko jarduera jakin batzuk finantzatzen dituzten hainbat erakunde publiko daude: ISEB/SPRI bera, probintzia-administrazioetako sail edo zerbitzu batzuk eta Eusko Jaurlaritzako Teknologia eta Telekomunikazio Zuzendaritza. Arrisku-kapitala eskaintzen duten erakunde batzuk badaude ere, esan beharra dago, Espainia osoan eta are Europako zati handi batean

ere gertatzen den bezalaxe, arrisku-kapitalaren falta arazo estrukturala dela berrikuntzarako.

Plan teknologikoen iraupenari dagokionez, azpimarratu beharra dago Eusko Jaurlaritzak indarrean dauden urte anitzeko plan teknologikoak garatu dituela 90eko hamarkadaren hasieraz geroztik. Arestian adierazi dugun moduan, Euskal Autonomia Erkidegoak oso politika teknologiko dibertsifikatua dauka. Eusko Jaurlaritzak berak maiz samar egiten ditu munduko garapen teknologikoari buruzko azterketak, merkatu teknologikoak erkidegoan bertan dituen beharren arabera, eta bere politikarako inplikazioak aztertzen ditu. Politika teknologikoan gauzatzen dituen jardueretan bada gainerako erkidegoen aldean desberdina den alderdi bat: produkzio-sistemaren kluster garrantzitsuetan kontzentratzea. Espainiarako politika teknologikoetarako alderdi berri bat helburu kuantifikatuak sartzean datza. Zientzia eta Teknologia Planak zehatz-mehatz adierazten du zein neurritan handitu beharko liritekeen I+Gko gastuak, patente kopurua, balantza teknologikoaren estaldura-tasa eta abar.

Patenteen sorkuntzaren bilakaera (1999-2005)





Legenda

- Zentro Teknologikoak
- Parke Teknologikoak

Iturria: www.rpte.net